

EUSKARA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



2018

bizkaiko hirugarren
sektorearen
behatokia

Euskara zirimiria bezalakoa da; poliki-poliki erortzen da, baina azkenean erakundearen eguneroko errealitatea gainezkatzen du.


Egileak: Ainara Canto, Lucía Merino eta Arantza Remiro.
Lantalde laguntzailea: Iskandar Cabezas eta Zuriñe Romeo.

Euskara Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeetan Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak egindako ikerlana da. Behatokia, halaber, Hirugarren Sektorea sustatzen duen programa da, Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta EDE Fundazioak bultzatua, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Sailarekin elkarlanean.

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia




Colabora:



Behatokiako argitalpen hau eta gainontzekoak doan deskarga daitezke www.3sbizkaia.org webgunetik.

Argitalpen horien bitartez, Hirugarren Sektorearen hobekuntza bultzatu nahi dugu; horrenbestez, eskertzen dugu haien hedapena ahalik eta zabalena izatea, eta, halaber, baimena ematen dugu materiala banatzeko, kopiatzeko eta berriz erabiltzeko, beti ere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta egilea nor den adierazten bada.



Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. ESPARRUA	4
2.1. Arau-esparrua eta ibilbide historikoa	4
2.1.1 EAEk euskarari dagozkion oinarri juridikoak eta lan munduko eskubide linguistikoak.	4
2.1.2. Euskararen sustapena EAEn	6
2.1.3. Euskararen sustapena EAEko sektore pribatuan.....	9
2.2. Aurretiazko lanak	13
2.2.1. Euskarak sektore pribatuan duen egoeraren ikerketa esanguratsuak.....	13
2.2.2. EHSSren baitako euskararen egoeraren ikerketa eta bultzada.....	14
2.3. Justifikazioa: zergatik eta zertarako bultzatu euskara EHSSeko erakundeetan?.....	15
3. PLANTEAMENDUA.....	17
3.1. Helburuak.....	17
3.2. Ikergaia mugatzea.....	18
4. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA.....	20
5. EHSSetan EUSKARAK DUEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA.....	27
5.1. Euskara-gaitasuna eta euskararen erabilera	27
5.1.1. Hizkuntza-gaitasuna	27
5.1.2. Euskararen erabilera orokorra	30
5.2.3. Euskararen erabilera komunikazioan	34
5.2. Euskararen sustapena.....	42
5.2.1. Erakundeek euskara bultzatzeko hartutako neurrien egoera.....	42
5.2.2. Erakundeen erronkak, euskararen sustapenari dagokionez	51
5.3. Lurralde historikoen arteko analisi konparatiboa.....	55
5.3.1. Inguruneko errealitate soziolinguistikoa	55
5.3.2. Euskara-gaitasuna eta euskararen erabilera	56
5.3.3. Euskararen sustapena	61
5.4. Diagnostikoaren laburpena eta ondorioak	64
6. JARRAIBIDEAK.....	67
6.1. EHSSeko erakundeetarako jarraibideak: zer egin dezakegu?.....	67
6.2. EHSSak eta herri administrazioen EHSSean euskara bultzatzeko jarduketa-lerroen proposamenak	71

7. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK ETA ESPERIENTZIAK	77
7.1. Euskararen sustapeneko esperientziak	77
7.2. Jardunbide egokiak	80
7.2.1. 1. Esperientzia: Agintzari	80
7.2.2. 2. Esperientzia: Apnabi	82
7.2.3. 3. Esperientzia: EDE Taldea	85
7.2.4. 4. Esperientzia: Urgatzi elkarte.....	89
8. ERAKUNDEETAN EUSKARA SUSTATZEKO BALIABIDEAK.....	93
9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	104
10. ERANSKINAK	106
10.1. Galdetegia	106
10.2. Laginaren deskribapena.....	113
10.3. Talde aliatuan parte hartu duten erakundeen zerrenda	114
10.4. Online bidezko inkestan parte hartu duten erakundeen zerrenda	115
10.5. Eztabaida-taldeetan parte hartu duten erakundeen zerrenda	117
10.6. Mintegian parte hartu duten erakundeen zerrenda	119

1. SARRERA

Txosten honetan **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko (EHSS)¹ erakundeetan euskarak duen presentziari eta erabilerari dagokion egoeraren diagnostikoa eta erakunde horietan euskara bultzatzeko dauden politiken garapen maila** jasotzen da.

Azken urteetan, botere publikoek eta biztanleek ahaleginak elkartu eta gizarte geroz eta elebidunagoa lortzeko helburuan dihardute. Gure lana Eusko Jaurlaritzak 90eko hamarkadatik aurrera lan-munduan euskara sustatzeko bultzatzen dituen proiektuekin bat dator eta horietatik eratorritako zenbait ikerketa-lan oinarri hartu ditu, aztergai dugun sektoreko eta beste sektore batzuetako paisaiak alderatzeko.

Politika aktiboek eta hainbat eragileren partaidetzak euskararen erabilera egiazkoa bihurtu dezake lan munduan, gizarte elkartuagoa eta integratuagoa eta gizarte gisa dugun aberastasunaren eta aniztasunaren isla izango diren lan-espazioak lortzeko eginahalean lagunduz, espazio horietan hizkuntza-eskubideak benetan erabiltzea posible izan dadin.

Txosten honek euskarak sektore jakin batean duen egoera hobeto ezagutzeko aukera ematen digu, eta **EHSSean euskararen presentzia eta erabilera indartzeko eta bultzatzeko** neurri zehatz eraginkorrek diseinatzea du helburu.

Txostenaren lehenengo zatiak arau-esparruari eta euskararen aldeko ibilbide historikoari eta aurretiaz egindako lanei buruzko edukiak jasotzen ditu; baita aurkezten den lanaren justifikazioa ere, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean euskara zergatik bultzatu behar den ere azaltzen duena.

Jarraian, lanaren planteamendua, metodologia eta lan-prozesua xehatzen dira eta, ondoren, EHSSan euskarak duen egoeraren diagnostikoa aurkezten da; diagnostiko horretan, hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren eta euskararen sustapenaren gaineko analisia jasotzen da, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatuz.

Alde batetik, EHSSeko erakundeetan euskara bultzatzeko orientazioak eskaintzen dituzte hurrengo zatiek eta, bestetik, euskararen sustapenaren eta jardunbide egokien esperientziak. Halaber, entitateetan euskara sustatzeko dauden baliabideei buruzko atal bat eskaintzen da. Azkenik, erreferentzia bibliografikoak eta lanaren eranskinak jasotzen dira.

Ikerketa Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak egin du. Behatokian, Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK Fundazioak eta EDE Fundazioak parte hartzen dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin batera.

¹ Hurrengo orrialdeetan EHSS siglak erabiliko dira Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala aipatzeko.

2. ESPARRUA

2.1. Arau-esparrua eta ibilbide historikoa

2.1.1 EAEk euskarari dagozkion oinarri juridikoak eta lan munduko eskubide linguistikoak.

Euskararen Erabileraren Normalkuntzarako 10/1982 Legeak gizarteko funtsezko esparruetan euskararen erabilera eta ezagutza berreskuratzeko hizkuntza-politikako ekintzak garatzeko eta euskarari babes instituzionala emateko bidea hasi zuen.

Ez dagoenez araudi bakarra, araudi juridikoak euskarari ematen dion estatusa aipatzean, ofizialtasuna eta lurraldetasuna kontuan izan behar dira. Euskara hitz egiten den lurraldean hainbat erregimen juridiko daude eta horrek aitortzaren inguruko aldeak eragiten ditu.

Hortaz, Frantziako estatuko euskal lurraldeetan (Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan) euskarak ez du izaera ofizialik.

Espainiar estatuko euskal lurraldeetan bi trataera desberdin hartzen ditu:

- *Euskal Autonomia Erkidegoan* (Bizkaia, Gipuzkoa eta Gipuzkoa) euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera. Bi hizkuntzen erabilera arautzeko asmoz onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako Erakunde Publiko guztiei eragiten dien [10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarrizkoa](#). Halaber, euskarari dagokion araudiaren barruan, nabarmentzekoak dira [Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea](#) eta [Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea](#).
- *Nafarroako Foru Erkidegoan* lurraldearen zati batean da ofiziala euskara, gaztelaniarekin batera. [13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru eraentza berrezarri eta hobetzeko](#), da hizkuntzen oinarrizko legea, eta honi jarraiki, euskara eta gaztelania dira Nafarroako inguru euskaldunetako bi hizkuntza ofizialak. Aldiz, lurralde horietatik kanpo soilik gaztelania izango da ofiziala.

Bestalde, euskararen erabilerari eragiten dioten Europako eta Estatuko hainbat arau garrantzitsu daude:

- [1978ko Konstituzioa](#): 1978ko Espainiako Konstituzioak Estatuko hizkuntzen oinarrizko arautzea ezartzen du.
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.

Aipatutako legediak hizkuntza normalkuntzak jaso beharreko trataera zehazten du. Beste kontsumo harreman batzuekiko pisu zehatza dute; izan ere, legediak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortzen dizkien hizkuntza eskubideen jarduera eraginkorra ahalbidetzen dute. Hortaz, orokorrean esan dezakegu, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko [uztailaren 1eko 123/2008 Dekretuari jarraiki \(EHAA – 2008ko uztailaren 16koa, asteazkena, 135 zenbakidun alea\)](#), erabiltzaile eta kontsumitzaileek eskubide hauek dituztela:

- a) Zerbitzuen eta ondareen inguruko informazioa euskaraz jasotzea.

- b) Euskadin jarduten duten enpresa edo establezimenduekiko harremanak euskaraz edo gaztelaniaz gauzatzea. Horien betebeharra da zerbitzua eskaintzeko aukera bermatzea darabilten edozein hizkuntza ofizialetan.

Eskubide horien jarduera eraginkorrak, aldiz, araudiak ezarritako aurreratzeari azpiratzen zaizkie: alde batera uzten dira, besteak beste, saltoki txikiak eta mikroenpresak. Orokorrean, honako betebeharrak linguistikoak izango dituzte:

- Eskubide pribatuaren erregimenari jarraiki produktuen hornikuntzan diharduten edo zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde publikoak.
- Interes orokorreko edo antzeko zerbitzu unibertsalak eskaintzen dituzten pertsona edo erakunde juridikoak².
- Publikoari bideratutako zerbitzuak eskaintzen edo produktuak saltzen dituzten establezimendu handiak.
- Merkataritza establezimendu kolektiboak.
- Finantza eta kreditu erakundeak.
- Eraikuntza-lanen enpresa sustatzaileak eta etxebizitzak saldu edo alokatzen dituzten enpresak.

Gainera, [Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretua aldatzen duen uztailaren 20ko 204/2010 Dekretuak](#) luzatu egiten ditu epeak, erakundeak, enpresak eta establezimenduak araudira egoki daitezen.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren eta Gizarte Zerbitzuen araudian ere gai honi buruzko informazioa aurki daiteke:

- [Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen](#) 16. artikulua araberaz, ardura publikoko gizarte-zerbitzuak euskal administrazioekin batera eskaintzen diharduten edo interes orokorreko beste jarduera batzuetan laguntzen duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek, *“zerbitzua herritarrek hautatutako hizkuntza ofizialean eskaintzeko ahalegina”* egiteko betebeharra izango dute.
- Era berean, [Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari](#) jarraiki, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen (9. artikulua) eskubideen artean aipagarria da *“erabiltzaileen lehentasunaren arabera, EAEko hizkuntza ofizialetan jasoak izateko eskubidea dutela”*. 60. artikulua ere *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoaren kudeaketan edo gizarte-zerbitzuen atalean ardura publikoko beste jarduera batzuetan esku hartzen duten enpresa pribatuek, 7. artikuluan aurreikusitako jardura-oinarriak errespetatu beharko dituzte, c) atalean araututako berdintasuna eta ekitatea bereziki zainduz. Batik bat, 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera arautzeko oinarrikoa eta 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena oinarri hartuz, aipatutako erakunde pribatuek*

² Kategoria honetan sartzen dira: EAEko komunikazioan jarduten duten komunikazio enpresak, zerbitzu unibertsala ematen dutenak eta EAEko publikoaren esku dauden zerbitzu telefonikoak eskaintzen dituztenak. Bidaiarien garraio publikoko zerbitzuak ematen dituzten trenbide-enpresak. EAEko errepideko bidaiarien ohiko garraio publikoa ematen duten enpresak. EAEko bidaiarien aireko ohiko garraioa eskaintzen duten enpresak eta EAEko zenbat aireportutan bidaiarien lurreko laguntza-zerbitzua eskaintzen dutenak. EAEko erabiltzaile edo kontsumitzaileak energia elektrikoaz hornitzen dituzten enpresa banatzaile nahiz merkaturatzaileak. EAEko erabiltze edo kontsumitzaileak gas naturalaz hornitzen dituzten enpresa banatzaile nahiz merkaturatzaileak. Atal honetan aipatzen diren zerbitzuak jabe publikoak direnean, enpresa edo erakundeak aurreko atalean sartuko dira.

*beharrezko neurriak hartuko dituzte erabiltzaileen hizkuntza-aukera (gaztelania edo euskara) errespetatzen dela bermatzeko*³.

Bestalde, aitortza juridikorik ez duen arren, UNESCOk babestutako 1996ko [Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak](#) norbanakoen zein kolektiboen hizkuntza eskubideak jasotzen ditu.

Deklarazioak dituen hainbat tituluren artean, Bigarren Tituluak, Hizkuntza Araubide orokorrari buruzkoak, Esparru Sozioekonomikoari dagokion VI. atalean, sei artikulua jasotzen ditu (47tik 52ra), azterlan honen xedeari dagokionez interesgarriak direnak, hizkuntza komunitateek dituzten honako eskubide hauek jasotzen baitira:

- bere hizkuntzaren erabilera bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan ezartzeko eta jarduera profesionala gauzatzeko beharrezko bitartekoak bere hizkuntzan izateko eskubidea;
- edozein motatako erakunde sozioekonomikotan (hala nola, lan-arloko, sindikatuen eta patronalen arloko erakundetan, erakunde profesionaletan eta gremio-erakundetan) eta enpresekiko, merkataritzako eta erakunde pribatuekiko harremanetan bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea, eta hizkuntza berean atenditua eta erantzuna izatekoa;
- lan-jarduerak edo jarduera profesionalak lurraldearen barruko hizkuntza propioan egiteko eskubidea, lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntza batzuk erabiltzea eskatzen duten kasuak salbuetsiz, hala nola hizkuntza irakasleen, itzultzaileen eta turismo-gidarien kasuak.

2.1.2. Euskararen sustapena EAEn

Gizartearen maila anitzetan euskararen sustapena eta normalizazioa landu dira. Hezkuntza arloan oso modu nabarmenean landu dira alderdi horiek; ahalegin handiak egin dira, eta nabarmentzekoa da eragile formalek –ikastolek, esaterako– eta beste euskalduntze-eragile batzuek –AEK, etab.– egin duten lana. Garrantzitsua da hezkuntza ez-formalean hainbat erakundek egin duten lana, hezkuntzako aisialdiko taldeek, besteak beste.

Kulturaren arloan, azkeneko hamarraldietan garapen, proiektio eta irismen handia bizi izan du euskal kultura-sorkuntzak eta –ekoizpenak, literaturan, musikan, arte eszenikoetan zein bestelako arte-adierazpenetan. Euskarazko komunikabideak ere funtsezko eragileak izan dira informazioaren eta edukiaren euskarazko zabalkundean. Gainera, Eusko Ikaskuntzak eta Etxepare Euskal Institutuak, besteak beste, euskal kulturaren garapenean lan egin dute. Komunitate-antolamenduko beste ekimen batzuk ere nabarmen lagundu dute euskara ikusgaitasuna eta sustapena lortzen; hala nola, Ibilaldia, Korrika, Durangoko Azoka eta beste hainbat ekimenek.

Maila oso txikian, beren eguneroko bizitzan euskara normalizatzearen aldeko apustua egin duten pertsonak, familiek eta kolektiboek egin duten ahalegina nabarmendu behar da; era horretan, aldaketa nabarmenak eragin dituzte euskarazko komunikazio eta elkarrekintzako ereduetan.

Esparru instituzionalean, euskararen bultzada 1982an sortutako [Euskararen Aholku Batzordearen](#) eskutik etorri zen EAEn. Erakunde publiko hori hizkuntza-normalkuntzan

³ 7. artikulua. C Ataleko Oinarriak: “Era berean, euskal administrazio publikoek, hizkuntza araudiari jarraiki, euskara edo gaztelania erabiltzeko pertsonen eskubidea bermatuko dute”

nahastutako erakundeen (pribatu nahiz publiko) jarduerak eta ahaleginak ikertzeko, bideratzeko eta koordinatzeko abiatu zen.

Lehen ekintzetako bat, Euskal Herriko hizkuntza-politiken eraginkortasuna aztertu ostean, 1998ko ekainean [Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia \(EBPN\)](#) onartzea izan zen eta Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak hilabete geroago onartu zuen hamarkada osoan zehar hizkuntza-normalkuntzan aurrera jarraitzeko. Planak hizkuntza-politikako estrategia-helburuak eta lehentasunezko proposamenak zehaztu zituen. Aldi berean, erakunde publikoen eta euskararen sustapenerako elkarte bateratuen arteko koordinaziorako jarraibideak ere eman zituen. Horretarako, laneko eginbeharrak hiru helburu estrategikoren inguruan harilkatu zituen:

- Euskararen transmisioa.
- Euskararen erabilera soziala (zerbitzuak euskaraz eskaintzea).
- Hizkuntzaren kalitatea.

Bigarren helburuaren arabera, hiltune euskarak gaztelaniak adinako balio funtzional eta pertzepziozkoa izan dezakeela erakusteko, euskara eskolaren mugatik haratago zabaldu behar da, beste gizarte sail garrantzitsu batzuk hartuz.

Aurrerago, 2008-2009 urteen artean, Euskara 21 deituriko hausnarketa prozesua abiatu zen, mende hasierako hizkuntza politikarako oinarriak ezarriz. Prozesu hartan herritar askok parte hartu zuten, eta besteak beste, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) berrikusi eta eguneratu zen, bereziki, XXI. mende hasierarako egokitzeke. 2009. urtean, Eusko Legebiltzarrak, Euskara 21 prozesua onartu zuen eta honako txosten honetan jaso zen: "[Itun berri baterantz](#)".

Bestalde, EBPNren berrikuspenaren baitan, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak Euskararen garapenaren eta egoeraren inguruko txostena eman zuen argitara 2011ko apirilean. Informean jasotako datuen arabera, euskararen normalkuntzan eragin gehien izan duten prozesuak hiru sail nagusitan koka daitezke: hezkuntzan, ekoizpen editorialean eta informazio eta komunikazio teknologietan.

Hortaz, hurrengo hamar urteetarako hizkuntza-plangintzak alderdi sendoak aprobetxatu eta ahulak zuzendu behar zituela erabaki zen, eta horretarako, aurrez aipaturiko argitalpenak hartu ziren oinarri: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), *Euskara 21* ekimeneko txostenak eta euskararen egoeraren eta garapenaren inguruko txostena. Horrenbestez, Euskararen Aholku Batzordearekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzak [Euskara Sustatzeko Ekintza Plana \(ESEP\)](#) diseinatu zuen 2012an.

Ekintza Plan hori, aurreko EBPNaren moduan, EAEn gauzatu zen, hurrengo hamar urteetarako hizkuntza-politikarako neurriak proposatu zituen eta nolabait, Euskara 21 ekimenean aipatutako jarraibide eta oinarriak era praktikoan aplikatzeko modu bat irudikatzen zuen. Horrela, euskararen erabilera bultzatzeko, datozen urteotako hizkuntza politika Itun Berri Baterantz dokumentuan bildutako hamalau puntuak jarraituko dira, eta plan berriak puntu horiek neurri berriekin garatu eta praktikan jartzeko egokituko ditu.

Aurreko planean (EBPN) ezarritako helburu estrategikoak ziren lorpena, erabilera eta kalitatearekin batera, hizkuntza plangintza integralak, horiek lortzen lagunduko duten gainerako jardura batzuk (zeharkako lerroak) ere kontuan izan behar dituela onartzen da. Horien artean, hizkuntzaren erabileran eragin nabarmena duten eta Euskararen Sustapenerako Ekintza Planeko (ESEP) jardura espezifikoaren kapituluan garatzen diren euskararekiko motibazioa eta euskararen hedapena bezalako faktoreak:

Helburu estrategikoak*Euskara barneratzea.*

1. Familia transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntzea- Alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Euskaldunenak diren eremu geografikoak
6. Inguru sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen kalitatea.

8. Ekoizpen editoriala
9. Kultura-jarduera
10. Publizitatea
11. Corpusa planifikatzea eta euskararen kalitatea
12. Komunikabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)

Helburuak lortzeko zeharkako lerroak*Euskararekiko motibazioa*

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen hedapena.

15. Barne-proiektzioa
16. Kanpo-proiektzioa

2013an, Euskararen Aholku Batzordeak, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak 2013-2014 aldirako proposatutako lan-programa onartu zuen. Honakoa izan zen aipatutako programan bildutako lanetako bat: Euskara 21 Batzorde Bereziari egokitutako “euskararen gaineko diskurtsoak batzeko bideak aztertu, alderatu, berritu eta abiarazi”. Horretarako, EGOD proiektua abiatu zen (Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoak) eta emaitzak 2016an zehar zabaldu eta komunikatu zitzaizkion gizarteari.

Euskararen Aholku Batzordearen egitekoetako bat EAEko hizkuntza-normalkuntzan eragin dezaketen auziak aztertzea eta ikertzea da, ondoren, Gobernuari eta dagozkion erakundeei euskararen erabilerari lotutako xedapenak hobetzeko neurriak proposatzea. 2016ko *Eta hemendik aurrera zer?* da Batzordeak argitaratutako azken dokumentua. Bertan, hainbat sailetarako lehenasunen markoa zehaztu da:

9.1. Lehenasunak dimentsio makrosozialean.

- 9.1.1. Gizartearen sostengua: framing edo diskurtsoa
- 9.1.2. Gizartearen sostengua: euskara erabiltzearen zilegitasuna
- 9.1.3. Legezko estatusa
- 9.1.4. Hizkuntza politika: euskararen lurraldea
- 9.1.5. Hizkuntza-politika: Estatu-esparrua eta europarra
- 9.1.6. Hizkuntza-politika: administrazioari loturiko zerbitzu publikoen esparruan arreta elebidunerako gaitasuna hobetu

9.2. Lehenasunak dimentsio mikrosozialean.

- 9.2.1. Harreman sareak eta mintzaideen gaitasuna
- 9.2.2. Harreman egonkorra

9.3. Lehenasunak banakako dimentsioan.

- 9.3.1. Euskarazko nolabaiteko gaitasuna
 - 9.3.1.1. Euskarazko nolabaiteko gaitasuna: hezkuntza-sistemako hobekuntza linguistikoa
 - 9.3.1.2. Euskarazko nolabaiteko gaitasuna: helduen euskalduntzearen eraginkortasuna
- 9.3.2. Motibazioa

Era berean, 2016an zehar, honako lan hauek ere argitaratu ditu: *Euskarazko IKTak: GOMENDIOAK HERRI AGINTEENTZAT* eta *“Gu Gazteok. Laburpen-txostena eta lan-ildoen proposamena aurrera begira.*

Urte askoan zehar diseinatu eta ebaluatu diren Plan horiei loturik eta aurretik aipatutako dokumentuen azterketa oinarri harturik (“Euskera 21. Itun berri baterantz” eta “Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana (ESEP)”), honakoa garatu zuen Eusko Jaurlaritzak: “Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016: bizikidetzarako hizkuntza bizia”. Euskarak azken hamarkadetan bizi izan duen aurrerapena indartzea eta bizkortzea helburu duen Agenda: elebitasuna zeharka kudeatu nahirik, oinarrian ESEP Planak Eusko Jaurlaritzari egotzitako egitekoak bilduz eta berriak gehituz.

Aurrez euskararen normalkuntzarako eskuratutako baliabide eta organoek gain, Agendak Eusko Jaurlaritzako sail guztietan Euskara Unitateak sortzeko proposamena egiten du; horrela, Jaurlaritzako sail, organo eta elkarte guztiek euskararen normalkuntza eta bi hizkuntzen berdintasunean aurrerapausoak ematen jarraitzeko betebeharra bere egin dezaten.

Agenda honek, hiru moduren bidez, Jaurlaritzaren Programak hizkuntza normalkuntzari egozten dion zeharkakotasuna erakusten du:

- Batetik, elebitasuna bultzatzen eta bermatzen duten neurriak garatuz, betez eta gauzatuz.
- Bestetik, bi hizkuntzen oreka bilatuko duen hizkuntza-politika eta aukeren berdintasuna defendatuz, eta sustapen-politika hori garatzeko neurriak jarritz.
- Azkenik, elebitasunaren eta euskararen erabileraren balioen aldeko konpromisoa, sentsibilizazioa eta eredugarritasuna landuz.

2.1.3. Euskararen sustapena EAEko sektore pribatuan

EAEko lantegiak euskalduntzeko lehen saiakerak euskararen estandarizazioa abiatu zenean hasi ziren, 1977tik aurrera, hain zuzen. Hala ere, hasieran ez zegoen lanerako metodo egonkorrik eta lortutakoa langileen eta euskal kulturako gizarte eragileen ekimenari esker egin zen.

Lehen ahaleginak, eremu euskaldunetako enpresa ertain-handietan sortu ziren, bereziki kooperatibetan. Edozein modutara, esan dezakegu aurrez planifikatutako lehen ekimenak 1990ean hasi zirela.

1990ean Euskararen Aholku Batzordeak “Euskararen Normalkuntza Lan Munduan. Oinarrizko Irizpideak” izeneko txostena prestatu zuen. Orduko Hizkuntza Politikako Idazkaritza Orokorrak (gaur egun Hizkuntza Politika Sailburuordetza) Euskararen Aholku Batzordearen irizpideei jarraiki, lan-mundua euskalduntzeko oinarriak ezarri eta baliabideak eskuragarri jarri zituen. Esperientzia pilotu anitz abiatu ziren, askotan itunen bidez eta besteetan, diru-laguntzak baliatuz. Ordurako, udal euskaltegien eta euskaltegi pribatuen sarea sortu berria zen eta jadanik euskalduntze-alfabetatze saioetan parte hartzen hasiak ziren zenbait enpresa.

1997an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak esperientzia pilotua beste enpresa batzuegana zabaltzea erabaki zuen enpresa pribatuei bideratutako ordena orokor baten barnean diru-laguntza bide berria irekiz.

Esan bezala, 1998an zehar, Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) gauzatu zuen. Planak hainbat sailerako proposamenak biltzen zituen eta lan-munduari zegokionez, honako lau proposamen hauek batu zituen:

- Sail honerako marko orokorra gauzatea.
- Enpresetako euskara-planerako oinarritzko osagarriak zehaztea.
- Euskara-planak enpresa gehiagotara zabaltzeko giza eta ekonomia-baliabideak ezartzea.
- Hainbat gune sozioekonomikotako eragile elkartzea lortzea.

1999an, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak lankidetzara sinatu zuen Quebecoko Hizkuntza Politikako Idazkaritzarekin. Itun horren bidez, eta beste sail batzuetan izandako esperientzia kontuan izanik, enpresetako euskara planetan kontuan izan beharreko irizpideak gauzatu ziren.

2000n, Kultura Sailak, Industria eta Merkataritzakoek eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzakoek, euskara plana diseinatzeko eta garatzeko interesatutako erakunde pribatuei bideratutako diru-laguntza larria zabaldu zuen. Deialdiak hainbat urterakoak izan ziren eta 2004tik aurrera, urte bakarrerako deialdiak egiten hasi ziren.

2005ean, Euskararen Aholku Batzordeak txosten berria idatzi zuen: EABren gomendioak. Esparru sozioekonomikoan euskara biziberritu eta hizkuntza-normalizazioarako hurbilpen sistematikoagoa eta eraginkorragoa izateko irizpideak eta estrategia. Horrela, enplegu pribatuko eremua euskara berreskuratzeko beharrezkoak kokatzen zela bermatu zuen. Beharrezkoa zeritzon inguru sozioekonomikoan euskararen alde gauzatutako ekintzak baloratu, berrikusi eta doitu zituen hausnarketa egitea, eta horrela, etorkizunean, hizkuntza plangintzaren kasuan, era sistematiko eta eraginkorragoan esku hartzea.

Aurkezten ziren datuen arabera (2001ekoak), udaletxeetan, gizarte- eta osasun-zerbitzuetan, hezkuntzan eta enpresa pribatuetan euskarazko eskaintza zenbat eta altuagoa izan, herritarrek orduan eta gehiago erabiltzen zuten euskara. Beraz, euskararen erabileraren areagotzea eta produktuen eta zerbitzuen euskarazko eskaintza lotu daitezkeela dirudi.

Urte horietako egoerei egokitutako eta sistematikoagoa izango zen plan baten bila, honako lan proposamen eta irizpideak ezarri ziren:

- Laneko eremua mugatu: azpi-programak banatu.
- Euskara-plana diseinatu enpresaren egoerari jarriki.
- Zerbitzu eta baliabide gehiago eskaini.
- Eragile sozioekonomikoen parte hartzea handitu: merkataritza ganberak, enpresarien elkarteak, eskolak, sindikatuak, etab.
- Administrazio publikoen arteko elkarlan koordinatua bultzatu.
- Araudia garatu.
- Euskarazko Lanbide heziketaren eskaintza areagotu.
- Euskarazko etengabeko trebakuntza bultzatu.

2005ean bertan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak (Euskararen Legea eta beste hainbat xedapen, nahiz hizkuntza politikako sailak ordura arte egindako ibilbidea eta bereziki, EBPNren garapena, oinarri harturik) honako dokumentua garatu zuen: Hizkuntza Politikaren Etorkizuna: 2005-2009 Proiektua.

Bertan, hainbat jardunbide proposatu ziren; horietako bat eremu sozioekonomikoko euskararen erabilera bultzatzea izan zen, zenbait elkarteren parte hartzea antolatuz: merkataritzaganberak, enpresarien elkarteak, sindikatuak, elkargo profesionalak, lanbide-heziketarekin eta etengabeko trebakuntzarekin loturiko erakundeak eta lan-munduarekin lotutako Eusko Jaurlaritzako sailak (Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Garraioa eta Lan Publikoak; Ingurumena eta Antolamendua). Horretarako, ordura artekoak baino estrategia sistematizatuagoak eta errealistagoak diseinatu ziren:

- Aipatu berri diren elkarte eta organismoen inplikazioa eta parte-hartzea handitzea.
- Administrazio publikoen arteko elkarlana koordinatu giza eta ekonomia-baliabideak optimizatu ahal izateko.
- Enpresa-jardueraren araberako programa bereziak identifikatu eta garatu: industria-enpresa handiak, txikiak, ertainak, merkataritza-establezimenduak, txikizkako saltokiak, ostalaritza (tabernak eta jatetxeak), bankuak eta aseguru-etxeak.
- Ezaugarri soziolinguistiko bereziei jarraiki, enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak bultzatu.
- Euskara planen Erreferentzia Marko Estandarra ezarri.
- Euskara-planak kudeatzeko eta garatzeko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak eskaini beharreko produktu eta zerbitzuak zabaldu eta ezagutarazi.
- Indarrean dauden kalitate-ereduei jarraiki, enpresetarako euskararen erabilerarako ebaluaketa eta egiaztatze-prozedura zehatza ezarri.
- Euskararen presentzia eta erabilera neurtzeko adierazleak definitu. Era berean, datuen eguneratze-sistema eraiki (EAS).
- Dagokionean, finantzaketa-lerroa aztertu eta birformulatu.
- Dagokion legedia markoa garatu.
- Dagozkion plan estrategikoetan irizpide linguistikoa txertatu.
- Lan-eremu pribatuko eragile nabarmenei zuzendutako sentsibilizazioa eta komunikazioa indartu.

Ondoren, aurrez aipatutako, baita Eusko Jaurlaritzako Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016: bizikidetzarako hizkuntza bizi ere (eremu pribatuak euskararen normalkuntza planak bultzatzeko aipamena egin denean azaldua).

Estrategia honek merkataritza-saltoki handietako, zerbitzu unibertsalak eskaintzen dituzten enpresa handietako (ura, elektrizitatea, gasa, etab.) eta merkataritza eta ostalaritza eremuetako kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideen betetze maila neurtzerakoan eman beharreko pausuei egiten die erreferentzia. Horretarako, enpresetako euskara-planak bultzatzen eta EBPNri eta ESEPNri jarriki, gainerako administrazio publikoekin elkarlanean jarraitzea proposatzen da.

Era berean, inguru sozioekonomikoko eragile esanguratsuekin (enpresari-elkarteak, langile-sindikatuak, etab.) elkarlanean, orokorrean enpresa-munduan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko metodoak garatzea proposatzen da: hitzarmenak, hizkuntza-irizpideak...

LanHitz programaren bidez eta enpresetako euskara-planak bultzatzeko diru-laguntzak kudeatzen dituzten botere publikoen arteko koordinazioa hobetuz, euskara-planak bultzatzea da helburua. Azken finean, administrazioez gain, enpresa pribatuek ere hizkuntza-eskubideen diskurtsoa barneratu eta euskara-planak garatu ditzaten lortzeko lan egitea da helburua.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburutzak euskara bultzatzeko abiatutako plan, helburu eta saiakera guztiak 1997tik aurrera diru-laguntzen erregulatzearen bidez gauzatu dira,

eta 2000tik aurrera, era espezifikoan, sektore pribatuko erakundeek euskara-planak garatzeko diru-laguntzak jasotzeko deialdiaren bidez.

Gaur egun, bost diru-laguntza mota desberdin daude eta bakoitzak laguntza-testuinguru berezia du, azkena izanik, Euskadiko hirugarren sektore sozialerako espezifikoa.

- EAEko tokiko erakundeetan Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra garatzeko diru-laguntzak eta euskararen erabilerarako normalkuntza planak onartzekoa (EBPN deialdia).
- Euskarazko komunikabideen normalkuntza, garapen eta egonkortzera bideratutako diru-laguntzak (Hedabideak deialdia).
- Gizartean euskararen normalkuntza eta/edo hedapena sustatzea bultzatzeko diru-laguntzak (Euskalgintza deialdia).
- IKTetan eta komunikazioan euskararen normalkuntza eta/edo hedapena sustatzea bultzatzeko diru-laguntzak (IKT deialdia).
- 2010ean zehar, sektore pribatuko erakundeetan eta EAEko eskubide publikoko korporazioetan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko diru-laguntzak (LanHitz deialdia).

Beste erakunde publiko batzuek ere (hala nola Foru Aldundiek eta udalek) badituzte era horretako laguntzak. Informazio gehiago eskuratzeko, txosten honen 8. kapitulua kontsultatu (Erakundeetan Euskara Sustatzeko Baliabideen Gidaliburua).

[LANHITZ programa](#)

Lan munduko euskara-planak estandarizatzeko eta homogeneousizatzeko helburuz, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak foru-aldundiekin, EUDEL euskal udalekin eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Enplegu sailekin elkarlanean eta sindikatu nagusien eta enpresa elkarten babesarekin batera, gaur egun indarrean jarraitzen duen LanHitz programa garatu zuen 2005ean.

Programaren helburua euskarak enpresetan duen presentzia eta erabilera modu errazean areagotzea da. Momentuko kudeaketa-sistemei jarraiki, euskara erakundeetan integratzea, egoera soziolinguistikoa kontuan izanik eta gaitasun eta nahietan oinarrituz.

Zehazki, deialdiaren helburua enpresa pribatuan deialdiak berak zehaztutako helburuak Erreferentzia Marko Estandarra (EME) lortzeko baliabide ekonomiko zehatzak eskaintzea da. Marko hori hizkuntzarekin harremana duten edozein enpresatako gune oro biltzen duen laguntza-koadro gisa uler daiteke. Beraz, euskara-planen diseinuaren, jarraipenaren eta ebaluaketaren sistematizazioan laguntzeko tresna izan daiteke.

Proiektu honen baitan, enpresetako euskararen kudeaketa, erabilera eta presentzia egiaztatzeko ebaluaketa-sistema sortzea proposatu zen (Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria).

Gaur egun, badaude programa horretara atxikitako eta Bikain ziurtagiriaren mailatakoren bat duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak.

2.2. Aurretiazko lanak

2.2.1. Euskarak sektore pribatuan duen egoeraren ikerketa esanguratsuak

Lan-munduan euskararen erabilera eta presentzia indartzeko hizkuntza-politika eraginkorrak diseinatzeko eta neurriak hartzeko, sail horretan duen egoera ezagutzea eta ebaluatzea beharrezkoa da; eta horretarako, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak hainbat ikerketa garatu ditu azken urteetan.

2003an, 100 langile baino gehiagoko enpresetako euskararen egoera ("Euskararen erabilera EAEko enpresa handietan") aztertu zuen, eta deskribapena osatzeko, txikizkako merkataritzarekin ("Euskararen erabilera txikizkako saltokietan Euskal Autonomia Erkidegoan") eta ostalaritzarekin ("Euskararen erabilera EAEko jatetxeetan eta tabernetan") lotutako beste bi azterketa ere eskatu zituen. Ikerketa horietako daturik azpimarragarrienak eskuragarri daude EAS, Euskal Herriko adierazle linguistikoen sisteman.

Ondorio nagusien artean, aipagarria da EAEko saltoki, jatetxe eta taberna gehienak establezimendu oso txikiak direla (langile bat edo bikoak), eta bi herenek euskaraz ez dakitenez (% 64) gutxi erabiltzen dutela euskara, bai ahozko, bai idatzizko komunikazioan. Gutxi gorabehera erdiek ez dute euskara erabiltzen eta hiru laurdenek gutxi edo oso gutxi. Gainera, soilik % 7k erabiltzen dute beti edo oso maiz.

Taldeka, erabilera jatetxeetan altuagoa da saltoki eta tabernetan baino. Erabilera enpresa handietakoa baino baxuagoa da. Horien kasuan, herenak ez du euskararik erabiltzen eta erdiak gutxi edo oso gutxi erabiltzen du. Saltokietan, tabernetan, jatetxeetan eta enpresa handietan euskararen erabilera azaltzen duen faktorea kokatuta dauden gune soziolinguistikoa da. Azkenik, soilik saltokien, jatetxeen eta tabernen % 3k daukate euskararen erabilera bultzatzeko neurri edo arauen bat. Enpresa handien kasuan, % 31k.

2006. eta 2007. urteetan zehar, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak, hizkuntza-paisaiak⁴ EAEko eremu publiko eta pribatuan zuen egoeraren inguruko ikerketa gauzatu zuen ("Hizkuntza-paisaiaren ikerketa").

Ikerketaren emaitzak 2008an argitaratu ziren eta hauek izan dira ondorio nagusiak:

- Euskararen presentzia altuagoa da eremu publikoan pribatuan baino. Ahozko komunikazioetan nahiz idatzizkoetan.
- Euskara idatziaren presentzia ahozkoarena baino ugariagoa da. Eremu publikoan nahiz pribatuan.
- Euskararen erabilera, bereziki ahozko komunikazioetan, eremu soziolinguistikoari estu loturik doa. Horrela, Gipuzkoako egoera Bizkaia eta Arabakoa baino hobea da, eta ekipamendu eta establezimenduen kasuan ere, egoera hobea da eremu euskaldunetan erdaldunetan baino. Aipatu bezala, desberdintasuna ahoko erabileran ikus daiteke.
- Desberdintasunak esanguratsuak dira administrazioen eta jarduera sailen artean ere. Euskararen erabilera altuagoa da Eusko Jaurlaritzako administrazio orokorrean, estatuko administrazioetan baino. Era berean, egoera hobea da finantza erakundeetan higiezin agentzietan baino.

⁴ Hizkuntza-paisaia kontzeptua espazio publikoetan ikusgarri dauden testuei dagokie. Azterlan horrek, gainera, euskararen erabileraren analisia egiten du

Ikerketa hauetariko batek ere ez du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren moduko sektore espezifiko eta bereziaren egoeraren diagnosi zehatza egiten.

2.2.2. EHSSren baitako euskararen egoeraren ikerketa eta bultzada

Euskadiko **Hirugarren Sektore Soziala** hauek osatzen dutena da: “izaera juridikoa; boluntarioa; irabazi asmorik gabekoa; pribatu eta autogobernatua; egoitza eta jarduera Euskadin izanik; bazterte, kalte, babesik gabe, urritasun eta/edo menpekotasun egoeran dauden pertsona, familia, talde edo komunitateetan eskubideen jarduera eraginkorra eta gizarte-inklusioa gizartearen esku-hartze ekintzen (gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbide-sustapena eta gizarte-inklusioa bultzatzeko edozein ekintza) bidez bultzatzea helburu duten erakundeek (sailen, politiken eta sistemen arteko ekintzak barne; hala nola, enplegu eta gizarte gunea, gizarte eta hezkuntzakoa, soziokulturala)”⁵.

Hirugarren Sektorearen Behatokiak *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*⁶ lanean dio gaur egun gutxi gorabehera 3.500 erakundeek osatzen dutela Euskadiko hirugarren sektorea (2.000 Bizkaian, 1.000 Gipuzkoan eta 500 Araban). Horietan 36.000 lagunek jarduten dutela soldatapeko lanean eta 125.000 lagunek era boluntarioan.

Izaera eta tamaina ugariko erakundeek parte hartzen duten sektorea da (% 9k milioi eta erdiko aurrekontua zuen 2013rako eta % 32k aldiz, 12.000€ baino gutxiago). Azken hamarkadetan zerbitzuak eskaintzera bideratutako erakundeen pisua areagotu da, eta ondorioz, baita ekonomiaren, soldatapeko langileen, elkartzeen eta arazoek kopurua ere.

Hala ere, joerak ez du eragin bera izan sektoreko erakunde guztietan eta % 54k soldatapeko langileak baditu ere, gainerakoak orokorrean boluntarioz osatzen dira.

Hirugarren Sektore Sozialaren gehiengoak, bereziki handitze eta “profesionalizatzea” jasandakoek (soldatapeko edo enplegatutako langileen areagotzea), kudeaketa eta ekintzen egonkortzean aurreratzen lagundu dieten tresnak gehitu dituzte. Hala ere, oraindik lan asko dago egiteko.

Hemen jorratzen ari garen esparruan, eta aipatutako ikerketaren datuei jarriki, erakundeek % 32,36k, era egonkorta edo ez hain egonkortuan, euskararen sustapenerako ekintzak gauzatu dituzte eta % 7,66k Euskara Plana ezarri dute⁷. Zehazki, soldatapeko langileak dituzten erakundeek % 43,79k plan hau baliatzen dute eta Aisialdiko sailaren kasuan, % 86,55ek.

Bestalde, beharrezkoa da sektorean euskararen sustapenak eta erabilerak duten egoeraren inguruko datu faltaren arazoa konpontzea, abiapuntuko egoera eta helburuak zehazteko nahiz sektoreari egokitutako sustapen-neurri eta estrategiak identifikatzeko, erakunde eta sareek sektore publikoaren laguntzaz balia ditzaten.

⁵ EUSKO JAURLARITZA. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 2016ko maiatzaren 19koa, 94. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/05/1602096e.pdf>

⁶ CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; ROMEO, Z. *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*. Bilbao: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia. Hemen eskuragarri: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825_2_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf

⁷ Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zurian (2015), Herri Administrazioak ezartzen dituen estandarren arabera da Euskara Plana kontzeptua

2.3. Justifikazioa: zergatik eta zertarako bultzatu euskara EHSSeko erakundeetan?

EHSSren baitan euskararen diagnosi eta sustapenerako ekintzak bultzatzearen garrantzia honako hauei loturik ageri zaigu:

- Batetik, aipatutako Liburu Zuriari jarraiki azken urteetan zenbait erakundek euskara sustatzeko ekintzak bultzatu dituztela jakin arren, gaur egun, ekintza horien egonkortze maila urria eta aldakorra da eta hazi egin behar da horiek garatzen dituzten erakundeen kopurua.
- Gizarteko talde potentzial eta gaur egungo taldeek sektore publikoari, irabazi asmoko pribatuari eta lehen mailako elkartasun edo elkartasun ez antolatuari (familiak, lagunek, auzokoek...) eman dakiekeen laguntza.

Euskadin egunerokotasunean eta eskuarki 160.000 laguni eragiten dien sektorea da. Oinarri soziala osatzen duten erabiltzaileen eta familien ekintza zuzenen sarea eta erabiltzaileak eta familiak kontuan izan gabe (bazkideak, zuzendariak, boluntarioak, soldatapekoak, laguntzaileak...). Gainera, zenbait talde bereziki irudikatuak agertzen diren sektore bat da: haurrak, nerabe eta gazteak, adinekoak, emakumeak, etorkinak, urritasunen bat duten pertsonak, etab.

- Eta, batez ere, euskara berez baliotzat jotzen duena, euskaldun gisa gure nortasunaren funtsezko elementutzat jotzen duena, eta horrek beharrezko egiten du jardunbide positibo bat, aniztasuna eta eleaniztasuna errespetatzen eta sustatzen duen esparru batean. Euskara horrela ulertzearen oinarrian EHSSren baitan dagoen “herri aukera” bat dago, Aisialdia bezalako esparruetan, eta ideologia politiko ezberdinekiko zeharkakoa dena.

Esparru horretan, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek kudeaketa-estrategiaren baitan euskara bultzatzearekin lotutako onuren aukera zabala jasotzen da jarraian. Batez ere pertsonen hizkuntza-eskubideekiko errespetuarekin eta erakundeko kanpoko harremanen hobekuntzarekin lotutakoak nabarmendu behar dira.

Gizarteari eta herritarrei dagokienez, euskararen hizkuntza-normalizazioaren aldeko lanak honako hauek bultzatzen ditu:

- EAEko edozein pertsonak bi hizkuntza ofizial horietako edozeinetan adierazteko duen eskubidea erabili ahal izatea laguntzen du (pertsonak, familiak, zerbitzu-hartzaileak diren taldeak eta komunitateak, langileak, boluntarioak...).
- Zerbitzuetan kalitate handiagoa eskaintzea ahalbidetzen du. Horrek agerian uzten du hizkuntza-profil ugarietara egokitzeko gaitasuna duela. Biztanleria euskaldunari arreta pertsonalizatuagoa eskainita, euskaraz hitz egiten dutenen adierazpena hobetzea errazten da.
- Gurearen moduko gizarteak bizi dituen aurrerapenekin bat etortzea dakar. Izan ere, gure gizartea gero eta elebidunagoa da eta euskarazko zerbitzuen eta produktuen eskaintzaren inguruko oso balorazio positiboa egiten du.

- Ikastolek, euskaltegiek, administrazioek eta beste eragile batzuek euskara sustatzeko egindako lana osatzeko eta horri jarraipena emateko modua da. Egindako ikerketa ugariren bidez egiaztatu denez, zenbat eta handiagoa izan euskarazko eskaintza udaletan, gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, hezkuntzan eta erakunde pribatuetan, orduan eta handiagoa izaten da erabilera.

Erakundeen baitako hobekuntzei dagokienez, euskararen hizkuntza-normalizazioaren alde egindako lanak:

- EHSSeko erakundeek euskal nortasun kulturalarekin lotuta sozialki babesten eta proposatzen dituzten balioekiko (dibertsitatea, aniztasuna, kohesioa, integrazioa...) barne mailako koherentzia erakusten du.
- Langileen eta erakundeen arteko lotura indartzen du; izan ere, erakundeetako arduradunek hizkuntzarekiko jarrera positiboa dutela erakusten du. Hizkuntza-proiektuan parte hartzen duten langileak erakundearen proiektu orokorrarekin identifikatuta senti daitezke haren bidez. Hala, proiektu hori erakundea osatzen duten pertsonen asebetetzea lortzen lagungarria izan daitekeen elementu bihur daiteke. Horrez gain, langileen gaitasunak garatzen laguntzen du.

Erakundeen kanpoko harremanetako hobekuntzei dagokienez, euskararen hizkuntza-normalizazioaren alde egindako lanak:

- Erakundeak errotuta dauden testuinguru soziokulturalarekiko gizarte-erantzukizuneko zentzua erakusten du.
- Bere ingurunean errotuta dagoen erakundea izatearen emaitza da. Gero eta globalagoa den testuinguruaren baitan, lokalizazioko eta diferentziazio ezaugarria eskaintzen du.
- Diru-laguntza eta lizitazio publikoetara sarbidea izateko gero eta hedatuago dagoen eskakizun bati erantzuna ematea ahalbidetzen du.
- Erakundeentzako balio erantsia ekartzen du; izan ere, euskarak beste erakunde batzuetatik bereizten lagun diezaieke euskararen erabilerak eta kudeaketak. Erakundeek irudi dinamikoagoa, lehiakorragoa, eragingarriagoa eta proiektu berritzaileak garatzeko gai dena proiektatzea ahalbidetzen du. Eta etengabeko hobekuntzaren kulturaren baitan bereizgarria da eta hainbat ziurtagiri lortuta hezurmami daiteke (“Bikain” edo “Bai Euskarari” ziurtagiriak, adibidez).
- Kultura-elementu gisa, euskarak berez du balioa eta, gainera, gizarteratze-prozesuei lagun egiten dien kultura-tresna izan daiteke (esparruaren, artatutako kolektiboaren edo testuinguru soziokulturalaren arabera), batez ere esku-hartzera bideratutako erakundeetarako.
- Baliabideen erabiltzaile potentzialen kopurua handitzea bultzatzen du (batez ere euskarak presentzia handia duen testuinguru soziolinguistiko batzuetan), eta biztanleriaren zati handiago batera iristeko aukera ematen du.

3. PLANTEAMENDUA

Lan honen helburua da EHSSetako euskararen erabilerari eta sustapenari buruzko datu faltaren arazoa konpontzen laguntzea; datu horiek aukera emango dute abiapuntuko egoera ezartzeko eta helburuak definitzeko zein euskara sustatzeko sektoreari egokitutako estrategiak eta neurriak identifikatzeko.

3.1. Helburuak

EHSSeko euskararen diagnostikoaren bitartez, euskararen egoera ezagutzea ahalbidetuko duen lehen argazkia eskaintzea lortu nahi da, bai erakundeetako euskararen erabilerari eta presentziari dagokionez, bai sektoreko erakundeek euskara babesteko eta sustatzeko abian jarri dituzten neurrien eta ekimenen egoerari dagokionez.

Jarraian, lan honen bidez erantzun nahi izan diren galderen eta helburu orokorren laburpen-taula aurkezten da.

HELBURUAK	• ERANTZUN NAHI DIEGUN GALDERAK
1. Euskarak EHSSeko erakundeetan duen ERABILERARI ETA PRESENTZIARI buruzko DIAGNOSTIKOA egitea.	<ul style="list-style-type: none">• Zein da euskararen erabilera- eta presentzia maila EHSSeko erakundeetan?• Zein dira erakunde horietan euskararen presentzia handiagoa edo txikiagoa izatearekin lotuta dauden faktoreak?• Euskarari dagokionez, zein dira EHSSaren eta beste sektore batzuen arteko alde nagusiak?
2. EHSSeko erakundeetan euskara BULTZATZEKO POLITIKEN garapen mailari buruzko DIAGNOSTIKOA egitea.	<ul style="list-style-type: none">• Euskara sustatzeko zer ekintza ari dira gauzatzen?• Horietako zein ekintza egin ditzake sektoreak eta zeintzuk ezin ditzake egin? Zenbateraino egokitzen dira sektorearen errealitatera?• Zein erakunde mota dira gai horietan aurrerapen handienak egin dituztenak? Zergatik?• Zein dira sektorearen kezka nagusiak, gai horri dagokionez?*
3. Euskarak EHSSean duen erabileraren eta presentziaren inguruan sentsibilizatzea eta erabilera eta presentzia BULTZATZEA, euskararen sustapenarekin lotutako esperientziak eta jardunbide egokiak ELKARTRUKATZEKO espazioak bultzatuta.	<ul style="list-style-type: none">• Zergatik da garrantzitsua nire erakunde euskara bultzatzea? Zer onura ekarriko die gure erakundeei euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeak?• Nola egin dezaket? Zer tresna erabil dezaket?• Zer ikas dezaket beste erakunde batzuen esperientzia edo jardunbide egokietatik, nire kezkei irtenbidea emateko? Nola egin dute beste erakunde batzuek? Zer oztopo aurkitu dute prozesu horretan? Nola gaingitu dituzte oztopo horiek?

Oharra*: Proiektu honetan Administrazioak orain arte lan eremuan euskararen sustapenerako proposatutako estrategien eta ekintzen ikerketa egingo da. Sektore honetarako egokitzapenak identifikatzeko asmoz.

3.2. Ikergaia mugatzea

Ikerketa honen azken helburua **Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko** erakundeetako **euskararen erabilera, presentzia eta sustapena** aztertzea da.

6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari jarraiki, sektoreko erakundetzat joko ditugu egoitza eta jarduera EAEn izanik; baztertze, kalte, babesik gabe, urritasun eta/edo menpekotasun egoeran dauden pertsona, familia, talde edo komunitateetan eskubideen jarduera eraginkorra eta gizarte-inklusioa gizartearen esku-hartze ekintzen bidez bultzatzea helburu duten erakundeak.

Aipatutako legeko 2 eta 4 artikuluekin bat datorren Bizkaiko Hirugarren Sektorre Sozialaren behatokiak zehaztutako definizioari jarraiki, **elkarte zibileko erakunde, egonkortuak**, indarrean daudenak, kudeaketa-**autonomia** eta independentzia dutenak, **irabazi asmorik gabekoak** eta orokorrean, **boluntarioz** osatuak dira, **EAEn** garatzen dute beren ekintza eta helburua baztertze, kalte, babesik gabe, urritasun eta/edo menpekotasun egoeran dauden pertsona, familia, talde edo komunitateetan **eskubideen jarduera eraginkorra eta gizarte-inklusioa** gizartearen esku-hartze ekintzen bidez **bultzatzea** helburu dutenak dira.

HIRUGARREN SEKTORRE SOZIALAREN LEKUA HIRUGARREN SEKTORREAREKIN ETA BESTE SEKTORRE BATZUEIKIN HARREMANETAN



ESKUHARTZE SOZIALA (edo gizarte-ekintza bere zentzu zabalean, ez bakarrik gizarte-zerbitzuak

Ikerketaren helburua eta sektorearen heterogeneotasuna kontuan izanik, bereziki garrantzitsua izango da analisisian **ekintza eremuaren** arabera (gizartean zeharka, gizarte-zerbitzuak, nazioarteko garapenerako laguntza, aisia, osasuna, enplegua eta beste) aldeak ikertzea (ikertutako laginean ordezkatuak izatea bermatuz); **tamaina** desberdineko erakundeen arteko aldeak ikertzea (diru-sarrera bolumen ezberdineko erakundeak); erakundeak kokatzen diren **lurralde historikoaren** arabera (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba); eta beren jarduera garatzen duten **eremu linguistikoaren** arabera (erakundearen egoitza edo egoitzak)

JARDUERA-EREMUA

Zenbat erakunde kontsideratu ditugu hemen?

SOZIAL - ZEHARKAKOA EDO ZIBIKOA

Erakunde hauen zeregina da urrakortasun egoeran dagoen kolektibo konkretu bat sustatzea (emakumeak, adineko pertsonak, gutxiengo etnikoetako pertsonak, guraso bakarreko familiak, gay eta lesbianak, immigranteak edo beste batzuk), eta gehienbat izaera komunitarioko jarduerak gauzatzen dituzte (informazioa eta orientazioa, sentsibilizazioa, parte-hartze sozialaren egituraketa, elkarrenganako laguntza...).

GIZARTE ZERBITZUAK

Erakunde hauen (gizarte-ekintzako erakunde ere deitzen zaie, zentzu zorrotzean) jardueraren ardatza gizarte-zerbitzuak betetzea da (dena dela, beste zerbitzu batzuk ere eskaini ditzakete enplegu, osasun eta/edo aisialdiaren eremuan). Orokorrean, desgaitasunak dituzten pertsonak edo babesgabetasun, mendetasun edo bazterketa arrisku edo egoeran dauden pertsonak atentitzen dituzte.

GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Erakunde hauek Hegoaldeko eta Ekialdeko herrialdeen garapeneraren inguruan lan egiten dute (GGKE). Normalean, beren jardunaren zati handi bat pobrezia eta bazterketa egoeran dauden pertsonengana zuzentzen da, edo babesik gabe dauden adingabeekin lan egitera.

AISIALDIA

Erakunde hauen zeregina da gizarte eta hezkuntza mailan esku hartzea haur eta gazteekin.

OSASUNA

Gaixotasunak pairatzen dituzten pertsona eta beren senideen erakundeak. Pertsona horientzako sostengua eskaintzen dute, eta gehienbat osasunaren alorrean jarduten dute, osasun arazoak dituzten pertsonekin. Pertsona horiek ez daude bazterketa prozesuan, eta ez dira ezinbestean mendetasun edo desgaitasun egoerara iristen.

ENPLEGUA

Erakunde hauek laneratzearen eremuan lan egiten dute gehienbat. Hemen sartzen dira laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziak. Orokorrean, erakunde hauen hartzailak bazterketa arrisku edo egoeran dauden pertsonak izaten dira, baina baita desgaitasunak dituzten pertsonak edo urrakortasun egoeran daudenak ere.

BESTE BATZUK

Hirugarren Sektoreko erakunde hauen zeregina da Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak sustatzea, Sektorearen errealitatera egokitutako zerbitzuak eskainiz: aholkularitza soziala, prestakuntza, ikerkuntza, eta abar. Hemen sartzen dira, halaber, aurreko eremuetan sartzen ez diren erakundeak.

GUZTIRA

Gizarte zibilaren ekimen aktiboak, kudeaketa autonomoa eta independentzia dituztenak, irabazi-asmorik gabekoak, normalean boluntarioen nolabaiteko parte-hartzea dutenak; beren helburu nagusia da urrakortasun edo bazterketa, mendetasun, babesgabetasun eta/edo desgaitasun egoerak pairatzen dituzten pertsona, familia, kolektibo eta komunitateen inklusio soziala eta eskubideen erabilera sustatzea.

3.500 erakunde

4. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Lau fasetan garatu da ikerkuntza-lana, eta hainbat tresna metodologiko konbinatu dira, euskarak EHSSeko erakundeetan duen egoeraren argazki osoa eskaintzeko helburuz.

Argazki hori informazio kuantitatibo eta kualitatibo batzeko eta aztertzeko prozesu batetik abiatuta eraikitzen da; era horretan, datu deskribatzaileez gain, eta horiek osatzeko, euskarak EHSSetan bizi duen errealitatearen analisi ulergarria egitea ahalbidetzen duten esanahiak eta hausnarketak ere eskaintzen dira.

Eskaintzen diren datu deskribatzaileak proiekturako *ad hoc* diseinatutako inkestatik zein bigarren mailako datu-basetatik ateratakoak dira. Datu deskribatzaileak osatzen dituzten eduki kualitatiboak ikerketaren lantaldeak eta ikerketan zehar parte hartu duten erakundeek elkarrekin egindako datuen interpretaziotik eta analisitik ateratakoak dira; gainera, euskarak gaur egun EHSSetan duen egoeraren eta etorkizunera begirako lan-ildoen inguruko hausnarketak eskaintzen dira.

Jarraian, ikerkuntza-proiektuan zehar emandako urrats nagusiak laburbiltzen dituen fitxa teknikoa erakusten da:


Faseak	Tresnak	Datak	Parte hartu duten erakundeak
1	Lantalde aliatua	Bost saio 2017ko maiatzetik urtarrilera + lan ez-presentziala 2018ko	EHSSeko zortzi erakunde
2	Online bidezko inkesta	2017ko ekainaren 15etik uztailaren 15era	EHSSeko 141 erakunde
3	Eztabaida-taldeak	2017ko urriaren 23tik azaroaren 4ra	EHSSeko 14 erakundea eta euskararen lau aholku-erakunde
4	Mintegia	2017ko abenduak 4	EHSSeko 12 erakunde eta euskararen hiru aholku-erakunde

Ikerketa honen planteamendu metodologikoaren elementurik azpimarragarrienetako bat da proiektuaren inguruan lerrokatu direla euskararen sustapenarekiko aparteko sentsibilizazioa duten eta gai horretan nolabaiteko ibilbidea duten erakundez eta pertsonaz osatutako talde txiki bat. Horiek guztiek **lantalde aliatua**⁸ osatu dute, eta proiektuan bidelagun eta bultzatzaile izan dira; honako zereginetan kolaboratu dute:

- Ikerketaren diseinu partekatua: helburuak, jarraitu beharreko estrategia eta tresnak onartzea.
- Ikerketan parte hartzeko beste erakunde batzuk lortzea.
- Bildutako diagnostikoko datuak aztertzea.
- Jardunbide egokiak eta orientazioak identifikatzea.
- Sektoreko erakundeak euskararen sustapenarekiko sentsibilizatzeko gakoak identifikatzea.

⁸ Eranskinean kontsulta daiteke talde aliatu hori osatu duten partaideen zerrenda

Horrela, lehen esan bezala, ondoren azaltzen diren lau faseetatik abiatuta egituratu da lan-prozesua; fase horietan, informazioa biltzeko teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu dira. Fase horietako bakoitzak ikerketa zuzentzen duten funtsezko galdera edo gai banari erantzuten dio:



1. FASEA- LANTALDE ALIATUA: PROIEKTUA DISEINATZEA ETA BULTZATZEA

Lantalde aliatuarekin batera diseinatu da proiektua, planteatutako helburuen eta sektorearen benetako beharren, ezarritako helburuen eta lortutako emaitzen, eta abarren arteko koherentzia handiagoa ziurtatze aldera. Horretarako, aurrez aurreko hainbat lankidetzsa-saio egin dira, informazioa modu ez-presentzialean elkartrukatzeko prozesuak dinamizatu dira. Hain zuzen ere:



Saio horietan parte hartzeaz gain, talde horrek galdetegia betez eta eztabaida-taldetan (3. fasea) eta mintegian (4. fasea) gonbidatutako beste erakunde batzuekin batera hausnartuz ere hartu du parte.

2. FASEA- HURBILPEN KUANTITATIBOA: NOLA GAUDE?

2017ko ekainean eta uztailen, **Hizkuntza Politika Sailburuordetzak beste sektore batzuetan euskarak duen egoeraren diagnostikoak egiteko aurrez erabilitako beste batzuetan inspiratutako galdetegi bat aplikatu zen**, baina doikuntza batzuk egin zitzaizkion, Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarriekin bat etor zedin. *Online* formatuko tresna izan da, eta sektoreko erakundeak euskararen sustapenaren arloan zer egiten ari diren eta erakundeotan euskararen erabilera eta presentzia zer nolakoa den jakiteko erabili da. Zehatzago esanda, hauexek ziren helburuak:

- Euskadiko Hirugarren Sektoreko Liburu Zurian sektoreko erakundeetako euskara sustapenaren arloari buruzko informazioa zabaldu.
- Enpresa eta administrazio publikoetan euskararen presentzia eta erabileraren inguruan EAEn gauzatutako beste sektore batzuetako datuekin alderatu daitezkeen datuak jaso.

Ondorengo gaiak jorratu dira, besteak beste, erakundeari zuzendutako galdetegi⁹: langileen eta boluntarioen hizkuntza-gaitasunak, erakunde euskararen erabilera maila, kanpo- eta barne-komunikazioa, eta erakunde euskara bultzatzeko dauden neurriak.

Argitu beharra dago erakunde euskararen kudeaketaz edo giza baliabideez arduratzen den pertsonari zuzendu zaiola galdetegia, eta hura izan dela euskararen erabilerari eta presentziari buruz dituzten datu ahalik eta zehatzenak eskaini dituen (kasu batzuetan, erakundeak berak alde aurretik neurtu du euskararen erabilera eta, beste kasu batzuetan, zifra horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta erantzun duen pertsonaren pertzepzioaren araberrakoak).

Zeinek hartu du parte galdetegian? Zenbaterainoko fidagarritasuna eta ordezkagarritasuna du laginak?

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Hirugarren Sektore Sozialeko jardunean zeuden erakunde guztiak gonbidatu zituen Behatokiak azterlanean parte hartzera, galdetegia beteta; horretarako, EHSSaren Direktorioko¹⁰ harremanetarako datuak (helbide elektronikoa) erabili zituen: 1.650 erakunde baino gehiagorekin jarri zen harremanetan.

Parte-hartzea sustatu asmoz, 250 bat telefono-dei eta posta elektronikoko 2.000 birbidalketa inguru egin dira.

Guztira, **141 erakunde**¹¹ hartu du parte galdetegiari erantzunez; **horietatik 71 erakunderen egoitza nagusia Bizkaian dago, 39 erakunderena Gipuzkoan, eta 29rena Araban** (beste bi

⁹ Galdetegian eta, beraz, diagnostikoan erabilitako terminologia Erreferentzia Marko Estandarrekoa (EME) da. Esteka honetan kontsulta daiteke agiria: http://www.izenpe.eus/s15-4812/es/contenidos/informacion/planes_euskera/eu_00121/adjuntos/EME%20Erref%20MarkoEstandarra.pdf

¹⁰ Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak EHSSeko erakundearen Direktorio bat dauka, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria prestatzeko egin zena. <http://www.3sbizkaia.org/Menu.aspx?s=211>

¹¹ Eranskinean kontsulta daiteke parte hartu duten erakundearen zerrenda osoa.

erakunde ez zuten datu hori adierazi). 141 erakunde horiek soldatapeko langile kopuru handiagoak eta txikiagoak dituzte; guztira, soldatapeko 5.883 langile dituzte.

Erabilitako laginaren fidagarritasuna eta ordezkagarritasuna zehazteko, beharrezkoa da azterlanaren aurrez ezarritako xedea eta unibertso horren bolumena kontuan izatea. EAEko Hirugarren Sektore Sozialari buruz argitaratutako azkeneko datuen arabera¹², uste da 3.500 direla gaur egun Euskadin sektore hori osatzen duten erakundeak (2.000 Bizkaian, 1.000 Gipuzkoan, eta 500 Araban). Hori guztia kontuan hartuta, % 95eko fidagarritasun maila dute azterlanaren zati honetako emaitzek, +/- % 8,09ko errore-marjinarekin.

Datuak estatistikoki unibertsoaren adierazgarritzat jo ahal izateko, beharrezkoa da % 95eko fidagarritasun maila izatea eta errore-marjina % 5ekoa edo txikiagoa izatea; beraz, adierazi behar da **datuak nolabaiteko zuhurtziaz hartu behar direla**.

Hala ere, azterlan hau miaketarako azterlana izanik, garrantzitsua da **balioa ematea bildutako erantzunen kopuru esanguratsuari**; horrek aukera ematen digu errealitatera lehenengo hurbilketa bat egiteko, ondoren analisi kualitatiboa egin eta horretan sakontzeko abiapuntu gisa.

Bestalde, galdetegiari erantzuteko motibazioaren bitartez, laginaren banaketa kontrolatzeko saiakera egin da landa-lanean, unibertsoaren ahalik eta ordezkaritza antzerakoena izatea ahaleginduz, lurralde historikoari, jardun-eremuari eta kudeatutako bolumen ekonomikoari dagokionez.

Horrenbestez, esan daiteke azterlan honen laginak lortu nahi izan den heterogeneotasunari eusten diola funtsean, nahiz eta hainbat alderdi hartu behar diren kontuan datuak behar bezala interpretatzeko¹³:

- Jardun-esparruaren arabera, ordezkaritza handixeagoa dute gizarte-zerbitzuetako, osasuneko eta bestelako erakundeek.
- Lurralde historikoei dagokienez, pisu handiagoa dute Arabako erakundeek.
- Bolumen ekonomikoa kontuan hartuta, ordezkaritza txixixeagoa dute 60.000 eurotik beherako diru-sarrera bolumena duten erakundeek.
- Oro har, pentsatzekoa da galdetegiari erantzuteko prestasun handiagoa izan dezaketela euskararekiko sentsibilitate maila handiagoa duten erakundeek.

Datuen analisia

SPSS-WIN estatistika-programarekin tratatu eta ustiatu da informazio kuantitatiboa; tresna horri esker, beharrezko estatistika-formula guztiak egin ahal izan dira. Datuen ustiapena eta analisia deskribatzaileak dira batez ere (maiztasunak, ehunekoak, batez bestekoak, desbiderapen estandarrek, joerak, medianak, maximoak, minimoak...).

¹² CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; ROMEO, Z. *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria*. Bilbao: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia. Hemen eskuragarri: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825_2_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf

¹³ Eranskinean kontsulta daitezke aztertutako laginaren eta unibertsoaren ezaugarriei buruzko informazio xehatua jasotzen duten taulak.

Aipatzekoa da lurralde historikoen arabera bereizitako datuen analisian, Arabako datuak zuhurtziaz hartu behar direla, txikia baita lurralde historiko horretako erakundeen laginaren tamaina.

Ahal izan den neurrian, bigarren mailako iturrietan edo txosten soziolinguistikoetan jasota dauden beste datu batzuekin osatzen saiatu gara inkestaren ondoriozko datuen analisia, datuak testuinguruan jartzeko eta alderatzeko asmoz. Ildo horretan, EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datu-baseak kontsultatu dira; aipatzekoak dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoa¹⁴ eta Euskararen Adierazle Sistema¹⁵. Halaber, alderatu egin dira EHSSeko datuak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak ostalaritza-sektorean¹⁶, merkataritza-sektorean¹⁷ eta enpresa handietan¹⁸ 2003. urtean egindako azkeneko txostenek erakusten dituzten datuak. Txosten horiek, 2003koak direla kontuan izanda, zuhurtziaz hartu beharrekoak dira, denbora-tarte handia baitago EHSSeko datuekiko, eta urte hauetan aldatu egin ahal izan baita EAEko errealitate soziolinguistikoa.

3. FASEA- IRUDI KUALITATIBOA: ZERGATIK?

Datuen analisi kuantitatiboa osatzeko, datu horiek interpretatzeko, eta euskarak sektorean duen errealitateari, erronkei, estrategiei, euskara sustatzeko neurri zehatzei eta beste hainbat alderdiri buruzko ikuspegi ezberdinak elkartrukatzeko helburuz, kontsulta kualitatibora jo da, eta sektorearen diagnostikoa aberasteko informazio erabilgarria eskaini du horrek.

Hain zuzen ere, **bi eztabaida-talde** egin dira, tamaina eta eremu ezberdinetako erakundeekin (bata Gipuzkoan, eta bestea Bizkaian¹⁹). Eztabaida-taldea ikertutako egoeraren jatorria ulertzen laguntzen duen teknika da; egoera hori bertatik bertara ezagutzen duten pertsonak inplikatzeko ditu, eta eraikuntza-prozesu partekatua bultzatzen du, hausnarketak eta ikuspuntuak elkartrukatzea eta berehalako *feedbacka* ahalbidetuz.

Inkestan parte hartu duten erakunde guztiei egin zaie eztabaida-taldeetan parte hartzeko gonbidapena. Azkenean, 14 erakunde hartu du parte Bizkaiko taldean (2017ko urriaren 26an egin zen, Bilbon), eta hiru erakunde Gipuzkoakoan (2017ko urriaren 23an egin zen, Donostian)²⁰.

¹⁴ Ondorengo estekan kontsulta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko VI. Inkesta Soziolinguistikoa: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_sociolinguistikoak/eu_def/adjuntos/VI_INK_SOZLG_EAE_Aurkezpen_publicoa_20161014.pdf

¹⁵ Ondorengo estekan kontsulta daiteke Euskararen Adierazle Sistema: <http://www.euskadi.eus/informazioa/euskararen-adierazle-sistema-eas/web01-a2lingu/eu/>

¹⁶ "Euskararen erabilera EAEko jatetxe eta tabernetan" azterlana 2003an egin zuen Hizkuntza Politika Sailburuordetzak. Esteka honetan kontsulta daiteke: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/adjuntos/OstalaritzaEU.pdf

¹⁷ "Euskararen erabilera EAEko txikizkako merkataritza-establezimenduetan" azterlana 2003an egin zuen Hizkuntza Politika Sailburuordetzak. Esteka honetan kontsulta daiteke: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/adjuntos/TxikizkakoEUS.pdf


¹⁸ "Euskararen erabilera EAEko enpresa handietan" azterlana 2003an egin zuen Hizkuntza Politika Sailburuordetzak. Esteka honetan kontsulta daiteke: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/adjuntos/EnpresaHandiakEU.pdf

¹⁹ Hasiera batean Araban beste eztabaida-talde bat egiteko asmoa zegoen arren, azkenean ezin izan zen egin, ez baitzen lortu gutxieneko partaide kopururik.

²⁰ Eranskinean kontsulta daiteke talde bakoitzean parte hartu duten erakundeen zerrenda.



Kasu honetan parte hartu duten erakundeen lagina *lagin ez-probabilistiko opinatikoa* da (lagin arrazoitua), eta ez du multzo osoaren ordezkagarritasun estatistikoa bilatzen, baizik eta egokientzat edo informatzaile onentzat jotzen diren pertsonak edo erakundeak aukeratzea, ikergaia hobeto ezagutzen dutelako edo arazoarekiko duten motibazioagatik.



Gainera, **euskararekin lotutako aholkularitza-lanak egin dituzten erakundeekin** ere antolatu da **eztabaida-talde** bat. Hain zuzen ere, lau erakundetako lau lagunek hartu dute parte²¹.

4. FASEA- ESPERIENTZIAK PARTEKATZEA: ZER EGIN DEZAKEGU?

Proiektu honen beste helburu bat izan da EHSSeko erakundeetan euskara sustatzeko ekimenak bultzatzea; horregatik, gai horretako **esperientziak eta jardunbide egokiak** ere jaso dira lan-prozesuan²².

Hainbat estrategia konbinatu da esperientzia horiek identifikatzeko: erakundeei helarazitako galdetegia; talde aliatuaren bitartez; web-bilaketa baten bitartez; aholkularitza-erakundeei kontsultatuta; etab.

²¹ Eranskinean kontsulta daiteke parte hartu duten erakundeen zerrenda.

²² Txosten honen 7. kapituluari jasotzen dira esperientziak.

Halaber, **mintegi** bat antolatu da; Eibarren egin zen, 2017ko abenduaren 4an, eta sektoreko erakundeak elkartu ziren esperientziak partekatzeko eta elkarrekin ikasteko, gai horren inguruan gaur egun dituzten kezkei erantzuna edo irtenbideak emateko.

Euskara-planak garatzeko erakundeei aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen lan egiten duten aholkularitza-enpresa pribatuak ere gonbidatu ziren mintegian parte hartzera, hausnarketari ikuspegi osagarria emateko eta esperientzia ezberdinen inguruan beren ezagutza izateko helburuz.

15 erakundek eta 18 lagunek hartu zuen parte mintegian²³.



²³ Eranskinean kontsulta daiteke mintegian parte hartu zutenen zerrenda.

5. EHSSetan EUSKARAK DUEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Aipatu bezala, EHSSeko²⁴ euskararen diagnostikoaren bitartez, euskararen egoera ezagutzea ahalbidetuko duen lehen argazkia eskaintzea lortu nahi da, bai erakundeetako euskararen erabilerari eta presentziari dagokionez, bai sektoreko erakundeek euskara babesteko eta sustatzeko abian jarri dituzten neurrien eta ekimenen egoerari dagokionez.

Argazki hori informazio kuantitatibo eta kualitatiboa batzeko eta aztertzeko prozesu batetik abiatuta eraikitzen da; era horretan, datu deskribatzaileez gain²⁵, eta horiek osatzeko, euskarak EHSSetan bizi duen errealtatearen analisi ulergarria egitea ahalbidetzen duten esanahiak eta hausnarketak ere eskaintzen dira. Analisi ulerkor hori eraiki da lantalde aliatuarekin egindako kontrastatze-batzarretan zein eztabaida-taldeetan egindako interpretaziotik eta analisi partekatutik abiatuta. Gainera, mintegian partekatutako hausnarketak ere jasotzen dira.

Hiru multzotan banatuta dago diagnostikoa:

- Lehendabizikoa euskara-gaitasunari eta euskararen erabilerari buruzkoa da, eta hiru atal handitan azpibanatuta dago: hizkuntza-gaitasuna, euskararen erabilera orokorra eta euskararen erabilera komunikazioan (azken horrek, aldi berean, komunikazioko lau alor desberdini buruzko informazioa jasotzen du: ahozko kanpo-komunikazioa, idatzizko kanpo-komunikazioa, ahozko barne-komunikazioa eta idatzizko barne-komunikazioa).
- Bigarren multzoa EHSSeko erakundeek euskara bultzatzeko politiken garapen mailan oinarritzen da, eta garatutako ekintzak eta neurriak, kezkak eta beste hainbat alderdi aztertzen ditu. Multzo horretan, gainera, erakundeek euskara bultzatzeko ezarritako neurrien egoerari buruzko informazioa jasotzen da eta, amaitzeko, sektoreko erakundeek gain honen inguruan dituzten erronkei buruzko hausnarketak jasotzen dituen atal bat dauka.
- Hirugarren multzoak, erakundearen egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, EHSSeko erakundeak alderatzen dituen analisia egiten du eta, zenbait kasutan, erakundearen egoitzetako bat Gipuzkoan kokatzearen arabera egiten du alderaketa hori. Analisi horrek euskara-gaitasunari eta erabilerari zein euskararen sustapenari dagokionez dauden alde nagusiak jasotzen ditu.

Halaber, azkeneko atalean, eta diagnostikoaren laburpen modura, ateratako ondorio nagusiak jasotzen dira.

5.1. Euskara-gaitasuna eta euskararen erabilera

5.1.1. Hizkuntza-gaitasuna

Erakundeek hizkuntza-gaitasunaz ari garenean, erakundea osatzen duten pertsonak duten euskararen ezagutza mailaz ari gara: langileek, boluntarioek eta zuzendaritza-taldetako kideek.

²⁴ Aurrez aipatu bezala, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari dagozkio EHSS siglek.


²⁵ Taula eta grafikotan aurkezten dira datu deskribatzaileak diagnostikoan. Taula eta grafiko horiek hainbat kolore erakusten dituzte (berdea, horia eta laranja), semaforoa irudikatuz, eta datuak ulertzen lagundu nahi dute.

Eusko Jaurlaritzaren 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datuen arabera, EAEko testuinguru orokorrean, 16 urtetik gorako euskal biztanleen % 33,9 da euskalduna (ondo edo nahiko ondo hitz egiten eta ulertzen dute euskara); zifra hori, ehunekotan, 2011. urtean baino 1,9 puntu handiagoa da.

Oro har, eta EAEko testuinguru orokorraren joerari jarraiki, EHSSeko erakundeek langile gero eta euskaldunagoak dituzte. Datuek erakusten dutenez, euskararen ezagutza nahiko hedatuta dago sektoreko erakundeak osatzen dituzten pertsonen artean (soldatapeko langileak eta boluntarioak). Erakundeen % 36,9tan, erakundeko pertsonen erdiak baino gehiagok ezagutzen du euskara.

Sektoreko erakundeen % 37tan, erakundeko pertsonen erdiak baino gehiagok daki euskara.

1. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko pertsonen guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa (%).



Horrekin lotu daitekeen faktore bat da sektorean nahiko gaztea den jende asko dagoela, ikasketak elebitan egin dituen eta, beraz, euskararen nolabaiteko ezagutza maila duena eta erakundearen beren egunerokotasunean, euskara erabiltzeko joera handiagoa izan dezaketenak.

Erakundeetako **soldatapeko langileei** dagokienez, erakundeen % 47,1etan, soldatapeko langileen erdia baino gehiago da euskalduna. Erakundeen % 17,9tan, langileen erdia euskalduna da, eta erakundeen % 35etan, berriz, langileen erdia baino gutxiago da euskalduna.

Sektoreko erakundeen % 47,1etan, soldatapeko langileen erdiak baino gehiagok daki euskara.

Bestalde, datuek erakusten dute errealitatea ezberdina dela esparru ezberdinetan eta, batez ere, artatzen dituzten kolektiboen arabera. Adineko pertsonekin edo etorkinekin lan egiten duten erakunde batzuetan, euskararen ezagutza ez da eskakizun nabarmena izan langileentzako.

1. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko soldatapeko langileek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztira, eta jardun-eremuaren arabera (%)


Euskara dakien soldatapeko langileen pisua	EAE	Jardun-esparrua						
		Osasuna	Enplegua	Gizarte-zerbitzuak	Aisialdia	Garapenerako lankidetzak	Soziala-Zeharkakoa	Beste batzuk
Pertsonen erdiak baino gehiagok	47,1	50	44,4	36,2	100	75	46,2	40
Pertsonen erdiak	17,9	12,5	22,2	24,1	-	-	7,7	40
Pertsonen erdiak baino gutxiagok	35	37,5	33,3	39,6	-	25	46,2	20

Baliteke erakundeek hobeto ezagutzea beren soldatapeko langileen hizkuntza-eskakizuna boluntarioena baino; horregatik, boluntarioen euskara-ezagupenari buruz eskainitako datuak gutxi gorabeherakoak izan daitezke. Hori kontuan izanda, EHSSeko **boluntarioei** dagokienez, ikus daiteke erakundeen % 38,4tan, boluntarioen erdiak baino gehiagok dakiela euskara. Erakundeen % 12,5etan, boluntarioen erdiak dira euskaldunak eta, % 49,1etan, erdiak baino gutxiago.

Erakundeen % 38,4tan, boluntario-taldeko kide gehienak euskaldunak dira.

Ondorengo grafikoan ikus daiteke, oro har, ez dela horren ohikoa sektoreko erakundeetan boluntarioen erdiak baino gehiagok jakitea euskara.

2. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko soldatapeko langileek eta boluntarioek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa (%)




Bestalde, eta bildutako datuek ez duten arren aukerarik ematen horri dagokion ondorio sendorik ateratzeko, kontuan hartu beharrekoa da azterlan honen laginean gain-ordezkatuta daudela gizarte zerbitzuen arloko erakundeak, eta dagokionaren azpitik ordezkatuta, berriz, beste esparru batzuetakoak (gazteria eta aisialdia arloetakoak, esaterako). Horrek ekar dezake kontsultatutako erakundeetako boluntarioen profila adin nagusiagokoa izatea, eta euskara ezagutzeko aukera txikiagoa duena.

Oro har, sektore honetako erakundeetako **zuzendaritza-taldeetako** kide gehienek ez dakite euskara. Erakundeen % 66,9n, zuzendaritza-taldeetako kideen erdia baino gutxiago dira euskaldunak. Erakundeen % 33,1tan bakarrik dira gehiengoa zuzendaritza-taldeetako euskaldunak.

Hiru erakundetik bitan, erdia baino gutxiagokoa euskaldunek zuzendaritza-taldean duten pisua.

Datu deigarria da honako hau: erakunde guztien % 19,5etan, ez dago euskara dakien inor zuzendaritza-taldean.

3. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko zuzendaritza-taldeko kideek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa (%)



Gainera, datuak jardun-eremu nagusiaren arabera aztertuta, badirudi aisialdiarekin lotutako erakundeak nabarmentzen direla beste guztien gainetik; izan ere, arlo horretako erakundeen % 88,9n, zuzendaritza-taldeetako kide gehienak dira euskaldunak. Hori lotuta egon daiteke era horretako erakundeak osatzen dituzten pertsonen profil gaztearekin, baina kontuan izan behar da oso erantzun gutxi jaso direla arlo horretako erakundeen aldetik.

Zuzendaritza-taldeek euskararekiko duten konpromiso maila faktore erabakigarria da erakundeetan euskararen sustapena bultzatzeko. Zuzendaritza-taldean euskaldunak egoteak euskararekiko sentsibilizazio handiagoa ekar dezake, baita euskararen erabilera maila ezberdinetan (idatzizko komunikazioa, erakundearen irudia, etab.) ezartzeko formulak egituratzerako iristeko, erakundearen hizkuntza-irizpideak formalki jartzeko aukera handiagoa ere.

5.1.2. Euskararen erabilera orokorra


Euskararen ezagupena beharrezko baldintza da, baina ez nahikoa, erakundeetan euskara erabil dadin. Ikusiko dugun bezala, eta EAEko testuinguru soziolinguistikoarekin bat etorriz, badirudi EHSSean ere alde nabarmena dagoela euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean.

Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an, EAEko 16 urtetik gorako biztanleen % 13,4k erabiltzen zuen euskara gaztelera baino gehiago, oro har. Biztanleen % 15,4k euskara erabiltzen zuen kalean, % 14,3k beti erabiltzen zuen euskara edo euskara gaztelera baino gehiago etxean, eta % 17,2k beti erabiltzen zuen euskara edo euskara gaztelera baino gehiago lankideekin.

Orokorrean, gaztelaren **erabilera**²⁶ gailentzen da EHSSeko erakundeetan. Erakundeen % 60tan gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da; % 30,8tan neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera, eta % 9,3tan euskara da hizkuntza nagusia.

Erakundeen % 9,3tan da euskara hizkuntza nagusia erabilera orokorrean.

4. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen erabilera orokorrean erabilitako hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)



EHSSean euskararen ezagutza eta erabilera erlazionatzen baditugu, ikusiko dugu bien arteko aldea dagoela; horixe erakusten du datu honek; erakundeen % 37tako langile gehienak euskaldunak dira, baina erakundeen % 9tan bakarrik da nagusi euskararen erabilera.

Beste jarduera-sektore batzuekin alderatuta, eta kontuan izanda sektore horiei buruzko datuak 2003koak direla, merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan zein enpresa handietan ere hizkuntza-gaitasunaren eta euskararen erabilaren arteko aldea nabaria dela ikusiko dugu, nahiz eta, datuek erakusten duten bezala, alde hori handiagoa da EHSSean:

- Merkataritza-sektorean, establezimenduen % 21etan, soldatapeko langileen gehiengo euskalduna da, eta establezimenduen % 9tan nagusitzen da euskararen erabilera.
- Ostalaritza-sektorean, establezimenduen % 19tan, soldatapeko langileen gehiengo euskalduna da, eta establezimenduen % 8tan da nagusi euskararen erabilera.
- Enpresa handien kasuan, berriz, % 24k du langileen gehiengo euskalduna, eta % 9tan da nagusi euskararen erabilera.

Hainbat faktore daude euskararen ezagutzaren eta erabilaren arteko alde hori zein EHSSean euskarak duen erabilera maila eskasa azal litzaketenak; arrazoi horietako batzuk sektoreari berari dagozkionak dira, eta beste batzuk orokorragoak.

Azken faktore horien artean –beste jarduera-sektore batzuei ere aplikatu dakizkiekeenak–, honako hauek nabarmentzen dira:

- Lan-mundua erdalduna dela tradizioz; hau da, ohituraz, gaztelera erabili izan da lan-harremanetan, lan-mundura sartu aurreko ikasketak euskaraz egin arren. Hain zuzen

²⁶ Kasu honetan zein beste batzuetan, galdetegiko galderek –eranskinean kontsulta daitezke– Otik 10era arteko eskala bat jasotzen zuten:

- 0 eta 1 balioek esan nahi zuten euskara ez dela inoiz edo ia inoiz erabiltzen;
- 2 eta 3 balioek esan nahi zuten gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen dela;
- 4, 5 eta 6 balioek esan nahi euskara eta gaztelera neurri berean erabiltzen direla;
- 7 eta 8 balioek esan nahi zuten euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen dela;
- 9 eta 10 balioek esan nahi zuten euskara erabiltzen dela beti.

ere, Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an, biztanleriaren % 63,8k beti hitz egiten zuen gaztelera lankideekin.

- Eta komunikaziorako hizkuntza gisa gaztelera erabiltzeko joera dagoela, aurreuposatzen delako jende gehiagok menderatzen duen hizkuntza dela. Eskuarki, lagun-talde batean gehienek jakin arren euskaraz, gaztelera erabiltzeko joera dago, bakar batek euskara ez badaki edo hitz egiteko gai ez bada.

Badaude egoera hori azaltzen duten beste faktore batzuk EHSSaren berezko ezaugarriekin lotuago daudenak, eta sektorearen jarduerarekin eta eskaintzen dituzten zerbitzuen hartzailerekin dute zerikusia. Erakunde gehienek jarduera esku-hartze sozialean dago oinarrituta, eta jarduera horrek arreta espezializatua eskatzen du; arreta-zerbitzu horretan beharrezkoa da enpatiazko eta konfiantzazko harremanak sortzea. Esku-hartzean jarduten duten pertsonak ahozko komunikazioa erabili beharra dute harreman horiek sortzeko tresna gisa; horregatik, ondo menderatu behar dute komunikaziorako hizkuntza, eta eroso sentitu behar dute erabiltzen duten hizkuntzarekin. Horregatik, ama-hizkuntza erabiltzeko joera dute; gainera, euskarak nolabaiteko beldurrak eta lotsak sorrarazten ditu askotan, baita zailtasunak ere, eta horrek guztiak mugatu egiten du euskararen erabilera.

Horixe erakusten du Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoaren datuek: 2016an, EAEko biztanle euskaldunen % 44k gaztelera erabiltzen zuen errazago; % 26,8k, berriz, euskara, eta % 29,3k hizkuntza biak neurri berean.

Halaber, harreman pertsonalenetarako komunikazio-hizkuntza ama-hizkuntza izan ohi da eta, Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an gaztelera zen EAEko 16 urtetik gorako biztanleen % 76,4ren ama-hizkuntza. Urte hartan bertan, euskara zen EAEko biztanleen % 17,5en ama-hizkuntza.

Gainera, esparru batzuetan batez ere, batez bestekoa baino ezagutza maila txikiagoa duten pertsona-kolektiboek ematen zaie arreta (hala nola adineko pertsonak, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak, gaixotasun mentalak dituztenak, jatorriz atzerritarrak direnak, etab.).

Herritarrentzako zuzeneko informazio-zerbitzua

Erakundeek % 25,5etan bakarrik erabiltzen da sarriago euskara egunean zehar, informazio-zerbitzuen kasuan.

Erakundeek % 25,5etan euskara erabiltzen da sarriago egunean zehar, herritarrenganako informazio-zerbitzuetan.

2. TAULA: Sektoreko erakundeek banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuetan egunean zehar euskara erabiltzen den aldien arabera. Guztizkoa (%)

Informazio-zerbitzuetan zenbat aldiz erabiltzen den euskara egunean zehar	EAE
Erditan baino gehiagotan	25,5
Erditan baino gutxiagotan	74,5

Elkarrizketa bat euskaraz egiteko probabilitatea lotuta dago hori ahalbidetuko duen ezagutza izatearekin, baita erakundeetan ezartzen diren hizkuntza-irizpideekin ere. Horrela, adibidez,

elkarrizketa gazteleraz hasten bada, oso litekeena da gazteleraz garatzea; aitzitik, euskaraz hasten bada, hizkuntza horretan garatzeko aukera egongo da.

Gainera, datu horiek lotuta egon daitezke komunikazio-hizkuntza gisa gaztelera erabiltzeko joera orokortuarekin, denok dakigun hizkuntza dela iritzita. Baita euskara gutxiengoak erabiltzen duela eta artatzen den pertsonak euskara jakin dezan dauden aukerak eta hizkuntza horretan artatua nahi izateko aukerak urriak direla aurreuposatzen duen aurreiritzi hedatuarekin .

Bestalde, erakundeetan euskararen erabilera gero eta handiagoa izatea ahalbidetzen duen erakundeetako elementu bereizle bat da pertsona euskaldunak egotea aurrez aurreko zein telefono bidezko informazioko eta jendearekiko arretarako zerbitzuetan.

Erakundeen % 45etan, euskalduna da zerbitzu horietan lan egiten duten langileen erdia. Hala ere, nabarmentzekoa da erakundeen % 16,5ek ez duela batere langilerik zerbitzu horietan.

Erakundeen % 45etan, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuan lan egiten duten pertsonen erdia baino gehiago da euskalduna.


3. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuan lan egiten duten pertsona euskaldunen pisuaren arabera. Guztizkoa (%)

Informazio-zerbitzuetan lan egiten duten eta euskara dakiten pertsonen pisua	EAE
Pertsonen erdia baino gehiago	45
Pertsonen erdia baino gutxiago	55

Azkenik, erakundeen % 19,5ek euskara ezarri du **lehenetsuzko hizkuntza** gisa herritarrei zuzeneko informazio-zerbitzua eskaintzeko, ekipamenduan bertan zein telefono bidezko arreta-zerbitzuan.

Erakundeen % 19,5etan, euskara dago ezarrita herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuko lehenetsitako hizkuntzatzat.

5. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuetan lehenetsuzkotzat ezarritako hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)



5.2.3. Euskararen erabilera komunikazioan

EHSSeko erakundeetako euskararen erabilera globala aztertu ondoren, erabilera hori komunikazio-esparru ezberdinetan –barne- eta kanpo-komunikazioa, ahozkoa eta idatzizkoa– nolakoa den sakonduko dugu jarraian, eta lau modalitate horietako bakoitzaren barruan dauden elementu bereizleak azalduko ditugu.

Honako hauek dira EHSSeko erakundeetako euskararen erabileraren analisisian bereizi diren komunikazio-arloak:


- *Ahozko kanpo-komunikazioa*: erakundeak hornitzaileekin, erabiltzaile eta familiarekin, herri administrazioarekin, beste bezero batzuekin (beste erakunde batzuk) eta publizitatean ezartzen duen ahozko komunikazioa da.
- *Idatzizko kanpo-komunikazioa*: komunikazioaren idatzizko elementuei dagokie, hala nola erakundearen irudiari, errotulazioari, liburuxkei, katalogo eta triptikoei, webguneari eta bezeroekin elkartrukatzeko diren posta elektronikoko eta agiriak.
- *Ahozko barne-komunikazioa*: erakundearen barruan, langileen artean ezartzen den ahozko komunikazioa da, zuzendaritza-taldearen batzarretan eta, oro har, gainerako batzarretan.
- *Idatzizko barne-komunikazioa*: Erakundearen idatzizko elementuei dagokie, hala nola errotulazioari, soldata-orriak eta lan-kontratuei, idazkiei eta, oro har, agiriak, eta informatikako programei.

Jarraian, eta erakunde baten barruan komunikazioa gertatzen den eremu ezberdinak laburbilduz, grafiko bat aurkezten da, euskararen erabilerari dagokionez eremu ezberdin horien artean dauden aldeak erakusten dituena.

Datu horiek erakusten dute idatzizko kanpo-komunikazioa dela, alde nabarmenarekin gainera, sektore honetako erakundeetan euskara gehien erabiltzen den eremua. Aitzitik, ahozko barne-komunikazioak euskararen erabilera maila oso baxua duela ikus daiteke.

Idatzizko kanpo-komunikazioan erabiltzen da batez ere euskara, eta ahozko barne-komunikazioan erabiltzen da gutxien.

6. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen komunikazio-arlo ezberdinetan erabilitako hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)



Oro har, badirudi EHSSeko erakundeetan euskarak presentzia handiagoa duela kanpo-komunikazioan barne-komunikazioan baino. Halaber, nabarmena da, oro har, euskara gehiago erabiltzen dela idatzizko komunikazioan ahozkoan baino. Aurrerago, komunikazio mota bakoitzari buruzko azalpen xehatuan, kasu bakoitzean egiten den euskararen erabilerarekin lotutako faktore ezberdinak aurkeztuko ditugu.

EHSSeko erakundeen ahozko komunikazioan, kasuen % 10,8 (barne-komunikazioa) eta % 14,3 (kanpo-komunikazioa) artean gailentzen da euskararen erabilera. Datu horiek beste jarduerasektore batzuenekin alderatuta, eta kontuan izanda datuok 2003koak direla, ikus daiteke, oro har, gaur egun euskararen erabilera EHSSeko erakundeen ahozko komunikazioan handiagoa dela orain dela hamabost urte ostalaritzako eta merkataritzako sektoreetan baino.

- Taberna eta jatetxeen % 5,5ek eta merkataritza-establezimenduen % 9k bakarrik erabiltzen zuten nagusiki euskara ahozko komunikazioan.
- Enpresa handien kasuan, berriz, % 10 (barne-komunikazioa) eta % 19 (kanpo-komunikazioa) artekoa zen 2003an euskararen ahozko erabilera; beraz, EHSSeko erakundeek datu hobek aurkezten ditu gaur egun euskararen ahozko barne-erabilerari dagokionez, baina ez ahozko kanpo-erabilerari dagokionez.

Idatzizko komunikazioko euskararen erabilerrari dagokionez, % 9,3 (barne-komunikazioa) eta % 25,9 (kanpo-komunikazioa) artekoak dira EHSSeko erakundeen datuak.

- 2003an, ostalaritza eta merkataritzako sektorean, ostalaritza-establezimenduen % 15ek eta merkataritza-establezimenduen % 12k erabiltzen zuten nagusiki euskara idatzizko komunikazioan (azterlan horiek ez zuten egiten barne- eta kanpo-komunikazioaren arteko bereizketarik egiten).
- Enpresa handien kasuan, bestalde, % 22 (barne-komunikazioa) eta % 23 (kanpo-komunikazioa) artekoa zen euskararen idatzizko erabilera.

Ahozko kanpo-komunikazioa

Erakundeak hornitzaileekin, erabiltzaile eta familiekin, herri administrazioarekin, beste bezero batzuekin (beste erakunde batzuk) eta publizitatean ezartzen duen ahozko komunikazioa da.


Erakundeen ahozko kanpo-komunikazioan gaztelera gailentzen da erakundeen % 60an. Esanguratsua da, bestalde, erakundeen % 25,7tan neurri berean erabiltzen direla gaztelera eta euskara.

Hamar erakundetik seitan, gaztelera da kanpo-komunikazioan gailentzen den hizkuntza.

Gaztelarak ahozko komunikazioan duen nagusitasun hori hainbat faktoreekin egon daiteke lotuta; horien artean, nabarmentzekoak dira jende askok euskaraz ez dakien (batzuek badakiten arren) aurreiritzi hedatua. Horregatik hasten dira gaztelera elkarriketa asko. Hori bereziki agerikoa da tradizionalki “erdaldunak” izan diren eta euskarak presentzia txikia izan duen lurralde-eremuetan.

Datu horiek lotuta egon daitezke aurrez aipatutako ideiarekin ere; alegia, esku-hartzeko sozialeko jardura jakin batzuk batez ere harremanetan eta komunikazioan oinarrituta egotearekin. Kasu horietan, euskararen erabilera eskasean eragina dute euskararen ahozko erabilerarako behar den erraztasunak eta ama-hizkuntza euskara ez duten pertsona asko euskaraz hitz egiteko sentitzen duten lotsak edo deserosotasunak, akatsen bat egiteko beldurrez.

7. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen ahozko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztikoa (%)



Ikus daiteke erakundeen % 25ek erabiltzen duela nagusiki euskara **publizitatean** eta **herri administrazioarekiko harremanetan**.

Badirudi publizitatea dela euskaraz aurkezteko erraztasun handiena ematen duen erakundeen komunikazio-elementuetako bat, erakundeek kanpoko laguntza-zerbitzuetara jotzen baitute gai hori konpontzeko. Administrazioarekiko harremanetan ere euskararen erabilera handiagoa dela ikusten da, besteak beste herri administrazioetan lan egiten duten eta sektoreko erakundeekin harremanetan dauden pertsonen duten euskara-gaitasunagatik eta administrazioak zerbitzuak emateko ezarritako dituen hizkuntza-irizpideengatik; horrela, EHSSeko erakundeak irizpide horiek betetzen saiatzen dira.

Publizitatean eta administrazioarekiko komunikazioan, kanpo-komunikazioko euskararen erabilera handiagoa da.

Aitzitik, hornitzaileekiko eta erabiltzaile eta familiekiko harremanetan gaztelaren erabilera da nagusi; erakundeen % 65etan, gaztelera gailentzen da haiekiko ahozko komunikazioan. Batzuetan, aurreiritziek, erosotasunak eta ezjakintasunak eragina izaten dute; ezjakintasun horrek erabiltzaile eta familia askok euskara ez dakitela pentsatzera bultzatzen gaitu, eta haiekiko ahozko harremanetan gaztelera lehenesteko joera dago.

8. GRAFIKOA: Ahozko kanpo-komunikazioaren elementu batzuetan euskara nagusi duten sektoreko erakundeen banaketa. Guztizkoa (%)



Idatzizko kanpo-komunikazioa


Idatzizko kanpo-komunikazioa komunikazioaren idatzizko elementuei dagokie, hala nola erakundearen irudiari, errotulazioari, liburuxkei, katalogo eta triptikoei, webguneari eta bezeroekin elkartrukutzen diren posta elektronikoko eta agiriei.

Erakunde gehienetan (% 44,6) euskara eta gaztelera neurri berean erabiltzeko joera dago idatzizko kanpo-komunikazioaren kasuan. Erakundeen ia % 30etan gaztelera da nagusi, eta % 26tan, berriz, euskara.

Erakundeen % 45etan, idatzizko kanpo-komunikazioa elebiduna izan ohi da.

Idatzizko kanpo-komunikazioan euskarak duen presentzia handi hori lotu daiteke erakundeek idatzizko informazioa elebitan eskaintzea bermatzen dieten itzulpen-zerbitzuak azpikontratatzeko duten nolabaiteko erraztasunarekin ere.


9. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen idatzizko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)



Idatzizko kanpo-komunikazioan bi arlo gailentzen dira, euskararen presentzia handiagoari dagokionez: errotulazioa eta liburuxkak, katalogoak edo triptikoak. Erakundeen % 32,2tan euskara nagusitzen da errotulazioan, eta % 31,7tan, berriz, euskara da nagusi liburuxka, katalogo edo triptikoetan. Gainera, erakundeen % 30,1etan erakundearen irudian ere euskara gailentzen da.

Errotulazioan eta liburuxka, katalogo edo triptikoetan handiagoa da euskararen erabilera.

10. GRAFIKOA: Idatzizko kanpo-komunikazioaren elementu batzuetan euskara nagusi duten sektoreko erakundeen banaketa. Guztizkoa (%)



Bezeroekiko komunikazioan (gutun bidez, posta elektronikoz...) eta webguneetan beste arlo batzuetan baino –errotulazioa eta liburuxkak, esaterako– beharrezkoagoa da idatzizko edukiak eguneratzea; horregatik, zailagoa izan daiteke eduki horiek beti euskaraz ematea (kostu ekonomikoa handiagoa da, denbora arazoak ere egon daitezke, etab.).

Ahozko barne-komunikazioa

Ahozko barne-komunikazioa da erakundearen barruan langileen artean ezartzen den ahozko komunikazioa, zuzendaritza-taldearen batzarretan eta, oro har, gainerako batzarretan.


Erakundeen ahozko barne-komunikazioan presentzia txikia du euskarak: erakundeen % 75ek gaztelera erabiltzen da nagusiki. Erakundeen ia 14,3tan neurri berean erabiltzen dira hizkuntza biak, eta erakundeen % 10,8tan euskara erabiltzen da gehiago.

Lau erakundetik hirutan, gaztelera da ahozko kanpo-komunikazioan gailentzen den hizkuntza.

Kasu honetan ere badirudi agerian geratzen dela harremanetarako hizkuntza gisa gaztelera erabiltzeko berezko joera dagoela. Gainera, kontuan izan beharko litzateke ahozko komunikazioko dinamiketan gertatzen den beste joera bat ere: lagun-taldetan, euskara hitz egiten ez duten pertsonak daudenean, nahiz eta gutxiengoa izan, gaztelera hitz egiteko joera dago.

Badirudi euskararen ahozko erabileran eragin positiboa dutela zenbait faktorek: erakundearen barruan komunikazioko hizkuntza-irizpideak ezartzeak, lantalde euskaldunak sortzeko ahaleginak, eta zuzendaritza-taldeak horri ematen dion babesak.


11. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen ahozko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)



Ahozko barne-komunikazioa osatzen duten elementuei erreparatuta, ikusten da euskararen presentzia pixka bat handiagoa dela langileen artean (erakundeen % 13,5etan komunikazio hori euskaraz egiten da nagusiki) eta txikiagoa zuzendaritza-taldearen batzarretan eta, oro har, batzar guztietan (batzar horiek sektoreko erakundeen % 8 inguruan egiten dira nagusiki euskaraz).

Euskararen erabilera handiagoa da langileen artean, zuzendaritza-taldetako kideen artean edo batzarretan baino.

12. GRAFIKOA: Ahozko barne-komunikazioaren elementu batzuetan euskara nagusi duten sektoreko erakundeen banaketa. Guztizkoa (%)



Oro har, "sortze-hizkuntza" (hau da, jatorrizko ideiak, testuak, hausnarketak eta beste sortzen diren hizkuntza) gaztelera izan ohi da; horren ondorioz, pertsonak ez dira eroso sentitzen *a posteriori* ideiak, ñabardurak eta abar ahoz transmititzeko euskara erabiltzen dutenean.

Idatzizko barne-komunikazioa


Idatzizko barne-komunikazioa erakundearen idatzizko elementuei dagokie, hala nola errotulazioari, soldata-orriei eta lan-kontratuei, idatzkiei eta, oro har, agiriei, eta informatikako programei.

Oro har, idatzizko barne-komunikazioan (errotulazioa, soldata-orria, etab.) gaztelera da hizkuntzarik erabiliena erakundeen % 72,9tan. Erakundeen % 9,3tan bakarrik erabiltzen da nagusiki euskara idatzizko barne-komunikazioan. Gainerako % 17,9tan, neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera.

Erakundeen % 70etan baino gehiagotan, gaztelera da nagusi idatzizko barne-komunikazioan.

Erakundeen barne-esparruan kanpo-esparruan baino presentzia txikiagoa du euskarak. Idatzizko kanpo-komunikazioan euskararen erabilera bermatzeko itzulpen-zerbitzuetara jotzen dute erakundeek, baina badirudi barne mailan ez zaiola gai horri horrenbesteko garrantzirik ematen, eta ez da horren ohikoa izaten erakundeek barne-dokumentazioa itzultzeak dakarren kostua (ekonomikoa edo denbora-kostua) beren gain hartzea.

13. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen idatzizko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa (%)




Errotulazioa da euskarak presentzia handiena duen idatzizko barne-komunikazioko elementua (erakundeen % 17,9an euskara da nagusi errotulazioan). Aldiz, euskararen presentzia txikiagoa da soldata-orrietan, informatikako programetan eta idatzizko beste agiri batzuetan (erakundeen % 8,5etan edo gutxiagotan da nagusi euskara arlo horietan).

Errotulazioa da euskara gehien erabiltzen den idatzizko barne-komunikazioko arloa.

Horren arrazoietakoa bat izan daiteke erabiltzen diren informatikako programa guztiak ez egotea euskaraz. Baina nabaria da euskarazko bertsioak erabilgarri dauden kasuetan ere gaztelera bertsioa aukeratzeko joera dela nagusi (jendeak hobeto ezagutzen duen hiztegia izaten dutelako, etab.).

“Agirien” kasuan, adierazi behar da, ideia gehienak gaztelera “sortzen” direnez, handiagoak izaten direla gero ideia horiek euskarazko testuetan jasotzeko zailtasunak. Ildo horretan, eta oso teknikoak diren agirien kasuan, terminologia hori oso ondo ezagutzen ez duten pertsonak nahiago izaten dute testuak gaztelera sortzea eta gero itzultza bidaltzea.

14. GRAFIKOA: Idatzizko barne-komunikazioaren elementu batzuetan euskara nagusi duten sektoreko erakundeen banaketa. Guztizkoa (%)



5.2. Euskararen sustapena

Diagnostikoaren atal honetan, helburua da EHSSeko erakundeek euskara babesteko eta bultzatzeko hartutako neurrien garapen mailaren analisia eta, aurrean dituzten erronkei eta zailtasunei dagokienez, sektoreko erakundeek etorkizun hurbilean ziur aski jarraituko duten joerari buruzko hausnarketa bat eskaintzea.

5.2.1. Erakundeek euskara bultzatzeko hartutako neurrien egoera

Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016an, EAEko biztanleen % 23,2 zegoen euskararen erabilera sustatzearen oso alde, eta beste % 41,8 alde zegoen; hau da, oro har, EAEko biztanleen gehiengo handia zegoen euskararen erabilera sustatzearen alde.


EHSSari dagokionez, erakundeen % 50,8k dio azkeneko urteetan **euskararen sustapenarekin lotutako neurri edo ekintzaren** bat abian jarri duela.

Erakundeen erdiak jarri du abian euskararen sustapenarekin lotutako neurri edo ekintzaren bat.

Beste sektore batzuei buruz argitaratutako azkeneko azterlanek adierazten dute jatetxe eta tabernen % 4k eta merkataritza-establezimenduen % 2k jarri zutela euskararen erabilera normalizatzeko neurriren bat 2003an.

Erakundeen diru-sarreraren bolumena kontuan hartuta dauden aldeek erakusten dute erakunde handiek (1.500.000 €-tik gorako aurrekontua dutenak) neurri handiagoan garatu dituztela euskararen sustapenarekin lotutako ekimenak.

15. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskararen sustapenarekin lotutako neurririk edo ekintzarik abian jarri duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)



Euskara sustatzeko neurririk garatu ez duten erakundeek (% 49,2) argudiatzen dute ez dutela horrelakorik planteatu, ez dutela beharrezkotzat jo edo erakundearen misioarekin lotura handiagoa duten beste ekimen batzuei eman dietela lehentasuna.

Zentzu horretan, gogorarazi behar da erakunde asko sortu zela larrialdiko edo berehalako arreta behar zuten arazo sozialei erantzuna emateko antolatuta ziren herritarren mugimenduekin oso

lotuta, eta EHSSeko erakunde asko, tradizionalki, gizarteko esku-hartzera bideratuago egon direla eta esku-hartze hori lehenetsi dutela bestelako gaien gainetik.


Bestalde, euskara sustatzeko ekintzak abian jarri dituzten erakunde gehienek dokumentazioa eta kanpo-irudia elebitan egitearen, prestakuntzarako laguntzak eskaintzearen, kontratazioan hizkuntza-irizpideak ezartzearen eta erakunde barruan euskara-batzordeak sortzearen alde egin dute.

Gizarte-erantzukizuna da **erakundeek euskara sustatzeko neurriak edo ekintzak abian jartzeko emandako motibazio nagusia**. Erakundeen % 40,7rako, horixe da lehenengo motibazioa, eta % 30,8rako, berriz, bigarrena. Azpimarratzekoa da pisu handia dutela era horretako ekintzak langileen edo boluntarioen eskaerak (% 20,3) eta herri administrazioaren errekerimenduak (% 18,6) motibatuta abian jarri dituzten erakundeek.

Erakunde askorentzako, gizarte-erantzukizuna da euskararen sustapenarekin lotutako neurriak edo ekintzak martxan jartzeko arrazoi nagusia.

Erakundeek euskara bultzatzeko duten motibazio nagusia gizarte-erantzukizuna izatea lotuta dago sektoreko erakundeen misioarekin eta balioekin: erabiltzaileen eskubideekiko errespetua –hor sartzen dira hizkuntza-eskubideak–; ingurunean errotuta egotea; zerbitzuen kalitatea, eta euskara berez jotzea baliotzat eta euskal (kultura) nortasunaren funtsezko ezaugarritzat.

16. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskararen sustapenarekin lotutako neurriak edo ekintzak abian jartzera bultzatu dituzten bi arrazoi nagusien arabera. Guztizkoa (%)



Diru-laguntza moduan ematen den babes ekonomikoa da erakundeetan euskara sustatzeko ekintzak egin ahal izateko bulkadetako bat. Kontsultatutako sektoreko erakundeen % 34,4k jaso du **euskara sustatzera bideratutako laguntza ekonomikoren bat**.

Hiru erakundetik batek jaso du euskara sustatzeko ekintzak egiteko laguntza ekonomikoren bat.

Era horretako laguntzek bultzada handia ematen diete erakundeei, euskara sustatzeko ekintzak modu formalean eta iraunkorrean egituratzea ahalbidetzen baitiete. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzaren (Lanhitz programatik, batez ere) eta Foru Aldundiaren eskutik iristen dira batez ere.


Erakundeen barruan euskararen aldeko lana formalizatzeko, beharrezkoa da euskarari bere lekua ematea erakundearen egituraren barruan, eta euskarak erakundearen ildo estrategikoen barruan duen garrantzia aitortzea.

Erakundeen % 18,1ek **neurtzen du euskararen erabilera** erakundearen barruan, datuak modu objektiboan jasotzen dituen galdetegi bat erabilita. Erakundearen diru-sarreraren bolumenak alde nabarmena markatzen du: 1.500.000 eurotik gorako aurrekontua duten erakundeen % 52,4k neurtzen du euskararen erabilera.

Erakundeen % 18k neurtzen du euskararen erabilera. Erakunde handien kasuan (1.500.000 eurotik gorako diru-sarreraren bolumena), % 50etik gorakoa da datu hori.

Deigarria da, bestalde, EHSSeko erakundeen % 81,9k ez duela euskararen erabileraren neurketarik egiten. Horri dagokionez ematen dituzten arrazoiak erakundearen beste gai batzuk lehenestearekin lotuta daude.

17. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundeko euskara-erabilera neurtzen duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)




Erakundeetan euskararen aldeko lana formalizatzen laguntzen duen beste elementu bat da gaiaz arduratzen diren pertsonak egotea. Erakundeen % 27,8k du **euskararen arduradun bat edo gaiaz arduratzen den lantalde bat**. Kasu gehienetan, horretarako sortutako euskara-batzordeak hartzen du ardura hori.

Diru-sarrera bolumen handieneko erakundeak dira erakundearen barruan euskara-arduradunen bat neurri handienez dutenak (% 68,2).

Erakundeen laurdenak baino gehiagok du euskararen arduradun bat edo gaiaz arduratzen den lantalde bat. Erakunde handien kasuan (1.500.000 eurotik gorako diru-sarrera bolumena), % 68koa da datu hori.

18. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara arduradun bat edo lantalde bat duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)



Erakundearen barruan euskara bultzatzeaz arduratzen den pertsona edo lantalde bat izatea, hau da, erakundearen euskararen erabilera eta sustapena bultzatuko duen pertsona edo lantalde eragile bat izatea, erabakigarria izaten da euskara erakundearen barruan zeharkako gai estrategiko gisa formalizatze aldera. Pertsona edo lantalde eragile bat dagoenean, nabarmen handiagoak izango dira euskara erakundearen planetan kontuan hartuko den elementu bat izateko, euskararen erabilera neurtzen hasteko, euskara langileak hautatzeko prozesuetan baloratzeko eta hizkuntza-irizpideak ezartzeko aukerak.

Hizkuntza-irizpideak ezartzeak oso modu positiboan laguntzen du erakunde barruko prozesu batzuk euskaraz egin ahal izaten eta erakundearen agiri eta produktuetan euskararen presentzia bermatzen. Oso garrantzitsua da irizpide horiek egotea herritarrekiko arreta- eta informazio-zerbitzuetan, eta telefono bidezko arreta-zerbitzuetan.


Erakundeen % 22,2k ditu ezarrita **hizkuntza-irizpideak** (nola eskaini telefono bidezko arreta, nola erakutsi erakundearen irudia, nola diseinatu paper-gauzak, etab.). Gainera, beste % 25,4k horrekin lotutako ekintzaren bat egiten du, nahiz eta ez egon idatziz formalizatuta. Hizkuntza-irizpideei dagokienez, eta horien artean lehentasunezko hizkuntzaren definizioak duen garrantzia kontuan hartuta, gogorarazi behar da erakundeen % 19,5ek dutela ezarrita euskara herritarrekiko arreta-zerbitzuetako lehentasunezko hizkuntzatzat.

Erakundeen % 22,2k ditu ezarrita hizkuntza-irizpideak. Erakunde handien kasuan (1.500.000 eurotik gorako diru-sarrerera bolumena), % 75ekoa da datu hori.

Baina EHSSeko erakundeen erdiak baino gehiagok adierazi du ez duela ezarrita hizkuntza-irizpiderik. Eta hori justifikatzeko ematen dituzten arrazoiek zerikusia dute erakundearen barruan euskarari lehenespenik ez ematearekin (beste lehentasun batzuk daudelako) eta euskara erabiltzeko irizpide batzuk modu formalean jasotzeko beharrik ez antzeman izatearekin.

Nolanahi ere, badirudi diru-sarreraren bolumenak ere baduela zerikusirik. Erakunde handien % 57k (1.500.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituztenak) ezarrita dituzte hizkuntza-irizpideak; ehuneko hori % 8,3ra murrizten da 12.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerera bolumena duten erakundearen kasuan.

19. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, hizkuntza-irizpiderik ezarrita dutenaren arabera. Guztizkoa, eta diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)




Euskarazko hizkuntza-gaitasuna duen lantaldea sendotze aldera, funtsezkoa da **langileen hautatze-prozesuetan** euskara baloratzea. Erakundeen % 26,4tan, euskara jakitea bete beharreko baldintza da lanpostu guztietan; erakundeen % 19tan, lanpostu batzuetan bakarrik da ezinbesteko baldintza. Beraz, esan daiteke erakundeen % 45,4tan dela betekizuna euskara, langileak hautatzeko prozesuak egiten direnean. Deigarria den

Erakundeen % 45,4tan, euskara lanpostu guztietarako edo batzuetarako eskakizuna da.

arren, erakundeen % 19k ez du kontuan hartzen euskara prozesu horietan, ez baldintza gisa, ez meritu gisa²⁷.

20. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, langileak hautatzeko prozesuetako euskararen balorazioaren arabera. Guztizkoa (%)



Euskadiko enpresa handien datuek erakusten dute –alderaketa eginez–, gaur egun EHSSeko erakundeetan garrantzi handiagoa ematen zaiola euskarari langileen hautatze-prozesuetan, 2003an sektore horretan ematen zizkion baino; enpresa handietako % 4tan bakarrik zen ezinbesteko betekizuna euskara lanpostu guztietarako, eta % 21etan zen eskakizun lanpostu batzuetarako; eta enpresa handien % 49tan, ez zen kontuan hartu ere egiten. Ostalaritzako establezimenduen kasuan, berriz, 2003an, % 6tan bakarrik ezartzen zen eskakizun gisa euskara langileak hautatzerakoan, eta % 78tan ez zen kontuan hartzen. Urte hartan bertan, merkataritza-establezimenduen % 7tan ezartzen zen euskara bete beharreko baldintzatzen, eta % 74tan ez zen kontuan hartzen.

EHSSeko erakundeek beren langileen hautatze-prozesuetan euskara gehiago baloratzearen arrazoietakoa bat da erakunde horiek herri administrazioarekin harreman estua dutela, sektoreko erakunde asko baitira erantzukizun publikoko zerbitzuen hornitzaile edo diru-laguntzen edo kontratu publikoen bitartez finantzatzen baitute beren jardueraren zati bat.

Hautapen-prozesuetan euskara “baldintza” gisa (eta ez “meritu” gisa) baloratzea funtsezko elementua da euskarak presentzia izango duen lan-inguruneak sortu ahal izateko. Hedatuta dago ahozko barne-komunikazioan gaztelararen erabileraren aldeko joera orokortua gainditzeko erakundearen barruan pertsona euskaldun gehiago egotea behar den ideia. Horrek erraztu egingo du lan-dinamikak euskaraz ezarri ahal izatea, eta ideiak euskaraz “sortzea” lortzeko urratsak ematen joatea, era horretan, gaur egun gertatzen den egoera gaindituz: hau da, gaur egun gaztelaraz “pentsatzen” da lehendabizi, eta euskarara itzultzen da ondoren. Nolanahi ere, ez da horren zain egon behar erakundeetan euskararen erabilera dinamizatzeko.


²⁷ Azterlanerako erabilitako *online* bidezko galdetegian, erantzun bakarrekoa zen honako galdera hau: “Hartzen al da kontuan euskara jakitea zure erakundearen langileak hautatzeko prozesuetan egiten direnean”; beraz, ulertzen da erantzun-kategoriak bateraezina direla. Eranskinean kontsulta daiteke galdetegia.

Erakundeen ia % 40an, euskarak ez du batere lekurik hartzen **Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean**. Aitzitik, erakundeen % 32tan euskarak presentzia handia edo nahiko presentzia du plan batean edo bestean. Beren planetan euskara ere erabiltzen duten erakunde horien kasuan, euskarari bere lekua ematearen arrazoiak da euskararen erabilera EAEko herritarren eskubidea dela, eta hori horrela, formalki jasota geratu behar dela erakundearen gidalerroetan.

Erakundeen % 32tan, euskarak presentzia nahikoa edo handia hartzen du Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean.

Euskara ez erabiltzearen arrazoiak, berriz, erakundeak beste gai batzuei lehentasuna ematearekin lotuta daude batez ere, eta erakunde askok ez duelako ikusi oraindik euskarari horrelako espaziorik emateko beharrik.

21. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskarak Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean duen presentziaren arabera. Guztizkoa (%)



Erakundearen diru-sarrera bolumenaren arabera alderatu badiegu, badirudi argi dagoela erakunde handienetan handiagoa dela euskarak Plan Estrategikoetan edo Kudeaketa Planetan duen presentzia.

4. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskarak Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean duen presentziaren arabera. Guztizkoa, eta erakundearen diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)

	EAE	Diru-sarreraren bolumena				
		<12.000€	12.001- 60.000€	60.001- 300.000€	300.001- 1.500.000€	>1.500.000€
Handia	6,5	0	22,2	2,9	6,5	0
Nahiko handia	25,2	0	11,1	28,6	16,1	63,6
Ez handia, ez txikia	13	16,7	5,6	8,6	25,8	4,5
Txikia	15,4	16,7	5,6	22,9	12,9	9,1
Batere ez	39,8	66,7	55,6	37,1	38,7	22,7


Kontsultatutako erakundeen % 15,9k formalizatutako **Euskara Plana** dauka, helburuak eta ekintzak jasotzen dituena, eta abian jarri dena. Erakundeen % 20,6k euskararekin lotutako ekintzaren bat egiten du, nahiz eta hori ez dagoen idatziz formalizatuta, eta % 63,5ek ez dauka euskara planik eta ez du euskararen sustapenarekin lotutako ekintzarik egiten.

Erakundeen % 16k du Euskara Plana. Erakunde handien kasuan, % 62koa da datu hori.

Datu horiek beste sektore batzuetakoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu 2003an Euskara Plana zuten Euskadiko enpresa handien ehunekoak gaur egun Euskara Plana duten EHSSeko erakundeena baino handixeagoa zela, enpresa handi horien % 18k adierazi baitzuten era horretako plana zutela.

EHSSeko erakundeen artean, alde nabaria ikusten da erakundeak kudeatutako diru-sarrera bolumenaren arabera: erakunde handien % 63,9k du euskara plana (erakunde handientzat jotzen dira 1.500.000 eurotik gorako diru-sarrera bolumena dutenak).

22. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara plana duten kontuan hartuta. Guztizkoa, eta erakundearen diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)



Interesgarria da euskara plana edukitzearen eta euskararen arduradun bat edo lantalde bat edukitzearen arteko erlazioa aztertzea. Badirudi datuek adierazten dutela aldagai horiek biak positiboki erlazionatuta daudela; horrela, euskaraz arduratzen den pertsona bat edo lantalde bat duten erakundeek euskara plana izateko joera dute, eta alderantziz.

Euskara plana duten erakundeen % 85ek euskara arduraduna ere badute. Eta euskara planik ez duten erakundeen % 88,5ek ez dute euskara arduradunik ere.

5. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara plana eta euskara arduraduna duten kontuan hartuta (%).

Euskara Plana	Euskara Arduraduna		
	Bai	Ez	Guztira
Bai	85	15	100
Euskararen sustapenarekin lotutako ekintzaren bat	30,8	69,2	100
Ez	11,5	88,5	100

Erakundeetan euskara plana ezartzeak erakundeak euskararen erabilerari eta sustapenari ematen dion garrantzi formalaren berri ematen du. Euskara plan bat garatzeak inbertsio ekonomikoa zein denbora-inbertsioa eskatzen ditu, eta erakunde askok diru-laguntza publikoei esker egiten die aurre inbertsio horri. Badirudi euskara planen presentzia txikiagoa dela egitura txikiagoko erakundeetan, dirudienez laguntza horiek eskuratzeko oztopo handiagoak izaten baitituzte. Gainera, kontuan izan behar da ezinbesteko baldintza dela euskara plana izatea zenbait diru-laguntza eskuratu ahal izateko eta, beraz, euskara planik prestatzeko nahikoa baliabide ez dituzten edo diru-laguntzarik eskuratzeko lortzen ez duten erakundeek, ezinezko izaten dute beste diru-laguntza batzuk eskuratzeko ere.


Erakundeen % 15ek du **euskararekin lotutako ziurtagiriren** bat. Era horretako ziurtagiriren bat dutenen artean, Bikain ziurtagiria dute gehienek, eta Bai Euskarari ziurtagiria dago bigarren tokian.

Erakundeen % 15ek du euskararekin lotutako ziurtagiriren bat.

Hori funtsezko kontua da herri administrazioaren kontratuak eskuratu nahi dituzten erakundeetarako, kontratu-plegu eta -lehiaketa askotan eskatzen baita betekizun gisa.

Ziurtagiri bat eskuratzeko prozesua euskararen alde egindako lanari balioa ematea da erakundeentzako: euskararen aldeko lanari eskaini zaizkion baliabideak –eskainitako denbora eta ahalegina, batez ere– azpimarratzen eta baloratzen dira.

23. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskararekin lotutako ziurtagiriren bat duten kontuan hartuta. Guztizkoa (%)



Euskararekin lotutako ziurtagiririk ez dutela adierazi duten erakundeek azaldu dute ez dutela beharrezkotzat baloratu euskara-ziurtagiririk lortzea, neurri handi batean, euskara ez delako erakundeetan lehenesten den gai bat. Hala ere, garrantzitsua da adieraztea beste erakunde batzuek esan dutela ez zekitela era horretako ziurtagiririk zegoenik.


5.2.2. Erakundeen erronkak, euskararen sustapenari dagokionez

Kontsultatutako 10 erakundetatik ia zortzik aitortzen du **euskararen erabilera onuragarria** dela erakunderako. Hala ere, erakundeen % 23k ez du argi ikusten zer balio ekar lezakeen beren kudeaketa alderdi horren aldera orientatzeak.

Erakundeen % 23k ez du ikusten euskararen erabilerak bere erakunderako onurarik duenik.

Datu horiek, esate baterako, ostalaritza-sektorekoekin alderatuta, ikusten da ostalaritzako establezimenduen % 33k zioela 2003an euskararen erabilerak abantailak dituela. Bestalde, Euskadiko merkataritza-establezimenduen % 42k uste zuen euskararen erabilerak abantailak dituela.

24. GRAFIKOA: Sektorako erakundeen banaketa, euskararen erabilerari onurarik ikusten dioten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa (%)



Erakundeen % 23k euskararen erabilerak abantailarik ez duela uste izateak pentsarazten digu beharbada ez dutela abiarazi euskararen garrantziari buruzko hausnarketa sakonik.

Euskarak abantailak²⁸ dituela argi ikusten dutenek pertsonen hizkuntza-eskubideekiko errespetua, beste erakunde batzuekiko kanpo-harremanen hobekuntza eta proiektatzen duten irudiaren hobekuntza aipatzen dituzte batez ere. Pertsona euskaldunekiko harrera hobetzen duela ere uste dute, batez ere kolektibo gazteenarekiko. Gainera, erakunde horien iritziz, euskararen erabilerak erabiltzaile eta bazkide kopurua handitu ahal izango luke. Erabiltzaile euskaldunekin euskara erabiltzeak pertsona horiekiko hartu-emanen puntu gehigarri bat ematen dio erakundeari, gertutasun handiagoko harremanak ezartzeko aukera ematen baitu.

Erakundeen % 41,3k **aurreikusten du etorkizunean euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea.**

Erakundeen % 40k baino gehiagok aurreikusten du epe laburrean euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzea.

Beste sektore batzuekin alderatuta, ikusten da EHSSeko erakundeek, gaur egun, euskara normalizatzeko neurriak hartzeko prestasun handiagoa dutela beste sektore batzuek 2003an zutena baino; izan ere, merkataritza-establezimenduen % 6k eta enpresa handien % 8k adierazi zuten orduan horretarako prest zeudela.

²⁸ Txostenak euskararen onurei buruzko berariazko atala du. Ikus 1. kapitulua: Zergatik eta zertarako bultzatu euskara hirugarren sektore sozialeko erakundeetan?

Batez ere EHSSeko erakunde handienak dira horren aldeko apustua egiten dutenak: 1.500.000 eurotik gorako aurrekontua duten erakundeen % 70ek dio euskara normalizatzeko neurriak ezartzea aurreikusten duela; erakunde txikien kasuan, berriz, % 30ek bakarrik dio hori.

6. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, etorkizunean euskararen erabilera normalizatzeko neurriak hartzeko aurreikuspenik duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta erakundearen diru-sarreraren bolumenaren arabera (%)

Neurriak aurreikusita	EAE	Diru-sarrera bolumena				
		<12.000 €	12.001 - 60.000€	60.001- 300.000€	300.001- 1.500.000€	>1.500.000 €
Bai	41,2	30	42,1	27	41,9	70
Ez	58,7	70	57,9	73	58,1	30

Normalizazioaren aldeko apustua egiten dutenek, neurri zehatzak hartu behar dituzte. Horrenbestez, neurriak azaltzearen alde agertzen diren erakundeek diote etorkizuneko beren proiektuen artean daudela hizkuntza-planak egitea, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak egitea, lanpostuen araberrako euskarako hizkuntza-eskakizunak definitzea, kanpo- eta barne-komunikazioa sustatzea... Dirudinez, dokumentazio ofizial guztia transkribatzen hastearren, kartelak elebitan egitearen, erakundearen webgunea elebitan argitaratzearen, prestakuntza-ikastaroak euskaraz zein gazteleraz eskaintzearen, publizitatea elebitan eskaintzearen, motibaziorako barne-jarduerak antolatzearen eta beste hainbat ekimenen aldeko apustua egiteko jarrera ere badago.

Nolanahi ere, erakundeen % 58,7k dio ez duela aurreikusten etorkizunean euskara bultzatzeko neurririk hartzea. Ildo horretan, badirudi erabakigarria dela erakundeetan euskaraz arduratzen den pertsonarik edo lantalderik eta Euskara Planik ez egotea, datuek erakusten duten bezala: euskara arduradunik ez duten erakundeen % 69,7k eta Euskara Planik ez duten erakundeen % 79,2k ez dute aurreikusten etorkizunean euskara bultzatzeko neurririk ezartzea.

7. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskararen aldeko neurririk aurreikusten duten, euskara planik eta euskara arduradunik duten kontuan hartuta (%).

Neurriak aurreikusita	Euskara arduraduna		Euskara Plana		
	Bai	Ez	Bai	Ekintzak bai	Ez
Bai	74,2	30,3	88,9	66,7	20,8
Ez	25,8	69,7	11,1	33,3	79,2
Guztira	100	100	100	100	100

Etorkizunera begira euskara bultzatzeko neurririk hartzea aurreikusten ez duen erakundeen % 58,7 horrek honako arrazoi hauek ematen ditu: erakundearen barruan euskara bigarren mailan uzten duten lehentasunezko beste gai batzuk dituztela; erakundearen barruan epe laburrean euskara normalizatzeko jarduerak gauzatu ahal izateko baliabide ekonomiko handiagoak beharko lituzketela, eta erakundeko pertsonen motibazio falta.

Datozen urteotan euskara normalizatzeko neurriak hartzearen aldeko apustua egitea aurreikusten duten erakundeen ehunekoa % 40 baino handixeagoa besterik ez izateak pentsarazten digu erakundeen hainbat **zailtasuni** aurre egin behar izaten diotela, erakundeen

barruan euskara sustatzeko ekintzak abiaraztea erabakitzen dutenean. Testuinguru soziolinguistikoarekin edo erakundearen hizkuntza-gaitasunarekin lotutako baldintzatzaileez gain, erakundeek aurrez adierazi ditugun eta jarraian laburbilduta azalduko ditugun hainbat faktoreekin lotutako zailtasunak aurkitzen dituzte:

- Hainbat baliabideren falta: batetik, aipatzekoa da beharrezkoa dela baliabide ekonomikoak inbertitzea erakundeetan euskara bultzatzeko (itzulpenak, seinaleak, kartelak, etab.). Beharrezkoak dira, gainera, langile-baliabideak (euskararen sustapenerako esleitutako baliabideak, gainerako langileen denbora), baita denbora inbertitzea ere. Aipatzen duten beste alderdi bat da ez dagoela sektorearekin lotuta euskaraz argitaratutako dokumentaziorik (informatikako programak, froga psikologikoak, eskuliburuak, etab.).
- Erakundeko pertsona batzuen euskararekiko jarrera: langileek, bazkideek edo zuzendaritza-taldeko kideek euskara ez jakitea edo euskararekiko motibaziorik ez izatea oztopo garrantzitsua da abian jartzen diren ekimenetarako. Jarrera batzuen atzean hizkuntza inposaketa gisa hautematen denean (administrazioaren exijentzia denean, esaterako) sortzen diren beldurra eta arbuioa daude.
- Ohitura falta: gaztelera erabiltzeko joera dago hedatuta erakundeetan, batez ere tradizio erdaldun handieneko lurraldeetan (Arabian, Bizkaian, hiri-inguruneetan...). Gaztelera "sortutakoa" itzultzearen konplexutasuna gehitu behar zaio horri. Askotan, aurreiritzietarako joera egoten da, hala nola erabiltzaileek ez dakitela euskara edo ez dutela ulertuko norbait euskaraz zuzentzen bazaie. Hortik sortzen den eta mahai-gainean jartzen den beste gai bat da euskarak, gaztelerekin konparatuta, status txikiagoa duela: hautematen da euskarari ez zaiola garrantzi bera ematen, eta bigarren mailako hizkuntzaren statusa duela.
- Kudeaketaren euskara lehenestearen aldeko apusturik eza: erakunde askorentzako, euskara ez da lehentasunezko gaia edo ez dago ezarrita erakundearen kudeaketan lehentasun gisa sartzearen aldeko apusturik. Esan bezala, erakunde askoren jatorria arazo eta behar sozialei erantzun nahi zieten herritarren mobilizazioekin lotuta egon da. Horregatik, askotan, EHSSeko erakundeak esku-hartze sozialera bideratuta egon dira batez ere, eta gai horri ematen diote lehenespena, beste gai batzuen gainetik.
- Nekea eta errelebo falta: oro har, bakarrik sentitu ohi dira erakundeetan euskara bultzatzeko ardura duten pertsonak, eta nekea eragiten die zailtasunei aurre egiteak eskatzen duen ahalegin handiak. Euskara bultzatzeko ardura duena lantalde bat denean ere, ez da erraza izaten beste pertsona batzuk erakartzea eta haiei erreleboa ematea; kontuan hartu behar da, gainera, lantalde horietako kide asko hasiera-hasieratik egoten direla. Luzea da euskararen aldeko ibilbidea, eta pazientzia behar da.

Zailtasun gisa identifikatu diren elementu horiek landu beharreko erronka gisa ere ulertu behar dira. Eta lan hori egiterakoan, beren egitekoa **errazten edo laguntzen** duten **elementuak** ere identifikatzen dituzte EHSSeko erakundeek.

Lana errazten duten elementutzat jotzen dira erakundeen barruan euskararen ezagupena edo sustapena bultzatzen dituztenak, eta prozesu horretan eragile edo pizgarri gisa jarduten dutenak. Elementu horiek kontuan izatea baliagarria izan daiteke erronkei aurre egiteko, indartzea edo sustatzea komeniko litzatekeen alderdien ikuspegi bat izateko aukera ematen baitu horrek.

- Erakundeko langileek euskara ezagutzea. Badirudi handitzen ari dela erakundeko kideen hizkuntza-gaitasuna, gero eta jende gazte gehiago ari baita sartzen sektoreko erakundeetan, eta horietako gehienek euskaraz egin dute beren hezkuntza-ibilbidea. Pertsona euskaldunak kontratatzea lagungarria da hizkuntza-normalkuntzarako bidean.
- Pertsona batzuen efektu eragilea: langile batzuek euskararekiko duten jarrera positiboa eta sentsibilitatea euskara bultzatzearen alde egin dezakeen funtsezko faktorea da. Bereziki garrantzitsua da, erakundearen barruan, euskararen gaian lidergoa beren gain hartuko duten eta erreferentziatzko pertsona bihurtuko diren eragileak edo bultzatzaileak egotea. Pertsona horiek dira dinamiketan aldaketak eragin ditzaketenak, besteak beste, erakundeko gainerako pertsona euskaldunak beraiengana euskaraz bakarrik zuzentzea sustatuz. Gainera, motibatuta dauden pertsona horiek beren indarrak eta ahaleginak batzen badituzte, beren sustapenaren eragina handiagoa izango da; batzorde gisa era daitezke formalki, eta egiturazko aldaketak bultzatzen dituzte.
- Zuzendaritza-taldearen apustua: funtsezkoa da zuzendaritza-taldeek euskararen aldeko jarrera izatea, haien inplikazioak euskara sustatzeko ekintzek garrantzi handiagoa izatea eragin ohi baitu. Gainera, zuzendaritza-taldeek erakundearen euskara bultzatzeko apustu sendoa egitea, euskara planak sustatzea eta kudeaketa estrategikoan euskara kontuan izatea, besteak beste, lagungarria izan daiteke euskararen erabilera eta normalizazioa hobetzeko.
- Erakundeak lan egiten duen ingurunea euskalduna izateak ere laguntzen du erakundeetan euskararen erabilera sustatzen. Euskararekiko sentsibilizazioa duen eta, gainera, euskara erabiltzen duen testuinguru euskaldun batek, eragin positiboa izaten du azkenean erakundeetan; izan ere, erakundeok hartzaile diren pertsonetikiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko eta beren jatorrizko eta jardun-eremu duten komunitatearekiko konexioa bilatzen dute.
- Administrazioak diru-laguntzak eskuratzeko edo zerbitzuak emateko EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea exijitzea ere elementu erraztailetzat jotzen da, erakunde batzuentzat “presio” positibo bat baita, euskararen erabilera handiagoa ekartzen duena. Beharrezkoa da exigentzia horrekin batera laguntzak eskaintzea, batez ere baliabide gutxiko erakundeei zuzendutakoak.
- Euskara-aholkularitza eskaintzen duten erakundeek kanpo-laguntza oso garrantzitsua da, batez ere laguntzak kudeatzeko eta euskara planak prestatzeko. Era horretako entitateek erakunde bakoitzaren egoerari egokitutako orientazioa eskaintzen dute, eta oso baliagarriak izan daitezke, erakunde barruan euskararen sustapena bermatzeko nahikoa baldintza betetzen ez direla uste duten erakundeetarako.
- Laguntza ekonomikoak: trebakuntzarako, materialak sortzeko, langileak euskara ikasteko liberatzeko, testuak itzultzeko, kartelak elebitan egiteko... Oinarri ekonomiko bat izateak erakundearen euskararen normalkuntzarako urrats handiagoak ematen laguntzen du.
- Lorpenak ezagutaraztea: euskararen aldeko lanean akidura-uneak egoten dira, eta une horietan garrantzitsua da lortzen ari dena ikusaraztea. Gelditu, eta balioa eman behar zaio –are, ospatu egin behar da elkarrekin– hasierako egoerarekiko aurrerapentzat jo daitezkeen hari.

5.3. Lurralde historikoen arteko analisi konparatiboa

Aurkeztu berri dugun EHSSeko erakundeen egoeraren argazki orokorraz gain, jarraian erakundearen egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoen arabera alde nagusiak erakutsiko ditugu.

Analisi konparatibo honen helburua da lurralde historiko bakoitzeko erakundeen errealitatea kokatzen diren ingurune soziolinguistikoaren testuinguruan kokatzea, eta errealitate zehatz horretan oinarritutako argazkia eskaintzea, hizkuntza-gaitasunari, euskararen erabilerari eta sustapenari dagokionez.

Kasu batzuetan, gainera, erakundeak Gipuzkoan duen presentziaren arabera datuen aldeak ere ematen dira; hau da, kontuan hartuta erakundearen egoitzetakoren bat Gipuzkoan al dagoen. Alderaketa horrek aukera ematen du Gipuzkoan egoitza duten erakundeek euskararen erabileran duten "difusio" efektua azaleratzea.

5.3.1. Inguruneko errealitate soziolinguistikoa

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoaren artean badaude aldeak, kontuan hartu behar direnak lurralde historiko bakoitzeko EHSSeko erakundeetan euskarak duen egoerari buruzko datuak ulertzeko.

Hasteko eta behin, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, lurralde historiko bakoitzeko biztanleen hizkuntza-gaitasunean alde nabarmenak daude: 16 urtetik gorako Gipuzkoako biztanleen % 50,6 euskalduna da; Bizkaian, berriz, % 27,6koa da datu hori, eta Araban % 19,2koa. Hau da, 16 urtetik gorako Gipuzkoako biztanleen erdia euskalduna da eta, aldiz, Bizkaiko biztanleen laurdena eta Arabako biztanleen bosten bat besterik ez da euskalduna.

Euskararen erabilera maila gaitasun maila baino dezente txikiagoa da hiru lurralde historikoetan, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera. Hala ere, Gipuzkoa nabarmentzen da kasu honetan ere, lurralde historiko hori baita euskararen erabilera handiena duena: biztanleen % 28,2k euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen du. Bizkaia kasuan, % 7,5koa da datu hori, eta % 1,7koa Araban. Hain zuzen ere, Arabako biztanleen % 78,3k eta Bizkaiko biztanleen % 70,2k beti erabiltzen du gaztelera.

2016an, kalean, erabilera informalean, Gipuzkoako biztanleen % 31,1ek erabiltzen zuen euskara; Bizkaian, berriz, % 8,8k eta Araban % 4,6k. Etxean, berriz, Gipuzkoako biztanleen % 28,6k, Bizkaiko biztanleen % 8,6k eta Arabako % 2,9k erabiltzen zuen euskara (beti euskara edo euskara gaztelera baino gehiago).

Lan-munduan, bestalde, EAE mailan biztanleen % 17,2k erabiltzen du batez ere euskara lankideekin; Gipuzkoan, berriz, % 28,7k. Bizkaian, biztanleen % 12,5k erabiltzen du batez ere euskara lankideekin, eta Araban, azkenik, % 6,9k besterik ez.

Azkenik, Arabako biztanleen % 53,4 azaldu den arren euskararen erabilera sustatzearen alde edo oso alde, datu hori % 62,2ra iristen da Bizkaian eta % 74,7ra Gipuzkoan.

5.3.2. Euskara-gaitasuna eta euskararen erabilera

Gure azterlanera itzuliz, eta erakundeko pertsonen **hizkuntza-gaitasunarekin** lotuta, sektoreko datuek agerian uzten dute aldeak daudela lurralde historikoen artean; egoitza nagusia Araban duten erakundeen % 20tan, erakundeko pertsonen erdia baino gehiago dira euskaldunak, datu hori % 33,9koa da Bizkaian, eta egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 55,6etan dira euskaldunak pertsonen erdia baino gehiago. Datu horiek bat datoz errealitate soziolinguistikoarekin, lurralde bakoitzeko hizkuntza-gaitasunari dagokionez.


Gainera, erakundeak bere egoitzetakoren bat Gipuzkoan duenean ere ikusten da pisu handiagoa dutela pertsona euskaldunek erakundeetan, Gipuzkoako lurralde historikoan presentziarik ez duten erakundeekin alderatuta (“difusio” efektua).

8. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko kideek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Euskara dakiten erakundeko pertsonak	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Pertsonen erdia baino gehiago	36,9	33,9	55,6	20	54,9	24,6
Pertsonen erdia baino gutxiago	63,1	66,1	44,5	80	44,8	75,4

Erakundeetako **soldatapeko pertsonen** dagokienez, ikusten da egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 72,4k dituela gehiengo euskaldunetz osatutako lantaldeak; Bizkaian, % 38,4ra jaisten da datu hori, eta % 33,4ra Araban. Hain zuzen ere, gehiengo erdaldunetz osatutako plantillak dituzte Arabako erakundeen % 62,5ek.

25. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko soldatapeko langileek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)



Boluntarioei dagokienez, Bizkaian eta Araban gehienbat boluntario “erdaldunak” izateko joera dagoela ikusten da; izan ere, Bizkaiko erakundeen % 56,6tan boluntario gehienak “erdaldunak” dira, eta Arabako erakundeen % 78,2tan boluntarioen erdia baino gutxiago da euskalduna. Gipuzkoan, ordea, erakundeen % 57,6tan euskalduna da boluntarioen erdia baino gehiago.

9. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko boluntarioek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Euskara dakiten boluntarioen pisua	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Pertsonen erdia baino gehiago	38,4	37	57,6	13
Pertsonen erdia	12,5	6,5	21,2	8,7
Pertsonen erdia baino gutxiago	49,1	56,6	21,3	78,2

Oro har, sektore honetako erakundeetako zuzendaritza-taldeetako kide gehienek ez dakite euskara. Hala ere, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen kasuan –Bizkaian eta Araban ez bezala– zuzendaritza-taldeetako kide gehienak euskaldunak diren erakundeen proportzioa handiagoa da: erakundeen % 65,8tan, zuzendaritza-taldeetako kideen erdia baino gehiago da euskalduna.

10. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara dakiten erakundeko zuzendaritza-taldeko kideek guztizkoarekiko duten pisuaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Zuzendaritza-taldean euskara dakiten pertsonen pisua	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Pertsonen erdia baino gehiago	33,1	24	65,8	10,3
Pertsonen erdia baino gutxiago	66,9	77	34,2	89,7

Egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeetan, euskararen **erabilera orokorra** handiagoa da, egoitza nagusia beste bi lurraldeetan duten erakundeetan baino. Egoitza nagusia Bizkaian eta Araban duten erakunde gehienetan (% 48,4 eta % 50, hurrenez hurren) gehiago hitz egiten da gazteleraz euskaraz baino; egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen kasuan, berriz, % 44,7tan neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera, eta % 26,3tan euskara da nagusi.

Argi dagoen arren euskararen erabilera askoz handiagoa dela Gipuzkoan, gaitasunaren eta erabileraren arteko distantzia ere mantentzen da (erakundeen % 55,6k ditu pertsona euskaldunak, eta erakundeen % 26,3tan da nagusi euskararen erabilera).

Egoitzetakoren bat Gipuzkoan duten edo ez kontuan hartuta dauden aldeak aztertzen ditugunean, euskararen erabilera nabarmen handiagoa da lurralde historiko horretan presentzia duten erakundeen kasuan, presentziarik ez dutenekin alderatuta.

11. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen erabilera orokorrean erabilitako hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Erakundearen orokorrean erabiltzen den hizkuntza	erabilera erabiltzen den	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
			Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Euskara nagusi		9,3	3,2	26,3	0	19,3	1,5
Hizkuntza biak neurri berean		30,8	27,4	44,7	17,9	42,1	22,4
Gaztelera nagusi		60	69,4	28,9	82,1	28,6	76,2

Herritarrei zuzendutako zuzeneko informazio-zerbitzuei dagokienez, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 53k kasuen erditan baino gehiagotan erabiltzen du euskara herritarrei arreta-zerbitzua edo telefono bidezko zerbitzua ematerakoan. Datu askoz txikiagoa da Bizkaian (% 19) eta Araban (% 4). Hain zuzen ere, egoitza nagusia Araban eta Bizkaian duten erakunde gehienetan (Arabako erakundeen % 96tan eta Bizkaikoen % 81etan), egunean zehar zerbitzu horiek ematen diren erditan baino gutxiagotan erabiltzen da euskara.

12. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuetan egunean zehar euskara erabiltzen den aldien arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Informazio-zerbitzuetan zenbat aldiz erabiltzen den euskara egunean zehar	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Erditan baino gehiagotan	25,5	19	53	4
Erditan baino gutxiagotan	74,5	81	47	96


Horrekin oso lotuta, ikusten da egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 66,6tan, herritarrei zuzeneko informazioa emateko zerbitzuan lan egiten duten pertsonen erdiak baino gehiagok dakiela euskara (ekipamenduan bertan edo telefono bidezko arreta-zerbitzuan); egoitza nagusia Bizkaian duten erakundeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 40,7koa da, eta % 25ekoa egoitza nagusia Araban duten erakundeena.

13. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuan lan egiten duten pertsona euskaldunen pisuaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Informazio-zerbitzuetan lan egiten duten eta euskara dakiten pertsonen pisua	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Pertsonen erdia baino gehiago	45	40,7	66,6	25
Pertsonen erdia baino gutxiago	55	59,3	33,3	75

Gainera, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 44,4k euskara du lehentasunezko hizkuntzatzat ezarrita zerbitzu horietan; Bizkaiko erakundeen kasuan, ordea, % 14,3k bakarrik du euskara hizkuntza nagusitzat ezarrita.

26. GRAFIKOA: Sektoreko erakundeen banaketa, herritarrenganako zuzeneko informazio-zerbitzuetan lehentasunezko zatiz ezarritako hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)



Erakundearen komunikazio-arloetako euskararen erabilera aztertuz gero, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeek datuek erakusten dute euskararen erabilerarako joera handiagoa dela komunikazio-arlo guztietan, beste bi lurralde historikoetako erakundeekin alderatuta, baina idatzizko kanpo-komunikazioan da bereziki handia euskararen erabilera-tasa.

Ahozko kanpo-komunikazioan (hornitzaileekiko, erabiltzaile eta familiekiko, herri administrazioarekiko, etab.), oso hedatuta dago euskararen presentzia, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeetan: erakundeek % 35,9tan euskara da nagusi, eta erakundeek beste % 35,9tan neuri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera. Egoitza nagusia Bizkaian eta Araban duten erakundeetan, ordea, badirudi euskararen presentzia askoz txikiagoa dela ahozko kanpo-komunikazioan; izan ere Bizkaiko erakundeek % 4,3tan eta Arabako erakundeek % 6,9tan erabiltzen da nagusiki euskara.

Kasu honetan, alde nabaria markatzen du egoitzetakoren bat Gipuzkoan izateak: Gipuzkoan egoitzarik ez duten erakundeek % 2,6tan bakarrik da euskara ahozko kanpo-komunikazioko hizkuntza nagusia; erakunde horietako gehienetan (% 79,1) gaztelera gailentzen da.

14. TAULA: Sektoreko erakundeek banaketa, erakundearen ahozko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Ahozko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntza	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Euskara nagusi	14,3	4,3	35,9	6,9	31,6	2,6
Hizkuntza biak neuri berean	25,7	24,3	35,9	17,2	36,8	19,5
Gaztelera nagusi	60	71,4	28,2	75,8	31,5	79,1

Idatzizko kanpo-komunikazioan (irudia, errotulazioa, liburuxkak, webguneak, etab.) elebitasunaren alde egiten duten arren hiru lurralde historikoetako erakunde gehienek,

azpimarratzekoa da egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 47tan euskara dela nagusi, eta datu hori % 16,7koa eta % 12,6koa dela, hurrenez hurren, egoitza nagusia Bizkaian eta Araban duten erakundeen kasuan. Kasu honetan ere, beraz, euskararen presentzia Gipuzkoan baino txikiagoa da Bizkaian eta Araban.

15. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen idatzizko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Idatzizko kanpo-komunikazioan erabiltzen den hizkuntza	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Euskara nagusi	25,9	16,7	47	13	40	15,5
Hizkuntza biak neurri berean	44,6	46,3	47,1	39,1	50	39,7
Gaztelera nagusi	29,5	37,1	5,9	47,8	10	44,8

Erakundearen egoitzetakoaren bat Gipuzkoan edukitzeak edo ez edukitzeak ez du ahozko kanpo-komunikazioaren kasuan adinako alde nabarmenik markatzen. Egoitzetakoaren bat Gipuzkoan duten erakundeen % 40tan euskara da nagusi, eta datu hori % 15,5koa da Gipuzkoan presentziarik ez duten erakundeen kasuan.

Ahozko barne-komunikazioan (langileen artean, batzarretan, etab.) gaztelera gailentzen den arren hiru lurralde historikoetako erakundeetan, aipatzekoa da Gipuzkoan handiagoa dela euskaraz gaztelera baino gehiago hitz egiten den erakundeen pisua, gainerako lurraldeekin alderatuta.

16. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen ahozko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Ahozko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntza	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Euskara nagusi	10,8	4,3	23	6,8	21,1	3,9
Hizkuntza biak neurri berean	14,3	11,4	23,1	10,3	22,8	9,1
Gaztelera nagusi	75	84,2	53,9	82,8	56,1	87

Gainera, lehenengo bi kategoriak batuta (euskara nagusi eta hizkuntza biak neurri berean), ikusiko dugu EAEko datuaren (% 25,1) eta Gipuzkoakoaren (% 46,1) arteko aldea 21 puntukoa dela eta hori oso alde handia da euskararen erabilera bezalako gai batean, eta gainera lan-arloan, aurrez azaldutako arrazoiengatik. Era berean, 30 puntuko aldea dago Bizkaian (% 84,2) eta Araban (% 82,8) gaztelera nagusi den erakundeen eta Gipuzkoakoaren (% 53,9) artean.

Halaber, Gipuzkoan egoitzaren bat duten erakundeetan, lurralde horretan presentziarik ez duten erakundeetan baino gehiago erabiltzen da euskara ahozko barne-komunikazioan.

Idatzizko barne-komunikazioan (soldata-agiriak eta kontratuak, idazkiak eta agiriak, etab.) gaztelera da nagusi egoitza nagusia Bizkaian eta Araban duten erakundeetan (Bizkaiko erakundeen % 84,3tan eta Arabako erakundeen % 95,2tan). Egoitza Gipuzkoan duten erakundeen zati handi batek ere gaztelera erabiltzen du nagusiki idatzizko barne-

komunikazioan, baita kontuan izan behar erakunde horien % 35,9k neurri berean erabiltzen dituela euskara eta gaztelera, eta beste % 20,5ek euskara erabiltzen duela nagusiki.

Kasu honetan, nagusiki gaztelera erabiltzen duten Bizkaiko (% 84,3) eta Arabako (% 86,2) erakundeen eta Gipuzkoakoen (% 43,6) arteko aldea, ahozko barne-komunikazioan baino are handiagoa da: 40 puntukoa, hain zuzen ere.

17. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, erakundearen idatzizko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntzaren arabera. Guztizkoa, egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera, eta erakundeak Gipuzkoan presentziarik duen edo ez kontuan hartuta (%)

Idatzizko barne-komunikazioan erabiltzen den hizkuntza	EAE	Egoitza nagusia			Gipuzkoan presentzia	
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bai	Ez
Euskara nagusi	9,3	4,3	20,5	3,4	4,9	3,9
Hizkuntza biak neurri berean	17,9	11,4	35,9	10,3	31,6	9,1
Gaztelera nagusi	72,9	84,3	43,6	86,2	50,9	87

lido berean, nabarmenak dira erakundearen egoitzaren bat Gipuzkoan izatearen arabera aldeak ere, ez horrenbeste euskararen nagusitasunean, baina bai, ordea, idatzizko barne-komunikazioan euskararen eta gaztelararen erabilera proportzionatua. Gipuzkoan presentzia duten erakundeen % 31,6k neurri berean erabiltzen ditu euskara eta gaztelera, eta % 9,1ekoa da datu hori lurralde historiko horretan presentziarik ez duten erakundeen kasuan. Gainera, azkeneko erakunde horien % 87tan, gaztelera gailentzen da idatzizko barne-komunikazioan.

5.3.3. Euskararen sustapena

Euskararen sustapenean ere badaude aldeak lurralde historikoaren arabera, nahiz eta alde horiek ez diren euskara-gaitasunaren eta euskararen erabileraren kasuan dauden adinakoak.

Aldeak ikusten dira azkeneko urteetan **euskararen sustapenarekin lotutako neurri edo ekintzaren** bat abian jarri izanari dagokionez; izan ere, egoitza nagusia Gipuzkoan eta Bizkaian duten erakundeak dira, batez ere (erakunde horien % 60,5 eta % 56,5) era horretako neurri edo ekintzaren bat abiarazi dutenak. Aitzitik, egoitza nagusia Araban duten erakundeen ehuneko handiago batek (% 75ek) oraindik ez du era horretako ekimenik egin. Kasu honetan, adierazi behar da Gipuzkoako eta Bizkaiko datuen arteko aldea ez da gaitasunari eta erabilerari dagozkien datuen artekoa bezain handia.

18. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskararen sustapenarekin lotutako neurri edo ekintzarik abian jarri duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Neurriak edo ekintzak martxan jarri dira	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bai	50,8	56,5	60,5	25
Ez	49,2	43,5	39,5	75

Lurralde historikoen arteko aldeak erakusten dituen beste alderdi bat da erakundearen, datuak modu objektiboan biltzen dituen galdetegi baten bitartez, **euskararen erabileraren neurketa** egin dituzten erakundeei dagokiena. Egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeak dira erabilerari

hori proportzio handiagoan neurtzen dutenak (% 29,7); Bizkaiko erakundeen kasuan % 15,6koa da datu hori, eta % 4,2koa Arabakoenean.

19. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara-erabilera neurtzen duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Euskararen erabileraren neurketa	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bai	18,1	15,6	29,7	4,2
Ez	81,9	84	70,3	95,8

Bizkaiko (% 29,7) eta Gipuzkoako (% 32,4) lurralde historikoak dira euskara **arduradun bat edo lantalde bat** duten erakundeen ehuneko handienak dituzten lurraldeak. Araban, erakundeen % 13k du euskara arduraduna.

20. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara arduradun bat edo lantalde bat duten edo ez kontuan hartuta. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Euskararen gaiaz arduratzen den pertsona edo lantaldea	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bai	27,8	29,7	32,4	13
Ez	72,2	70,3	67,6	97

Erakundeetan **hizkuntza-irizpideak** ezartzeari dagokionez, alde nabaria dago egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera: egoitza nagusia Araban duten erakundeen % 81,8k ez du hizkuntza-irizpiderik ezarrita. Gipuzkoan, ordea, erakundeen % 28,9k ditu ezarrita hizkuntza-irizpideak, eta % 34,2k horrekin lotutako ekintzaren bat egiten, idatziz formalizatuta ez dagoen arren; Bizkaian, berriz, erakundeen % 25ek ditu hizkuntza-irizpideak eta beste % 25ek horrekin lotutako ekintzaren bat egiten du, idatziz formalizatuta ez egon arren.

21. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, hizkuntza-irizpiderik ezarrita dutenaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Hizkuntza-irizpideak ezarrita	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bai	22,2	25	28,9	4,5
Horrekin lotutako ekintzak bai	25,4	25	34,2	3,6
Ez	52,4	50	36,8	81,8

Datuek erakusten dutenez, egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeek euskara **langileak hautatzeko** baldintza gisa baloratzeko joera handiagoa dute egoitza nagusia Bizkaian eta, batez ere, Araban duten erakundeekin alderatuta. Deigarria da honako datu hau: egoitza nagusia Araban duten erakundeen % 35etan euskara ez da kontuan hartzen prozesu horietan.

22. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, langileak hautatzeko prozesuetako euskararen balorazioaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Langileak hautatzeko prozesuetan euskara baloratzea	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Eskakizuna da lanpostu guztietarako	26,4	21,7	43,2	13
Eskakizuna da lanpostu batzuetarako	19	21,7	21,6	8,7
Eskakizuna da lanpostu batzuetarako eta merezimendua beste batzuetarako	10,7	13,3	8,1	8,7
Merezimendua da lanpostu guztietarako	18,2	16,7	21,6	17,4
Merezimendua da lanpostu batzuetarako	6,6	6,7	0	17,4
Ez da kontuan hartzen	19	20	5,4	34,8

Egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeen % 54,3tan presentzia nahikoa edo handia du euskarak **plan estrategikoetan edo kudeaketa planetan**; Bizkaiko eta Arabako erakundeen kasuan, berriz, asko jaisten da datu hori (% 8,6 erakundetan eta % 4,3tan, hurrenez hurren). Hain zuzen ere, azpimarratzekoa da egoitza Araban duten erakundeen % 73,9tan eta egoitza nagusia Bizkaian dutenen % 41,3tan euskarak ez duela batere presentziarik plan horietan.

23. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskarak beren Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean duen presentziaren arabera. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Euskararen presentzia plan estrategikoan edo kudeaketa planean	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Handia	6,5	0	20	0
Nahikoa	25,2	8,6	34,3	4,3
Ez handia, ez txikia	13	11,1	20	8,7
Txikia	15,4	19	11,4	13
Batere ez	39,8	41,3	14,3	73,9

Ikusten denez, Gipuzkoak (erakundeen % 21,1) eta Bizkaiak (erakundeen % 17,7) dute formalizatutako **euskara plana** duten erakundeen proportzio handiagoa dute Arabarekin alderatuta, azken lurralde horretako erakundeen % 4,2k baitu era horretako planen bat, nahiz eta beste % 16,7k egiten dituen euskararekin lotutako ekintzak.

24. TAULA: Sektoreko erakundeen banaketa, euskara plana duten kontuan hartuta. Guztizkoa, eta egoitza nagusia kokatzen den lurralde historikoaren arabera (%)

Euskara Plana	EAE	Egoitza nagusia		
		Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Bai	15,9	17,7	21,1	4,2
Ekintzak bai	20,6	21	23,7	16,7
Ez	63,5	61,3	55,3	79,2

5.4. Diagnostikoaren laburpena eta ondorioak

Diagnostikoaren datuek erakutsi dute EHSSeko erakundeetako euskararen ezagutza maila erakundeetan egiten den **euskararen erabilera** baino handiagoa dela. Horrek esan nahi du jauzi bat dagoela erakundeetako pertsonen duten **hizkuntza-gaitasunaren** eta erakundeetan egiten den euskararen erabileraren artean.

Badirudi argi dagoela badaudela erakundeetan euskararen erabilera baldintzatzen duten faktore batzuk; horien artean, azpimarratzekoak dira erakundeen jardueraren izaera, erakundeen eginkizunaren xede den kolektiboa eta ingurune soziolinguistikoa. Elementu baldintzatzaile horiek euskararen normalkuntzarako aldeko edo kontrako testuinguruak sortzen dituzte, eta kontuan izan behar dira EHSSeko erakundeetan euskararen erabilera bultzatzeko martxan jartzen diren estrategietan.

Dirudenez, euskararen erabilerarekin lotutako aurrerapen handiak egin dira azkeneko urteetan **idatzizko kanpo-komunikazioan**; komunikazioaren arloa da erakundeetan euskarak presentzia handiena duen arloa.

Erakunde askok itzulpen-zerbitzuak kontratatzen jo dute aurrerapen horiek lortzeko eta, beraz, gai horietarako finantzazioa eskuratzeko zailtasun handienak dituzten erakundeak dira (eskuarki, egitura profesional murrizteko erakundeak), alderdi horri dagokionez, oraindik hobetzeko aukera handiagoa dutenak.

Halaber, datuek agerian uzten dute oraindik lan handia dagoela egiteko **ahozko zein idatzizko barne-komunikazioan**, EHSSeko erakundeen arlo horietan bereziki eskasa baita euskararen presentzia eta dirudenez ez baitaia ematen euskarari kanpo-komunikazioan ematen zaion garrantzi bera.

Zehazki, adierazten da ahozko barne-komunikazioan dituztela erakundeek oztoporik handienak, honako elementu hauekin lotutakoak:

- lan-harremanetan, oro har, eta euskara ez dakiten pertsonak aurrean daudenean, bereziki, gaztelera erabiltzeko ohitura dago errotuta;
- euskara estatus txikiagoko hizkuntza den aurreiritziak, eta euskara pertsona-profil jakin batzuekin lotzeko joera, beste batzuk ikusezin bihurtuz;
- oro har, euskara modu errazean erabiltzeko gaitasun falta eta, zehazki, esku-hartze sozialeko prozesuetan inplikaturako elkarrizketa-estrategietarako beharrezkoak diren hizkera teknikoarekin, segurtasunarekin eta hizkuntza ondo menderatzearekin lotutako zailtasunak;
- pertsona batzuek euskararekiko duten sentsibilizazio eta motibazio falta, askotan, defentsa-jarrerak hartzen bultzatzen dituen eta, bereziki, zuzendaritza-taldeko kideen inplikazio falta.

Sektoreko erakundeen % 37tan, erakundeeko pertsonen erdiak baino gehiagok daki euskara. Erakundeen % 47,1etan soldatapeko langileen erdia baino gehiago da euskalduna. Euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza erakundeen % 9,3tan.

Erakundeen % 45etan, euskara eta gaztelera neurri berean erabiltzeko joera dago idatzizko kanpo-komunikazioaren kasuan.

Erakundeen % 75etan gaztelera da ahozko barne-komunikazioko hizkuntza nagusia, eta % 70etan gaztelera egiten da batez ere idatzizko barne-komunikazioa.

Kontsultatutako erakundeen erdiak gutxi gorabehera jarri ditu abian euskara **bultzatzeko eta sustatzeko neurriak**, orokorrean euskararen ardura duten pertsonak edo lantaldeek bultzatuta, haiek baitira funtsezko eragileak lan hori normalizatzeko eta zeharkakotasuna emateko zereginen. Erakunde horietako askok ezartzen dute euskara baldintza edo eskakizun gisa lanpostu guztietarako edo batzuetarako, bai eta beren ildo estrategikoen artean ere.

Erakundeetako batzuek hizkuntza-irizpideak ere ezarri dituzte, eta beste batzuek euskararen aldeko beren ekintzak Euskara Plan batean zehaztea lortu dute (batez ere tamaina handienekoek). Nolanahi ere, badirudi argi dagoela neurriak edo ekintzak abian jartzea onuragarria dela euskarak EHSetako erakundeetan duen presentzia hobetzeko.

Erakundeen % 27,8k du euskaraz arduratzen den pertsona edo lantalde bat (milioi eta erdi eurotik gorako diru-sarrerara bolumena duten erakundeen kasuan, % 68k).

Erakundeen % 45,4tan, euskara lanpostu guztietarako edo batzuetarako eskakizuna da.

Erakundeen % 32tan, euskarak presentzia nahikoa edo handia hartzen du Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean.

Erakundeen % 22,2k ditu ezarrita hizkuntza-irizpideak.

Erakundeen % 16k du Euskara Plana.

Espero zitekeen bezala, **hiru lurralde historikoek** beren errealitate soziolinguistikoekin bat datozen hizkuntza-gaitasun eta euskararen erabilera mailak aurkezten dituzte. Horrela, euskararen erabilera handiagoa da egoitza nagusia Gipuzkoan duten erakundeetan, eta egoitzetakoren bat Gipuzkoan izateak ere bultzatu egiten du euskararen erabilera erakundeko ahozko komunikazioan (barne- zein kanpo-komunikazioan).

Gipuzkoako erakundeen % 26,3tan, euskara da hizkuntza nagusia (batez bestekoa % 9.3koa da).

Hala ere, eta euskararen sustapenari dagokionez, Gipuzkoako eta Bizkaiko erakundeen arteko distantzia ez da gaitasunari eta erabilerari dagokienez erregistratutakoa bezain handia. Hain zuzen ere, Bizkaian, tradizionalki erdaldunagoak izan diren lurralde-inguruneetan, euskara sustatzeko ahalegin handiak egiten ari dira erakundeak. Bestalde, egoitza nagusia Araban duten erakundeen datuek erakusten dute oraindik ez dela egin euskara bultzatzeak duen garrantziari buruzko hausnarketarik.

Etorkizunera begirako datuek ohartarazten dute esanguratsua dela epe laburrean euskara normalizatzeko neurriak bultzatzearen aldeko apustua egiten jarraitzeko asmoa duten erakundeen ehunekoa, baina oraindik oso handia da neurririk hartzeko aurreikuspenik ez duten erakundeen ehunekoa ere. Horren arrazoien artean, honako hauek nabarmen daitezke:

- baliabide ekonomiko eta denbora faltak eragindako estualdia;
- *a priori* tradizionalki ekintzara eta eguneroko larrialdi egoeretara bideratutako erakundeen lehentasunezko agendan sartuta ez dagoen gai bati tokitxo bat egiteak eskatzen duen lan neketsuaren ondoriozko akidura;
- neurri horiek ezartzeko lidergoa hartzen duten eta erreleboa aurkitzea zail egiten zaien konprometitutako pertsona gutxi horiek sentitzen duten bakardadea eta aintzatespen falta.

Horrenbestez, aparteko garrantzia dauka sustapenerako neurriak ezartzeak, bide horretan lanean diharduten erakundeei orain arte egindako ibilbidea alde batera laga ez dezaten laguntzera bideratutakoak, zein hainbat arrazoiengatik –beharrezko hausnarketarik ez dutelako egin, nola eta nondik hasi ez dakitelako, bidea zailegia izango den beldur, etab.– oraindik bide horri ekin ez dioten erakundeei laguntzera bideratutakoak.

Azkenik, EHSSeko euskararen erabilera eta sustapenaren diagnostikotik eratorritako adierazle nagusiak jasotzen dituen laburpen-taula bat aurkezten da jarraian, sektoreko erakundeei euskarak EHSSean duen egoera modu laburrean ikusteko eta, gainera, erakunde gisa beren burua sektorean kokatzeko lagun diezaiekeena.

Eremua	Adierazlea	EHSSeko erakundeak
Hizkuntza-gaitasuna	Plantilla oso euskalduna duten erakundeen tasa	47,1
	Boluntario-talde oso euskaldunak dituzten erakundeen tasa	38,4
	Zuzendaritza-talde oso euskaldunak dituzten erakundeen tasa	33,9
Erabilera orokorra	Erabilera orokorrean euskara gailentzen den erakundeen tasa	9,3
	Herritarrenganako arreta-zerbitzuetako lehentasunezko hizkuntzatat euskara duten erakundeen tasa	19,5
	Herritarrenganako arreta-zerbitzuetan plantilla oso euskalduna duten erakundeen tasa	45
	Herritarrenganako arreta-zerbitzuetan euskara asko erabiltzen duten erakundeen tasa	25,5
Euskararen erabilera komunikazioan	Idatziko barne-komunikazioko hizkuntza nagusitzat euskara duten erakundeen tasa	9,3
	Ahozko barne-komunikazioko hizkuntza nagusitzat euskara duten erakundeen tasa	10,8
	Idatziko kanpo-komunikazioko hizkuntza nagusitzat euskara duten erakundeen tasa	25,9
	Ahozko kanpo-komunikazioko hizkuntza nagusitzat euskara duten erakundeen tasa	14,3
Euskara sustatzeko neurrien egoera	Euskararen sustapenarekin lotutako neurri edo ekintzaren bat abian jarri duten erakundeen tasa	50,8
	Euskara sustatzera bideratutako laguntza ekonomikoren bat jaso duten erakundeen tasa.	34,4
	Euskararen erabilera neurtzen duten erakundeen tasa	18,1
	Euskaraz arduratzen den pertsona edo lantalde bat duten erakundeen tasa	27,8
	Langileak hautatzeko prozesuetan euskara jakitea baldintzatat ezartzen duten erakundeen tasa	45
	Beren Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean euskarari presentzia handia ematen dioten erakundeen tasa	32
	Euskara plana duten erakundeen tasa	15,9
	Hizkuntza-irizpideak ezarrita dituzten erakundeen tasa	22,2
	Euskararekin lotutako ziurtagiriren bat duten erakundeen tasa	15

6. JARRAIBIDEAK

6.1. EHSeko erakundeetarako jarraibideak: zer egin dezakegu?

Atal honetan, EHSean euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeko eta areagotzeko ideiak jasotzen dira, kontuan hartuta beharrezkoa dela euskararen normalkuntzaren aldeko apustua egiten ari diren erakundeei laguntzea zein horretarako planteamendua egiten ari direnak eta oraindik euskararen garrantziaz ohartu ez direnak erakartzea.

Idea horiek hartu behar dira ikerkuntzaren faseetakoren batean edo batzuetan kolaboratu duten erakundeek identifikatutako arrastoak edo jarraibideak bezala; beraz, sektoreak eta sektorerako pentsatutakoak dira.

Bi multzo handitan banatu dira arrasto horiek: sektoreko erakunde barruko lanari dagokien jarraibideak (erakunde barrura begira) eta sektoreko erakunde guztiei eta beste eragile batzuei dagozkienak (erakundetik kanpora begira).

Erakunde barrura begira:

- Erakundeetan euskara bultzatzeak eta sustatzeak dakartzan **onurak** azpimarratzea, erabiltzaileekiko eta familiekiko harremanari eta konplizitateari dagokionez, garrantzi sozialeko helburuen gaineko erakundeen balioekin, misioarekin eta inpaktuarekin lotuta, finantzatzaileekiko harremanekin lotuta, erakundearen irudiari lotuta...²⁹
- **Neurri erraz** eta irudimentsu batzuek duten inpaktu positiboa erakustea eta horiei balioa ematea; hala nola astero kafe-orduak euskaraz egiteak edo telefonoz euskaraz erantzuteak³⁰. Euskararen sustapenak inbertsio ekonomiko handia eskatzen duela pentsatzeko joera dago; hala ere, erakunde askok jarri dituzte abian ekimen soilak, inbertsio ekonomiko handirik egin gabe.
- **Erabiltzaileen eta haien familien** artean euskararen erabilera sustatzea, ekintza formalen (euskara-trebakuntza, euskalduntze-ikastaroak, etab.) eta informalagoen bitartez, hala nola erakunde barruan egiten diren jarduerak euskaraz egiteko, euskararekin lotutako ospakizunetan eta lehiaketetan parte hartzeko aukera ematea, etab.
- Erakundeko pertsonak etengabe eta jarduerak dibertsifikatuz **motibatzea**. Erakundeko ahalik eta jende gehiena inplikatzeko bilatzen duten jarduerak egiteak –hala nola ospakizunak (euskararen eguna, Korrika...) eta saridun lehiaketa txikiak (udako oporretan euskaraz idatzitako postalak)– erakundean euskararen presentzia ikusarazten eta erakundea osatzen duten pertsonen motibazioa areagotzen laguntzen dute. Gainera, erakundea osatzen duten pertsonen hizkuntza-profila ezagututa, motibazio-ekintzak taldekatu egin daitezke, eta pertsona bakoitzari ekintza horietan parte hartzeak eskatzen dion ahalegina aitortu. Halaber, gomendagarria dirudi jarduera horiek berritzen joatea, monotonia sentsaziorik ez sortarazteko. Funtsezkoa da dagoeneko

²⁹ Txostenak euskararen onurei buruzko berriazko atala du. Ikus Zergatik eta zertarako bultzatu euskara hirugarren sektore sozialeko erakundeetan?

³⁰ "Euskararen sustapeneko esperientziei eta jardunbide egokiei" buruzko berriazko atal bat jasotzen du txostenak.

motibatuta dauden pertsonak beste batzuk motibatzen inplikatzeari ere, ekimenak zuzentzen dituen talde eragileari bere lanean lagunduz.

- **Euskara ez dakiten** erakundeko pertsonak inplikatzeari. Motibazioa erakundeko pertsona guztiengana iritsi behar da, euskara bultzatzeak duen garrantzia uler dezaten eta euskararen erabilera eta sustapenean inplika daitezkeen. Baina bereziki gomendagarria da pertsona erdaldunak euskararen aldeko ekintzetara erakartzea, behartu gabe, baina gonbidatuta senti daitezela ziurtatuz.
- Erakundearen barruan pertsonak **euskalduntzen** laguntzea, barne-ikastaroen bitartez, orduak liberatuz edo kanpo-ikastaroetarako laguntza ekonomikoak emanez. Horrek erakundeko pertsonen hizkuntza-gaitasuna hobetzen laguntzen du eta, ondorioz, baita euskararen erabilera hobetzen ere. Gainera, euskara lanpostu berrietarako eskakizun bihurtzen bada (kontratatorako, barne-sustapenerako), euskarazko hizkuntza-gaitasuna neurri handiagoan areagotzea bermatzen da.
- Erakundeko zuzendaritza-taldeko pertsonen **konpromisoa** eta inplikazioa lortzea, euskara bultzatzeko eta sustatzeko eginkizunetan. Funtsezkoa da haien inplikazioa, eta "hedatze-efektu" handia izaten dute erakundeko gainerako pertsonengan.
- **Euskara batzordea edo talde eragilea** formalizatzea, euskara bultzatzeko ahaleginak bere inguruan bilduko dituen. Gainera, batzorde edo talde horrek arduradun edo lider jardungo duen pertsona bat baldin bada, errazago gauzatuko du bere egitekoa.
- Erakundeko pertsona euskaldunak identifikatzea. Formalizazio-prozesuko lehendabiziko eginkizunetako bat da euskara dakiten pertsonak zein diren jakitea. **Diagnostiko** batek erakundea zer egoeratan dagoen jakiteko aukera ematen du: zenbatek dakiten euskara, zenbatek erabiltzen duten eskuarki, gaiarekiko zer nolako sentsibilitatea duten, etab. Hainbat tresna erabilita –inkestak eta elkarrizketak, besteak beste–, erakundeak informazio hori eskuratu eta erakundearen errealitate linguistikoa azter dezake. Hortik abiatuta, hizkuntza-irizpideen arabera defini daitezke lanpostuak, profil ezberdinentzako motibazio-neurriak erabakitzen hasi, eta helburu zehatzak ezarri. Gainera, diagnostiko hori aldizka eguneratuta, erakundearen barruan euskararen hizkuntza-gaitasunari eta erabilerari dagokionez, pertsonak izaten ari diren bilakaerari buruzko informazio baliotsua eskuratuko du erakundeak eta, era horretan, neurri berriekin lotutako erabakiak hartzeko moduan egongo da.
- Diagnostiko bat eginda, eta diagnostiko horrek erakundeko pertsonak euskarari dagokionez duten egoerari buruz eskaintzen duen informazioarekin, erakundeek hizkuntza-normalkuntzarako **lan-ildo bereziak** ezar ditzakete, erakundea osatzen duten pertsona-taldeen arabera: soldatapeko langileak, boluntarioak, zuzendaritza-taldeak eta batzordekideak. Gainera, lan-ildo edo estrategia horiek definitzeko, funtsezkoa da erakundearen euskara normalizatzeko aukerak baldintzatzen dituzten elementuak edo faktoreak kontuan izatea; faktore horiek zerikusia izaten dute erakundearen jarduerarekin, erakundearen lanaren edo zerbitzuen xede diren kolektiboekin, eta erakundea kokatuta dagoen ingurune soziolinguistikoarekin.
- **Helburuak ezartzea eta neurtzea.** Behin egoeraren diagnostikoa egin ondoren, euskarari dagozkion helburu zehatzak ezartzea planteatu dezakete erakundeek. Helburu horiek izan behar dira progresiboak (epe labur eta ertainera begirako asmoekin); adierazle batzuen bitartez neur daitezkeenak, bilakaera ikusi ahal izateko; eta lorgarriak,

hots, erakundearen egoeraren diagnostikoaren arabera errealistak. Helburuak neurtzeak, gainera, lorpenak ikusgarri bihurtzea bermatzen du nolabait eta, horri esker, indarrak hartzea, zailtasunik falta ez den bide luze horretan.

- **Euskara plana** egitea, xehetasunez jasoko dituen euskarari buruzko erakundearen planteamenduak, ezartzen diren helburuak, eta helburu horiek lortzeko sustatuko diren neurriak eta ekintzak. Nolabait, helburuen jarraipenerako berme gisa jokatzeko du euskara planak, eta zeregin horretan benetan funtsezkoa da euskara batzordearen eginkizuna.
- **Hizkuntza-irizpideak** ezartzea. Hizkuntza-irizpideen zehaztapenak erakundearen zeregin ezberdinetan jarduteko moduari buruzko jarraibide gisa jokatzeko du: jendearenganako informazio- eta arreta-zerbitzuetan, testuen aurkezpenean, telefono bidezko arretan, hornitzaileekiko harremanetan, etab.
- Erakundearen **plan estrategikoan eta/edo kudeaketa planean** euskara sartuta, espazio eta status propioa ematen zaizkio erakundearen barruan. Aintzatespen formala inplikatzeko du, eta koherentzia eta zilegitasuna ematen zaizkio euskara bultzatzeko egiten den lanari.
- Euskara sustatzeko ekintzak abian jartzeko dauden **laguntza ekonomikoak identifikatzea**. Euskara bultzatzeko dauden diru-laguntza eta laguntza ekonomikoko iturriak identifikatuta izatea oinarritzokoa da abian jarri nahi diren ekintzak antolatzeko.

Kanpora begira:

- Erakundeetan euskara sustatzeko dauden baliabide erabilgarriak buruzko informazioa biltzea eta **hedatzea**, EHSSeko erakundeek euskararen sustapena planifikatzeko, aplikatzeko eta neurtzeko moduari buruzko informazioa eskura izan dezaten, eta arrakasta izan duten adibideak ezagut ditzaten³¹. Zehatzago, EHSSean euskararako webgune bat sortzeko aukera balora liteke, informazio erabilgarria eskaintzeko eta gaiarekin lotutako informazioa elkartrukatzeko interesa duten erakundeen arteko harremanetarako plataformatzat balio izateko.
- Sektoreko erakundeen aurrez aurreko **topaketak** sustatzea, ideiak eta esperientziak partekatze espazioak sortuz eta euskararen alde sensibilizatuta dauden erakundeen arteko eta oraindik euskarara horrenbeste hurbildu ez diren arteko sinergiak bultzatuz. Erakunde askok ez dakite nola eta zer egin beren entitateetan euskara bultzatzeko eta sustatzeko, eta topaketa-espazio horietan parte hartuta, beste erakunde batzuek egiten ari direna entzun eta ideiak har ditzakete. Topaketa horiek eta esperientzia handiago erakundeen berariazko beste topaketa batzuk lagungarriak izan daitezke, besteak beste, euskararen alde lanean ari diren erakundeak elkartu eta beren indarrak batu ditzaten, eta beren ekintzen inpaktua (sensibilizatorako baterako jarduerak...) biderkatzeko aukera emango dieten aliantzak ezar ditzaten.
- EHSSean euskarak bizi duen errealitatearen **diagnostiko eguneratua** izatea, hurrengo urteetan datuak bilduko direla eta datuon bilakaera aztertuko dela bermatuta. Horrek

³¹ Horri dagokionez, txosten honen atal batean, euskara sustatzeko erakundeek eskura ditzaketen baliabide mota ezberdinen inguruko erreferentzia interesgarriak biltzen dituen baliabideen gidaliburua bat jasotzen da.

osotasunaren ikuspegia izaten eta erakundeek eta sektoreak jarraitu beharreko sustapen-estrategia egokienak identifikatzen lagunduko luke.

- Artatutako biztanleek EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eta hizkuntza horietan arreta jasotzeko duten **eskubidea erabil** dezaten sustatzea. Horrek, nolabait, efektu eragilea izan lezake erakundeetarako, eta ekintza positiboa da arreta jasotzen duten pertsonen eskubide bati dagokionez eta, beraz, baita erakundeen betebeharrak bati dagokionez ere.
- Elementu eragile gisa joka lezake sektoreko erakundeetatik euskararekiko espero litekeen konpromisoa modu esplizituagoan jasotzen duen **arau-esparru** baten aldeko apustua egiteak (hezkuntzaren arloan gertatzen den bezala, esaterako), beti ere konpromiso horiek erakundearen abiapuntuarekin eta testuinguru soziolinguistikoarekin bat baldin badatoz.
- **Erakunde publikoek** EHSSean euskararen sustapenaren aldeko apustu sendoa egin dezaten lortzea, berariazko lerroak jasota eta/edo dauden laguntza-lerroak egokituta. Hain zuzen ere, komenigarritzat jotzen da Eusko Jaurlaritzak LANHITZ deialdiaren barruan eskaintzen dituen laguntzak sektorearen ezaugarrietara egokitu ahal izatea (irabazi asmorik gabeko erakundeak, oso profesionalizatuta ez dauden egiturak dituztenak...). Besteak beste, prozedurak, tresnak eta eskakizunak sinplifikatzea proposatzen da (adibidez, eskabiderako aplikazioa eta neurketako adierazleak...). Horri dagokionez, proposamen zehatzak eta xehatuak eskaintzen ditu txostenaren ondorengo atalak.

Azkenik, aipatzekoa da ikerkuntza-prozesuan kolaboratu duten erakundeetako **pertsona batzuek**, eta batez ere talde aliatua osatu dutenek, **ikerkuntza-proiektuaren barruan abiarazitako batzarrekin jarraitzeko asmoa erakutsi dutela**, EHSSean euskara bultzatzeko eta gai horren inguruan sektoreak dituen erronka batzuei erantzuteko eta, lankidetzan, EHSSean euskararen presentzia handitzearen aldeko ekintza-lerro ezberdinak ezartzeko esparru komun bat sortzeko helburuz.

6.2. EHSSak eta herri administrazioen EHSSean euskara bultzatzeko jarduketa-lerroen proposamenak

Txosten honetan, EHSSeko erakundeetan euskarak duen presentzian, erabileran eta sustapenean eragina duten faktoreak identifikatzeko saiakera egin da. Halaber, sektorean euskararen erabilera bultzatzen lagundu nahi duten arrasto batzuk eman dira, jarraibide modura. Ariketa hori osatzeko, EHSSeko erakundeetan euskarak duen egoerari buruzko gogoeta egiteko gonbidapen gisa balio nahi duten eta egoera hori eraldatzen lagun lezaketen jarduketa-lerro proposamen batzuk aurkeztuko ditugu jarraian.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren “Hizkuntza Politikaren Etorbizuna: 2005/2009 proiektua” agirian dagoeneko modu esplizituan planteatzen zen jarduketa-lerro gisa arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera handitzea, hainbat estrategiaren bitartez, hala nola bereziketa eta berariazko programak garatzea, enpresa-jarduera ezberdinen arabera, bai eta, bakoitzaren ezaugarri linguistikoetatik abiatuta, enpresetan euskararen erabilera handitzeko planak sustatzea ere.

EHSSaren Sustapenerako Estrategiak, bestalde, EHSSeko erakundeetan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa sustatzera bideratutako jarduketa bat jasotzen du, lan honetan egindako diagnostikoa abiapuntutzat hartuta eta EHSSeko erakundeek hainbat programaren bitartez (LanHitz, IKT...) ematen diren laguntzak eta dauden ziurtagiriak (Bikain, Bai Euskarari) deskribatuta, aztertuta eta horiek eskuratzeko aukerak hobetuta eta, beharrezkoa balitz, laguntza-sistema bera hobetuta.

Ilido horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea EHSSaren errealitatea sektore hori osatzen duten erakundeen ezaugarriek markatzen dutela³² (irabazi-asmorik gabeko erakundeak, egitura ez oso profesionalizatuak dituztenak...), eta beharrezkoa dela hori gogoan izatea euskarak sektorean duen egoera pentsatzeko eta birpentsatzeko. Gainera, erakunde horietako gehienak elkarte txiki edo ertainak (PYMAS)³³ dira, boluntarioek³⁴ pisu handia dute eta dagokien komunitatearekiko lotura oso estua dute.

Halaber, euskararekin lotuta, kontuan izan behar da EHSSeko erakunde askok oraindik ez dutela abiatu euskarak beren erakundeetan duen garrantziari buruzko hausnarketarik eta, beraz, hausnarketa hori egiteko eta erakundearen barruan euskararen inguruko motibazio- eta sustapen-prozesua hasteko laguntza behar dezaketela.

Baloratu behar den beste kontu bat da EHSSeko erakunde askok ez duela Eusko Jaurlaritzaren LanHitz programa ezagutzen, eta beste batzuk, berriz, programa ezagutzen duten arren, ez

³² Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala hauek osatzen dutena da: izaera juridikoa; boluntarioa; irabazi asmorik gabekoa; pribatu eta autogobernatua; egoitza eta jarduera Euskadin izanik; bazterte, kalte, babesik gabe, urritasun eta/edo menpekotasun egoeran dauden pertsona, familia, talde edo komunitateetan eskubideen jarduera eraginkorra eta gizarte-inklusioa gizartearen esku-hartze ekintzen (gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbide-sustapena eta gizarte-inklusioa bultzatzeko edozein ekintza) bidez bultzatzea helburu duten erakundeek (sailen, politiken eta sistemen arteko ekintzak barne; hala nola, enplegu eta gizarte gunea, gizarte eta hezkuntzakoa, soziokulturala).

³³ EHSSaren Sustapen Estrategiaren barruan eta EHSSaren Liburu Zuriaren emaitzak kontuan hartuta, elkarte xiki eta ertaintzat (PYMA) jotzen dira 60.001 eurotik beherako (txikiak) edo 60.001 eta 300.000 euro bitarteko (ertainak) diru-sarrerako bolumena duten EHSSeko erakundeak, normalean elkarteak. Sektoreko erakundeen % 79 dira elkarte txiki eta ertainak: horietako % 32k 12.000 eurotik beherako bolumen ekonomikoa kudeatzen dute, % 21ek, 12.001 eta 60.000 euro artekoa, eta % 26k, berriz, 60.001 eta 300.000 euro artekoa. PYMAS kontzeptuak elkarteak aipatzen dituen arren, figura juridiko guztiak sartzen dira kontzeptu horren barruan.

³⁴ Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriaren arabera (2015), EHSSeko erakundeen % 86,72ko kide gehienak boluntarioak dira.

direla deialdira aurkezten. Hain zuzen ere, galdetegiari erantzun dioten sei erakundek bakarrik adierazi dute Lanhitz programaren bitartez laguntza ekonomikoa jasotzen dutela.

Horri dagokionez, aurkeztuko diren proposamenekin lortu nahi dena da EHSSeko erakundeetan euskararen presentzia handiagoa lortzeko hobekuntzak edo egokitzapenak proposatzea helburu duten formulak edo planteamenduak jasotzea.

Lau arlo handitan egituratuko dira proposamenok: erabilera eta normalkuntza; sustapena; diru-laguntzen ezaugarriak, eta diru-laguntzen prozedurak.

A) Euskararen erabilerarekin eta normalkuntzarekin lotutako proposamenak

- *EHSSeko erakundeetan, oro har, euskararen erabilera normalizatzerari bideratutako jarduketak indartzea, haien ahalmena zentzu bikoitzean kontuan hartuta:*
 - Euskararen erabilerak erakundeen barneko hizkuntza-normalkuntzan izan dezakeen inpaktua.
 - Beren hurbileko ingurunearekin lotura maila handia duten erakundeek beren jarduna garatzen duten ingurune sozialean euskararen erabilerak izan dezakeen inpaktua, erakundearen zein erakundea osatzen duten pertsonen (bazkideak, boluntarioak, soldatapeko langileak...) ingurunean.

Hori guztia, ulertuta ahalegin guztiak bat datozela Lanhitz programaren barruan euskara planak egiteko eskuliburuan ezarritako "euskararen erabileraren" helburuarekin; hauxe dio Lanhitz programak: "Helburua da euskararen erabilerari eta presentziari dagozkion emaitza sistematikoak lortzea. Hizkuntza-trebakuntza eta itzulpengintza helburu hori lortzeko tresna hutsak dira, ez dira berez helburuak".

- Gainera, honako hauek berariaz kontuan hartzea proposatzen da:
 - a) *Erakunde txiki eta ertainak (PYMAS), beren ezaugarriak direla eta (bolumen ekonomiko txikia, langile kopuru txikia, kudeaketako lantaldetik eza...) zailtasunak dituztenak dauden programak eta laguntzak eskuratzeko, ziurtagiriak lortzeko, etab.*

Erakunde edo elkarte txiki eta ertainek ezaugarri horiek dituztela kontuan hartuta, beharrezkoa izan daiteke zenbait egokitzapen jasotzea laguntza-programetan eta/edo laguntzak eskaintzea, eskabideak aurkeztu eta aurreikusitako ekintzak gauzatu ahal izan ditzaten.
 - b) *Gazteekin eta aisiako eta aisialdiko jardueretan lan egiten duten erakundeak; izan ere, eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren 2013-2016 aldirako Euskararen Agenda Estrategikoak jasotzen duen bezala: "(...) ezinbestekoa da monitore eta entrenatzaile euskaldunak izatea eta, horretarako, bide ezberdinak jorratuko ditugu (prestakuntza, materiala, laguntzen hizkuntza-irizpideak...); bestalde, batez ere gazteei zuzendutako produktu eta ekimenetan, euskarazkoen eskaintza lehenetsi edo sustatuko dugu..." (...) "Euskararen erabilera sozialerako aukerak areagotzea, aisiako jardueri lehentasuna emanez".*
- *EHSSeko erakundeak osatzen dituzten pertsonen profil ezberdinen (bazkideak, soldatapeko langileak, boluntarioak...) hizkuntza-normalkuntzarako estrategia dibertsifikatuak*

bultzatzea. Estrategia horiek honako xede hauetara bideratuta egon beharko lirateke batez ere:

- Boluntarioak erakundeen hizkuntza-normalkuntzako prozesuetan sartzea. Boluntarioek³⁵ EHSSeko erakundeetan garrantzi handia dutela kontuan izanik (2014an, 125.000 boluntario eta soldatapeko 36.000 pertsona), beharrezkoa da pertsona boluntario horiek erakundeen euskara-normalkuntzaren aldeko jardunean modu esplizituan sartuko dituzten formulak bilatzea.
 - Euskara dakiten zein ez dakiten erakundeetako pertsonak (soldatapekoak edo boluntarioak) euskara erabiltzera animatzea, berariazko programen eta ekintzen bitartez (motibazioa; oinarrizko hiztegia eta ohiko esamoldeak haien esku jartzea; euskarazko komunikazioa erraztera bideratutako espazioak diseinatzea, espazioa partekatzen duten bi pertsonen behintzat euskaraz hitz egin dezaten, etab.).
 - Erabiltzaileen eta haien familien artean euskararen erabilera sustatzea, erakundearen zenbait jarduera euskaraz antolatuta (trebakuntza, elkarrekiko laguntza, aisialdia, etab.)
- Euskarazko edukien sorkuntza sustatzea eta, zehazki, sorkuntza hori errazteko tresnen eskaintza handitzea: dokumentazio tekniko eta kudeaketako dokumentazioa, trebakuntzako materialak, lan-eskuliburuak, kalitatekoak, hiztegi teknikoak, etab.

Euskararen sustapenarekin lotutako proposamenak

- Dekalogo bat edo antzerako agiri bat bidaltzea, EHSSeko erakundeek euskararen erabilerarekiko eta normalkuntzarekiko duten konpromisoak jasoko dituen, arau-esparruarekin lotuta eta harago (erakundeen betebeharrak eta erabiltzaileen eskubideak euskararen erabilerari eta normalkuntzari dagokionez, giza eta diru-baliabideen esleipena, hizkuntza-irizpideen definizioa, etab.).
- EHSSeko erakundeen topaketarako espazioak sortzea, hizkuntzaren sustapenean haien ahaleginak bateratzeko eta erakundeetan euskararen erabileraren sustapenari eta kudeaketari buruzko esperientziak partekatzeko (planteamenduak, lan-ereduak, jarduerak, tresnak...).
- Ziurtagiriak (Bikain, Bai Euskarari) dituzten erakundeek –batez ere beharrezko bitartekoak dituztenean eta beren kasa, egiaztagiri horiek aldizka eguneratzea, euskararen aldeko etengabeko motibazioa izan dezaten. Denborarekin, eta pilatu daitekeen esperientziaren ondorioz, administrazioak ziurtagirien eguneraketa aurreikusteko beharri buruzko eztabaida bat ezar liteke administrazioarekin, horretarako beharrezko bitartekoak jar ditzan, beharra izan dezakeenarentzat.
- Zabalkunderako ekintzak (jardunaldiak, bisitak...) egitea, EHSSeko erakundeei eskura ditzaketen baliabideen berri emateko (baliabide ekonomikoak, hizkuntza-baliabideak, etab.). Adibidez: EHSSeko erakundeen artean Lanhitz programa ezagutaraztea. LanHitz

³⁵ Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eskaintzen duen Euskara Planak egiteko eskuliburuak kontuan hartzen ditu elkarteak eta fundazioak, baina langileak bakarrik aipatzen ditu modu esplizituan. Esteka honetan kontsulta daiteke agiria: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/lanhitz_euskara_planak_2016/eu_def/adjuntos/EuskaraPlanarenEskuliburua2017.pdf

programaren webgunean jasotzen den moduan, konpromisorik gabeko doaneko bisita komertziala eskatzeko aukera dago, programa hurbilagotik ezagutzeko.

- EHSSeko sareen eta euskararen sustapenean jarduten duten herri administrazioen eta erakunde pribatuen (Eusko Ikaskuntza, Elhuyar, Etxepare Institutua, AEK–Korrika...) arteko aliantzak sortzea; euskararen sustapenerako eta motibaziorako ekintzetan gauza litezke aliantza horiek.

Erakunde pribatuetan euskara sustatzeko laguntza ekonomiko batzuen ezaugarriekin lotutako proposamenak

- Berariazko arreta ematea EHSSari, hainbat formula alternatibo edo osagarriren bitartez:
 - LanHitz programaren barruan EHSSerako partida bat gordetzea.
 - EHSSeko erakundearen aldeko diskriminazio positiboa egitea LanHitz programan, badin eta eskakizun jakin batzuk betetzen badituzte (abiapuntuko hizkuntza-gaitasun maila, erakundearen euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa hobetzerako bideratutako baliabideak...).

Diskriminazio positiboak muga ekonomiko bat ere izan lezake; horrela, aurrez definitutako zenbateko bat agortu ondoren, urte horretan ez litzateke EHSSeko erakunde gehiago sartuko programan.

 - EHSSeko erakundeetarako berariazko programa bat sortzea, LanHitz programatik kanpo.

Aukeratutako konbinazioa edo aukera edozein izanik ere, jarduketak honako alderdi hauek bete beharko lituzke, besteak beste:

- EHSSeko erakundeek euskararen erabilerari eta sustapenari dagokionez izan dezaketen inpaktua maximizatzea, beren oinarri sozialaren aniztasuna eta ingurunearekiko konexioa kontuan hartuta;
 - EHSSeko erakundearen errealitate ezberdinak kontuan hartzea (tamaina, kudeaketa-gaitasuna, boluntarioen erakundeak, boluntarioak dituztenak...);
 - abiapuntu ezberdinak kontuan hartzea, hainbat alderdiri erreparatuz, hala nola: erakundeko hizkuntza-gaitasun maila eta euskararen erabilera; erabilgarri dauden kudeaketarako baliabideak (hala badagokio, kanpoko laguntzak bideratuta); euskara planik duten edo ez, euskara planik ez duten eta era horretako planik diseinatzeko asmorik ere ez duten (ezin dutelako edo, Lanhitzek bere azkeneko deialdian³⁶ eskatzen duen moduan, urteko kudeaketa planik ez dutelako), baina euskara sustatzeko ekintzak egiten dituzten erakundeak sartzea baloratuz.
- Gainera, EHSSeko erakundeek, oro har, beste laguntza-programa batzuek eskuratzeko aukera handiagoa sustatzea proposatzen da, jarduera ekonomikorik garatzen ez dutenak barne hartuz, eta EHSSeko erakunde mota ezberdinak kontuan hartuta:

³⁶ Agindua, 2017ko uztailaren 17koa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/07/1703589e.pdf>

- *IKT*: ingurune digitalean euskara sustatzera, hedatzera eta/edo normalizatzerako bideratutako diru-laguntzen deialdi hori enpresei bakarrik zuzenduta dago gaur egun, baina enpresak, jarduera ekonomikoren bat garatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu gisa ulertuta. Deialdi hori oso interesgarria izan liteke EHSSeko erakundeentzat, batez ere idatzizko kanpo-komunikazioari dagokionez. Gainera, definizio hori zabaltzeko aukera planteatu liteke, EHSSeko erakunde guztiek diru-laguntza horiek lortzeko aukera izan dezaten, edo baita EHSSeko erakunde guztientzat edo jarduera ekonomikorik garatzen ez dutenentzat (boluntarioen erakundeak) berariazko laguntzen lerro bat sartzeko aukera ere.
- *Euskalgintza*: deialdi horrek aparteko interesa izan dezake EHSSarentzat; izan ere, deialdi horren bitartez, diruz lagun daitezke eremu ez-formaletan euskararen erabilera sustatzera eta indartzera bideratutako proiektuak, bereziki aisialdian garatzen direnak, baita edozein jatorritako euskaraz hitz egiten ez duten pertsonak euskarara hurbiltzera bideratutako proiektuak eta ekimenak ere.
- *Foru Aldundien diru-laguntzak*: Bizkaiko Foru Aldundiaren hiru finantzazio-lerroak³⁷ eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazio-lerroa³⁸ enpresei zuzenduta daude; horrenbestez, definizio hori zabaltzeko aukera planteatu liteke EHSSeko erakunde guztiek izan dezaten horiek eskuratzeko aukera, IKT programa aipatu denean adierazi bezala.

Laguntza ekonomikoak eskuratzeko prozedurekin lotutako proposamenak

- LanHitz programan sartzeko eskakizunak egokitzea, EHSSeko erakundeentzako errazagoa izan dadin programa horretan sartzeko. Besteak beste, honako alderdi hauek birplanteatu beharko lirateke:
 - Proiektuaren autofinantzazio mailari buruzko eskakizuna; Lanhitz programaren azken deialdiaren arabera³⁹, % 40koa izan behar da, eta erakunde askorentzat ezinezkoa da eskakizun hori betetzea, batez ere txikienentzat.
 - LanHitz programaren helburuak egokitzea, kontuan har daitezkeen EHSSeko erakundeek beren ingurunean duten eta izan dezaketen inpaktua, euskararen erabilerari eta normalkuntzari dagokionez.

Horrela, helburuetan desberdintzapena egitea proposatzen da, erakundeen barne-funtzionamenduari lotutako lantokietan zentratutako helburuez gain (pertsonek eta erakundearen hizkuntza-gaitasuna, etab.), inguruneari dagozkion helburuak barne hartuz, EHSSeko erakundeek jarduerak (ez bakarrik ekonomikoak) eta harremanak beren inguru hurbilean duten inpaktuarekin lotutakoak (adibidez, erakundearen oinarri sozial guztiak komunitateko pertsona, talde, instituzio eta erakundeekin dituen pertsona arteko harremanak).

³⁷ Euskararen erabilera sustatzeko planak egiten dituzten erakundeentzat diru-laguntzak, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia sustatzen duten produktuak egiten dituzten erakundeentzat diru-laguntzak eta euskara sustatzeko, hedatzeko edo normalizatzeako jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoentzat diru-laguntzak. Ikus horri buruzko informazio xehatua, txosten honen 8. kapituluan.

³⁸ Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeako programak garatzen dituzten erakundeentzat diru-laguntzak. Ikus horri buruzko informazio xehatua, txosten honen 8. kapituluan.

³⁹ Agindua, 2017ko uztailaren 17koa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/07/1703589e.pdf>

- Lanhitz programaren eskabide-prozedura egokitzea edo sinplifikatzea, arinagoa eta errazagoa izan dadin. Lanhitz programaren azken deialdiak ezartzen duenez, eskabidean honako hauek aurkeztu behar dira:
 - [Planhitz aplikazioa](#). Enpresari eta euskara planari buruzko datuak.
 - Inprimakiak. Eskabidea, proiektuari eta erakundeari buruzko beste datu batzuk, eta adierazle-sistema.
 - Erakundeari buruzko dokumentazioa, eskatzailea berria bada edo aldaketarik egon bada.

- Lanhitz programaren tresnak egokitzea edo sinplifikatzea, arinagoak eta irisgarriagoak izan daitezten.

Hain zuzen ere, EME tresna sinplifikatzea proposatzen da; izan ere, erakundeek adierazi dute, gaur egun formulatuta dagoen bezala, oso zaila dela erabiltzeko. Besteak beste, gehiegizkoa eta zorrotz samarra da adierazleen bereizketa, batez ere gai hori neurtzen hasten ari diren eta horrenbeste datu sistematizatzea ahalbidetuko dien neurketa-tresnarik ez duten erakundeentzat.

7. EUSKARAREN SUSTAPENERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK ETA ESPERIENTZIAK

Ikerkuntza-prozesuan zehar, EHSSeko erakundeek euskara sustatzeko abian jarritako ekintzei buruzko informazioa biltzen joateko aukera egon da. Erakundeek esperientzia ezberdinak bizi izan dituzte euskararen inguruan, askotan erakundearen ibilbideak berak, erakundearen egiturak eta tamainak, erakundearen oinarri sozialaren hizkuntza-gaitasunek eta/edo bere jardun-esparruak baldintzatu eta, noski, baita erakundearen testuinguru soziolinguistikoak ere.

Ekintza horietako batzuek oihartzun handia izan dute, eta erakundearen ohiturak, jardunbideak eta “paisaia” aldatzen lagundu dute. Erakundeetan neurri handiagoko edo txikiagoko aldaketak sustatu dituzte jardunbide horiek, eta euskarari erakundearen barruan leku garrantzitsuagoa ematen lagundu dute.

Biltzen joan garen erakundearen esperientzia, ekintza eta neurriei esker, ikusarazi digu EHSSean euskara sustatzeko aukera aniztasun handia dagoela, sektorea osatzen duten erakundearen esfera ezberdinetan: egitura formaletan, komunikazioko ohituretan, sortzen diren testuetan...

Beste erakunde batzuek ideiak identifikatzeko eta euskara bultzatzeko politiken garapenean aurrera egiteko lagungarri izan daitezten, azterlanean parte hartu duten erakundeek partekatutako ekintza zehatzen zerrenda bat aurkezten da kapitulu honetan, hainbat ardatzen arabera taldekatuta: kanpo-irudia eta -komunikazioa; erabiltzaileekiko eta ingurunearekiko zuzeneko harremana; ikusgarritasuna eta barne-komunikazioa; trebakuntza; erakundearen euskara sustatzeko politikak eta estrategiak formalizatzeko prozesuak; motibazioa eta sentsibilizazioa.

Gainera, kapitulu honen bigarren zatian, sektoreko lau erakundek (EDE Taldea, Apnabi, Agintzari eta Urgatzi elkarteak) abian jarritako jardunbide egoki batzuk ere aurkezten dira modu xehatuan, beste erakunde batzuei erreferentziatzat balio diezaieketenak.

7.1. Euskararen sustapeneko esperientziak

Kanpo-irudia eta -komunikazioa
Webguneak elebitan editatzea
Erakundearen dokumentazioa elebitan izatea
Ahalik eta kanpo-agiri gehienak itzultzea euskarara (komunikazioa, argitalpenak, etab.)
Kartelak eta paper-gauzak elebitan izatea
Administrazioarekiko harremanak beti euskaraz izatea, ahozko zein idatzizko komunikazioan.

Erabiltzaileekiko eta ingurunearekiko zuzeneko harremana

Euskara kohesiorako elementu izango den proiektuak egitea auzoan

Langile euskaldunak jartzea herritarrenganako zuzeneko zein telefono bidezko arreta-zerbitzuetan

Erabiltzaileentzako eskuliburuak elebitan idaztea

Jardunaldiak eta hitzaldiak euskaraz antolatzea

Ikusgarritasuna eta barne-komunikazioa

Soldata-agiriak elebitan idaztea

Lan-kontratuak elebitan idaztea

Ahalik eta barne-agiri gehienak euskarara itzultzea

Erakunde barruko oharrak eta jakinarazpenak elebitan egitea

Euskara hiztegi bat prestatzea, erakunde barruan erabiltzen den terminologia jasoko duena

Euskara-gaztelera / Gaztelera-euskara hiztegi bat prestatzea, esku-hartzearen esparruko terminoak jasoko dituen

Kartelak eta paper-gauzak elebitan izatea

Erakunde euskara batzordearen edo taldearen logotipo propioa diseinatzea

E-postetako faldoiak eta logotipo hauek dituzten gutunak diseinatzea: Nigaz euskaraz, txantxangorria, etab.

Euskara dakiten pertsonak identifikatzeko kanpainak egitea

Euskarazko komunikaziorako oinarritzko gidaliburua

Euskara arduradun bat aukeratzea, erakunde sail bakoitzerako

Beste lankide batzuei euskarazko testuak zuzentzen lagun diezaieketen pertsonak aukeratzea

Erakunde pertsona euskaldunei euskara hutsez bidaltzea barne-komunikazioak, eta elebitan erdaldunei

Trebakuntza

Erakunde boluntarioei eta langilei euskara-ikastaroetarako laguntza ekonomikoak ematea

Euskara ikasteko erraztasunak emateko neurriak ezartzea

Erakunde pertsonen ahozko eta idatzizko trebetasuna sustatzeko tailerrak egitea

Erakundearentzat interesekoak diren gaiei buruzko trebakuntza euskaraz eskaintzea

Erakunde barruko euskara ikastaroak, HABE 1, HABE 2 edo HABE 3 maila lortzeko helburu garbiarekin

Euskaltegiekin hitzarmenak egitea, erakunde pertsonak "euskalduntzeko"

Formalizazio-prozesuak

Euskara batzordeak sortzea

Proposamenen eta jardun-ildoan lidergoa hartuko duten "euskara arduradunak" izendatzea, euskararen erabilera ikusarazteko eta sustatzeko helburuz.

Plan estrategiko eta/edo kudeaketa planen barruan euskara bultzatzeko helburua jasotzea

Erakundearen komunikazioan hizkuntza-irizpideak ezartzea

Dokumentaziorako hizkuntza-irizpideak ezartzea. Adibidez: grafia euskaraz eta gaztelera antzerakoa denean, errotuluak euskara hutsez jarriko dira. Gainerakoak elebitan jarriko dira. Euskarazko bertsioa jarriko da beti lehenengo, letra lodiz, eta ondoren jarriko da gaztelera bertsioa, letra normalez

Euskara planak prestatzea

Motibazioa eta sentsibilizazioa
“Korrika” ekimenean parte hartzea, erabiltzaile, boluntario, bazkide eta profesionalekin batera
Erakundeko pertsoneri zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea
Urtero hormarako edo mahai-gainerako egutegiak euskara hutsez edo elebitan inprimatzea, eta langileei banatzea, lan-arloan erabil ditzaten
Elkarrizketa-taldeak: mintzapraktika, berbalagun
Euskarakafea: astero kafea euskaraz
Euskarazko ipuin-lehiaketak, etab. Irabazleentzat sariekin
Sentsibilizazio-kanpainak, kartelak erabilia
Euskara sustatzeko kanpainak; hala nola, oportetan irakurtzeko euskarazko liburuen iradokizunen lehiaketa, edo oportetatik euskaraz idatzita bidalitako postalena (Euskoporrak)
Erakunde barruko buletinarako kronikak edo artikulak euskaraz idaztea
Euskararen nazioarteko eguna ospatzea
Euskarazko Gabon-kantak
Santa Ageda eguna ospatzea
Zerbait berezia (bidaiak, esperientziak...) egin duten pertsonak elkarrizketatzea, eta erakundeko pertsonen artean zabaltzea
Erakundeko pertsonen posta elektronikora astero txiste bat bidaltzea euskaraz
Euskara tituluren bat lortu duten pertsonak publikoki zoriontzea erakundearen
Erakundeko pertsonak euskaraz ez dauden kartelak identifikatzeko inplikatzeko, eta horiek itzultzeko proposamena egitea

7.2. Jardunbide egokiak

Sektoreko lau erakundek –EDE Taldea, Apnabi, Agintzari eta Urgatzi elkarteak– euskara babesteko eta bultzatzeko lau esperientzia xehetasun handiagoz ezagutzeko aukera eman digute.

7.2.1. 1. Esperientzia: Agintzari

Erakundearen IZENA
AGINTZARI Gizarte Ekimeneko Kooperatiba Elkarteak
Erakundearen kokalekua (egoitza nagusia dagoen lurraldea eta udalerrria)
Madariaga, 1 zbk, 4 . 48014 Bilbao
Erakundearen jardun-esparrua (Mendekotasuna, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Hainbat, Beste batzuk...)
Gizarte-bazterkeria (haurtzarora, nerabezarora, emakumeak) eta babesgabetasuna.
Erakundearen tamaina (soldatapeko langile kopurua...)
505 pertsona.
Esperientziaren izena: IZENBURUA (Partekatu nahi den programaren, baliabideen edo ekimenaren izen laburtua...)
Agintzariren esperientzia (2011-2017)
Euskarari dagokion testuinguruaren deskribapen laburra; zein testuingurutan sortzen den ekimena, eta zergatik jartzen den martxan
2010ean, euskara planaren aldeko apustua egin zuen Agintzariko zuzendaritza-taldeak. Agintzariko zuzendaritza- eta ebaluazio-batzordeek enpresaren barruan nabarmentzen dute. Horregatik, gure esperientziak euskararen presentziak zuzendaritzan duen garrantzia erakusten du.
Ekimena martxan jartzearekin lortu nahi ziren helburuak
<ul style="list-style-type: none">- Agintzarik euskararekiko duen konpromisoa aurkeztea.- Euskararen ibilbidea azaltzea.- Euskara-plan baten oinarriak eta garrantzia:<ol style="list-style-type: none">1. Ezagutza.2. Motibazioa.3. Erabilera.4. Instituzionalizazioa.- Motibazioaren ardatzak euskara bultzatzeko duen garrantzia, hainbat ekintzaren bitartez.

- Euskararen inguruko Agintzariren erronka nagusiak azaltzea.
Esperientziaren deskribapen laburra (esperientziaren nondik norakoak eta garatutako jarduerak deskribatzea, parte hartu duten pertsonak, non garatu den, etab.)
<p>Agintzarin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gogoz heldu zaio euskara planari. - Beharrezkotzat jotzen da euskara ikastea eta gehiago erabiltzea. <p>Horregatik, motibazioaren inguruko ondorengo ekimenak landu dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Posta elektronikoko bidezko lehiaketa bat antolatzea (euskara maila ezberdinak izan arren, pertsona guztiek parte hartu ahal izan dezaten). Hilean behin egiten da lehiaketa hori. E-posta bidez, galdera bat bidaltzen zaie Agintzariko pertsona guztiei. Behin erantzun guztiak jaso ondoren, zozketa egin eta sari bat ematen da 2. Agintzariko langileei elkarrizketak: Agintzariko langileei elkarrizketa pertsonalak egiten zaizkie, eta Agintzariko pertsona guztiei bidaltzen zaizkie elkarrizketok. Horren helburua da euskaraz irakurtzeko motibazioa piztea. 3. Nola erabil zenezake bloga (berrikuntza), motibazioa sustatzeko?
Baliabideak eta kolaborazioak (adierazi ekimena burutzeko beharrezko baliabide materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak eta, hala badagokio, erakundetik kanpoko zein beste erakunde edo pertsona sartu den proiektuan edo ekimenean)
<ul style="list-style-type: none"> - Euskara batzordea (ondoren adierazten den bezala osatuta dago batzorde hori: pertsona bat zuzendaritzan, beste bat ebaluazioan, eta lau pertsona hainbat zerbitzutan). - Emun kooperatiba, kanpo-laguntza gisa.
Egitasmoa martxan jartzeko zailtasun nagusiak
Emaitzak epe luzera lortzen dira
Egitasmoa martxan jartzeko elementu erraztaileak
<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendaritzako eta ebaluazioko lantaldeen egitasmoaren aldeko apustua. - Eragileak diren eta euskararen aldeko motibazio handia duten langileak
Ebaluazio-sistema (nork, nola eta noiz ebaluatzen den...)
<p>Urte hasieran diseinatzen da euskara plana. Plan horren inguruan, hileko jarraipena egiten du euskara batzordeak, eta gainera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sei hileko ebaluazioa egiten da. - Urte amaierako balorazioa egiten da.
Emaitza nagusiak (helburuen betetze maila, espero ez ziren emaitza positiboak eta negatiboak, prozesuarekiko gogobetetasun maila...)
<ul style="list-style-type: none"> - Handitu egin da euskararen presentzia - Euskara asko hitz egiten da - Ibilbide luzeko erronka da, pazientzia asko eskatzen duena euskararen erabilera bultzatzeko

Ibilbidea eta etorkizunerako asmoak (noiztik dagoen martxan, aurrera begira dauden aurreikuspenak...)
2011n hasi ginen, eta bide beretik jarraituko dugu etorkizunean.
Eredua errepikatzeko gomendioak (zer gomendatuko zenioke bere erakundeantzerako ekimenen bat martxan jartzeko asmoa duen norbaiti...)
Zuzendaritza-taldearen euskararen aldeko apustua.
Harremanetarako datuak (norekin jarri beharko litzatekeen harremanetan, norbaitek informazio gehiago beharko balu edo kontsultaren bat egin nahiko balu)
Harremanetarako pertsona: Ainhoa Solozabal Arantzamendi
Helbidea: Madariaga 1, 4 Bilbo
Telefonoa: 628 36 66 10
E-posta: ainhoasolozabal@agintzari.com
Informazio gehiagorako webgunea: www.agintzari.com

7.2.2. 2. Esperientzia: Apnabi

Erakundearen IZENA
APNABI Autismo Bizkaia.
Erakundearen kokalekua (egoitza nagusia dagoen lurraldea eta udalerrria)
Bilbon (Bizkaia) dago elkartearen egoitza nagusia.
Erakundearen jardun-esparrua (Mendekotasuna, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Hainbat, Beste batzuk...)
<p>APNABI Autismoa eta Autismoaren Espektroko Nahasmenduak (AEN) dituzten Bizkaiko pertsonentzako eta beren familientzako erreferentziazko elkarte da. Gure helburua da beren bizitza-proiektuak garatzen laguntzea AEN dituzten pertsonei eta beren familiei. Horretarako, laguntzak eskaintzen dizkiegu, haientzako aukerak sortzen ditugu, eta gizarte zuzen eta solidario batean txerta daitezen saiatzen gara, eskubide osoko herritarrak baitira. Misio hori betetzeko, zorrotz zaintzen ditugu kalitate eta konpromiso etikoa gure jardueretan, eta ekintza kolaboratiboak sortzen ditugu.</p> <p>Autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonen eskubide guztiak berma daitezen lan egiten du APNABI elkarteak, eta erantzun integrala, pertsonala eta kalitatezkoa ematen die prozesu osoan zehar pertsona horiei, honako arlo hauetan: kontsulta; eguneroko arreta; etxebizitza; hezkuntza; gizarte eta lan arloko promozioa; aisia eta aisialdia; familientzako laguntzak; kudeaketa eta administrazioa</p>
Erakundearen tamaina (soldatapeko langile kopurua...)
220 bat langile.

Esperientziaren izena: IZENBURUA (Partekatu nahi den programaren, baliabideen edo ekimenaren izen laburtua...)

ULERRIZKETA saioak.

Euskarari dagokion testuinguruaren deskribapen laburra; zein testuingurutan sortzen den ekimena, eta zergatik jartzen den martxan

APNABI Autismo Bizkaia elkarteak 2008an ekin zion hizkuntza-normalkuntzaren aldeko lanari. Urte hartan sortu zen euskara batzordea. 2014an, bigarren plana bultzatu zen, Artez hizkuntza aholkularitzako enpresaren laguntzarekin. Arlo guztietako pertsonez osatuta dago APNABI elkarteko euskara batzordea, eta euskara plana bultzatzeaz eta dinamizatzeaz arduratzen da, erakundeko zuzendaritza-taldearen babesarekin. Ordutik, kudeaketa planak eta dagozkien ebaluazioak egiten ditu urtero autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonen senitartekoen elkarteak. Prozesu horren emaitza dira 2014-2016 aldirako eta 2017-2019 aldirako euskara planak.

Hizkuntza kudeaketan aholkularitza ematen diguten Artez enpresako teknikariek Ortuellako zentroan hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera areagotzeko ekimen batean parte hartzea proposatu ziguten.

Ekimena martxan jartzearekin lortu nahi ziren helburuak

Ortuellako zentroko hizkuntza-ohiturak aldatzea.
Euskararen erabilera areagotzea.

Esperientziaren deskribapen laburra (esperientziaren nondik norakoak eta garatutako jarduerak deskribatzea, parte hartu duten pertsonak, non garatu den, etab.)

Ulerrizketa saioak komunikazio-saioak dira, eta garrantzi handia ematen zaio ulermenari. Euskaraz mezu ulergarri bat prestatzeko ahalegin berezia egiten du kide batek, eta beste batek, berriz, mezu hori ulertzeko saiakera zintzoa. Lehenengo kideari "ulergile" deitzen zaio, eta bigarrenari "ulertzaile". Ulerrizketa, beraz, ulergilearen eta ulertzailearen arteko elkarrizketa da.

Ulerrizketako saioak Soziolinguistika Klusterra eta EHU Aldahitz ikerkuntza-proiektuaren barruan garatzen ari diren Eusle metodologiaren barruan sartzen dira. APNABI elkartearen Ortuellako zentroan egindako dinamika ikerkuntza horren barruan sartzen da. Horregatik, saioen jarraipena egin dute Klusterreko teknikari batek eta Artez enpresako beste batek.

Honako hauek izan dira saioen ezaugarriak:

1. Elkarrizketa elebidunak: ulergileak modu errazean komunikatzen ditu mezuak, beti euskaraz. Ulertzaileak gaztelera erabil dezake erantzuteko edo ulertu duena laburbiltzeko, ulertu duena adierazteko.
2. Mezua ulertu dela eta komunikazioa egon dela egiaztatu behar da: ulertzaileak ulergilearen euskarazko mezua ulertu duela eman behar du aditzera, mezu horren laburpen bat eginda, gaztelera edo euskaraz. Hori egiten ez badu, ulergileak bere mezua euskaraz transmititzeko beste modu errazago bat aurkitu behar du.
3. Lankideen artean garatzen dira saioak, lan-ingurune errealean. Ez da lan-orduetatik kanpo egiten den jarduera: egunerokotasunean gertatu eta aplikatu behar da.

Baliabideak eta kolaborazioak (adierazi ekimena burutzeko beharrezko baliabide materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak eta, hala badagokio, erakundetik kanpoko zein beste erakunde edo pertsona sartu den proiektuan edo ekimenean)
Giza baliabideak behar dira bakarrik.
Egitasmoa martxan jartzeko zailtasun nagusiak
Euskara maila ezberdinak, eta horrek sor dezakeen lotsa. Taldean gertatu diren gorabeherak (bajak, ordezkapenak, etab.).
Egitasmoa martxan jartzeko elementu erraztaileak
Eskolako langileen jarrera eta motibazioa.
Ebaluazio-sistema (nork, nola eta noiz ebaluatzen den...)
Soziolinguistika Klusterreko teknikariak egin zuen ebaluazioa modu sistematizatuan, jardueraren hasieran, erdialdean (hirugarren astean) eta amaieran (seigarren astean). Horretarako, galdetegiak, bideratutako elkarrizketak eta ariketen praktikak erabili ziren. Esperientzia hau borondatezkoa da, eta edozein unetan utz daiteke bertan behera. Astero galdetzen zaie langileei dinamikan jarraitu nahi duten edo ez. Gustura ez badaude, edozein unetan utz dezakete bertan behera.
Emaitza nagusiak (helburuen betetze maila, espero ez ziren emaitza positiboak eta negatiboak, prozesuarekiko gogobetetasun maila...)
Zaila izan zen helburua ondo betetzea, hainbat aldaketa gertatu baitzen taldean (parte-hartzaile batzuek baja hartu zuten, ordezkapenak egon ziren...). Nolanahi ere, ekimen horri esker euskararen erabilera areagotu zen, eta parte-hartzaile edo onuradun nagusiek balorazio positiboa egin zuten.
Ibilbidea eta etorkizunerako asmoak (noiztik dagoen martxan, aurrera begira dauden aurreikuspenak...)
2017ko maiatzean eta ekainean egin zen.
Eredua errepikatzeko gomendioak (zer gomendatuko zenioke bere erakundeantzerako ekimenean bat martxan jartzeko asmoa duen norbaiti...)
Ez dadila parte-hartzaileen artean gorabehera edo aldaketarik egon ekimenak irauten duen bitartean. Aldez aurretik, jarduera hasi aurretik, taldeko pertsona batzuek euskaraz hitz egiteko ohitura izan dezatela.
Harremanetarako datuak (norekin jarri beharko litzatekeen harremanetan, norbaitek informazio gehiago beharko balu edo kontsultaren bat egin nahiko balu)
Harremanetarako pertsona: Amaia Fernandez

Helbidea: Bilbo Hiribidea 20, behe, 48530 Ortuella (Bizkaia)
Telefonoa: 94 664 21 22
E maila: amaia.fernandez@apnabi.org
Informazio gehiagorako webgunea: www.apnabi.eus
Bestelako informazioa
Eusle metodologiari buruzko erreportajea: http://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2017-09-30-07-00/hemeroteca_articles/ariketa-erraz-bat-lankideekin-euskaraz-mintzatzen-laguntzeko

7.2.3. 3. Esperientzia: EDE Taldea

Erakundearen IZENA
EDE TALDEA (Suspergintza Elkartea).
Erakundearen kokalekua (egoitza nagusia dagoen lurraldea eta udalerrria)
Bilbo.
Erakundearen jardun-esparrua (Mendekotasuna, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Hainbat, Beste batzuk...)
Aholkularitza, Trebakuntza, Parte-hartzea, Esku-hartze Soziala.
Erakundearen tamaina (soldatapeko langile kopurua...)
300 inguru.
Esperientziaren izena: IZENBURUA (Partekatu nahi den programaren, baliabideen edo ekimenaren izen laburtua...)
Katamar programa.
Euskarari dagokion testuinguruaren deskribapen laburra; zein testuingurutan sortzen den ekimena, eta zergatik jartzen den martxan
EDE Taldeak, euskara planarekin, urte asko darama erakundearen euskararen erabilera sustatzen eta euskalduntze-ikastaroak antolatzen.
EDE Taldearen euskara eta trebakuntza planen helburua da erakundearen lan egiten duten pertsona guztien euskarazko trebakuntza ziurtatzea, lanpostu bakoitzerako ezarritako hizkuntza-eskakizuna eta EDE Taldearen bitartekoak kontuan hartuta.
Erakundeak 6. mailatik aurrerako trebakuntza eskaintzen du, lanpostuan aplikatzeko helburuz. Hain zuzen ere, gure helburu nagusia da euskara normaltasunez erabiltzea eguneroko jardunean. Horregatik, urte batzuk daramatzagu euskalduntze- eta gaitze-ikastaroak antolatzen.

Hala ere, erakundearen irizpide horiek izan arren, azkeneko urteotan gero eta jende gehiagok eskatu digu euskara hutsetik hasita ikasteko laguntza; eskaera hori Suspergintza elkartearen Biltzen zerbitzuetatik (Atzerritarren informaziorako, trebakuntzarako eta aholkularitza juridikorako zerbitzua) iritsi zitzaigun batez ere.

BILTZEN:

Immigrazio Zuzendaritzara (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila) atxikitako titulartasun publikoko zerbitzua da. Administrazioari eta gizarte zibilarri laguntzeko baliabide gisa sortu zen, eta diziplina eta kultura anitzeko profesionalen osatuta dago. Zerbitzu horren helburua da kultura arteko jarduerak bultzatzea eta koordinatzea eta, aldi berean, euskal gizartearen kultura-komunitateen arteko eta komunitate horien eta administrazioaren arteko elkarriketak dinamizatzea. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu, batez ere, Biltzenek: informazioa eta dokumentazioa, gaikuntza, sentsibilizazioa, komunitate-bitartekaritza, eta aholkularitza kultura-aniztasunaren, atzerritartasunaren, tratu-berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren kudeaketan.

Biltzen zerbitzuko langileek atzerritarrekin lan egiten dute, eta langileak eurak ere atzerritarrak dira. Azkeneko urteotan izan dute euskararekiko lehen harremana; hala ere, pertsona horietako askok urteak daramatzate euskara ikasten, eta gehiago ikasteko aukera eskatzen dute. Garrantzi handia ematen diote euskara jakiteari, eta euskara ikasteko gogoz ageri dira.

Horregatik, EDE Taldeak erabaki zuen euskara ikasteko eta erabiltzeko aukera ematea. EDE Taldearen euskara batzordearen ustez, etorkinei euskara hurbiltzeak pertsona horiek modu sakon eta aberasgarrian gizarteratzeko bidea ematen du, eta euskara beste erabilera-esparru batzuetara eramateko modu ezin hobea da.

Gure ustez, euskaldun berriari (etorkina izan edo ez) honako alderdi hauetan lagundu behar zaio:

- ✓ Hizkuntzaren inguruko ezagupideak indartzen; horretarako, euskara eskolak antolatu dira. Kontua da euskara ikasteko eta erabiltzeko beren eskaerari erantzutea.
- ✓ Euskal kulturaren aberastasuna berenganatzen. Erdaldun askok izugarri baloratzen dituzte euskara eta euskal kultura, baina horiei eusteko, euskaldunek ere landu behar dute motibazioa, sentsibilizazio-jarduerak antolatu...
- ✓ Beren euskarazko harremanen sarea handitzea. Beren ustez, arazo nagusietako bat da euskara erabiltzeko aukerarik ez izatea. Pertsona horietako askok D edo B hezkuntza-eredua aukeratzen dute beren seme-alabentzako, eta marrazki bizidunak euskaraz ikusten dituzte haiekin. Horrek euskara hobeto lantzen laguntzen die, baina lan-ingurunean euskara erabiltzeko aukera ere baloratzen dute.

Ekimena martxan jartzearekin lortu nahi ziren helburuak

Helburu nagusia

- ✓ Euskara eta euskararen munduak etorkinei hurbiltzea, modu zabal eta aberasgarrian gizartera daitezen, eta euskara gutxiago erabiltzen den esparru batzuetara hel dadin.

Helburuak

- ✓ Euskararen oinarriko ezagutzak dituzten pertsonen laguntzea.
- ✓ Euskara erabiltzeko espazioak eskaintzea.

- ✓ Euskara eskolak eskaintzea.
- ✓ Euskara eta euskal kulturaren aberastasuna ezagutaraztea.
- ✓ Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea.

Esperientziaren deskribapen laburra (esperientziaren nondik norakoak eta garatutako jarduerak deskribatzea, parte hartu duten pertsonak, non garatu den, etab.)

Suspergintzako langile atzerritarren hizkuntza-gaitasuna lantzeko, euskara ikasteko ARIAN metodoa erabili zen Katamar programaren esperientzian.

Zer da Arian?

Euskara ikasten hasteko metodoa da Arian, euskara ikasleei eguneroko bizitzako egoera ezberdinetan komunikatzeko beharrei aurre egiteko egokia dena.

Euskara beren kabuz ikasi nahi duten pertsonentzako pentsatutako metodoa den arren, euskaltegietan eta araututako irakaskuntzan euskara ikasteko ere tresna erabilgarria izan daiteke, zalantzarik gabe.

Material hori sortzeko, HABEren Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (1991) eta ikaskuntzako, irakaskuntzako eta ebaluazioko Erreferentziako Europar Markoa hartu ziren erreferentziatzat, testuak, lanak, hiztegia eta gramatika zehaztasunez eta zorrotzasunez aukeratzeko.

A1 maila amaitzen duen ikaslea gai da euskaraz moldatzeko bizitza errealeko hainbat esparrutan (etxeak, kalean, lanean, lagunartean) eta eguneroko bizitzako egoera gehienetan, ez baita beharrezkoa gramatika edo hiztegi osoa ezagutzea komunikatzeko. Beraz, ikaslea gai da:

- Ahozko komunikazioan, bere buruarekin, familiarekin edo ingurunearekin lotutako agindu, deskribapen eta azalpenak ulertzeko, poliki eta argi ahoskatzen bazaizkio.
- Idatzizko komunikazioan, eguneroko bizitzako ohiko izenak, hitzak eta esaldiak ulertzeko; deskribapen laburren zentzua ulertzeko; agindu labur eta errazak ulertzeko; eta gutunetako mezu labur eta errazak ulertzeko.
- Idatzizko adierazpenean, inprimakiak betetzeko eta oharrak, gutunak, deskribapen laburrak, posta elektronikoak eta SMS mezuak idazteko gaitasuna, oinarrizko formak eta hiztegia erabilia.
- Ahozko adierazpenean, norbere burua aurkezteko eta leku eta pertsonen deskribapen soilak egiteko, eguneroko jarduerari buruz hitz egiteko gaitasuna, gertatutakoa kontatzeko eta planak adierazteko gaitasuna.

Bi ardatz nagusi izan zituen Katamar programak:

- Lan pertsonala: norbere kabuz gaiak ikasi eta lan-koadernoko ariketak egiten zituzten, eta euskarazko liburuak irakurri.
- Aurrez aurreko euskara eskolak.

Hamabostean behin bi orduko saioak egiten ziren; ondorengo lanak egiten zituzten saio horietan: aurreko egunetan ikasitako unitateak errepasatu, zuzenketak egin, eta zalantzak aurkeztu eta argitu; ahozko adierazpena eta irakurketa.

- Biltzeneko langileen euskara maila kontuan izanda, bi talde egin zituzten:
 - Lehenengo taldea: A1.1-A1.2 mailak.

- Bigarren taldea: A2 maila.
- Biltzenen ematen ziren euskara eskolak.
 - Biltzen-Bilboko Aterpetxea. Kastrexanako Errepidea. Bilbo.
- Ordutegia: 12:30-14:30.
- Eguna: ostiraletan.
- Hasiera-data: 2013/11/07.
- Amaiera-data: 2014/06/20.

Baliabideak eta kolaborazioak (adierazi ekimena burutzeko beharrezko baliabide materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak eta, hala badagokio, erakundetik kanpoko zein beste erakunde edo pertsona sartu den proiektuan edo ekimenean)

Giza baliabideak: euskara batzordea eta euskara eskolak ematera etortzen ziren pertsonak (hiruzpalau lagun).
Baliabide ekonomikoak: pertsonen soldatak (diru-laguntzak tresna bat ziren).

Egitasmoa martxan jartzeko zailtasun nagusiak

Ez izatea talde edo maila homogeen bat, euskara-gaitasunari dagokionez.

Egitasmoa martxan jartzeko elementu erraztaileak

Eskaera parte-hartzaileek egin izana eta haien interesa.

Ebaluazio-sistema (nork, nola eta noiz ebaluatzen den...)

Nork: euskara batzordeak.
Nola: ondorengo adierazleak erabilita (bertaratzea, bilakaera pertsonala).
Noiz: ebaluazio jarraitua eta amaierako ebaluazioa.

Emaitza nagusiak (helburuen betetze maila, espero ez ziren emaitza positiboak eta negatiboak, prozesuarekiko gogobetetasun maila...)

- Euskararen aldeko sentsibilizazioa bultzatzea.
- Lorpenak (pertsonak askok bereganatu du euskararen oinarritzko maila: agurrak, esaldi laburrak...)
- Prozesu pertsonalizatuak.

Gainera, euskara batzordeak bere indarrak berritu ditu, baliabide eta ezagutza apalekin erakundean bertan euskara eskolak emateko gai izan baitira.

Ibilbidea eta etorkizunerako asmoak (noiztik dagoen martxan, aurrera begira dauden aurreikuspenak...)

Bi ikasturtetan egin zen.
Harrezkero, banakako prozesuak bultzatu ziren.

Eredua errepikatzeko gomendioak (zer gomendatuko zenioke bere erakundeantzerako ekimenen bat martxan jartzeko asmoa duen norbaiti...)
Erakundearen eta parte-hartzaileen inplikazioa.
Harremanetarako datuak (norekin jarri beharko litzatekeen harremanetan, norbaitek informazio gehiago beharko balu edo kontsultaren bat egin nahiko balu)
Harremanetarako pertsona: Itziar Etxebarria
Helbidea: Simon Bolivar kalea, 8b.
Telefonoa: 9440099999
E-posta: ietxebarria@suspergintza.net
Informazio gehiagorako webgunea:
Bestelako informazioa

7.2.4. 4. Esperientzia: Urgatzi elkarte

Erakundearen IZENA
Urgatzi, Ongizatea Sustatzeko Elkartea
Erakundearen kokalekua (egoitza nagusia dagoen lurraldea eta udalerrria)
Areeta (Getxo)
Erakundearen jardun-esparrua (Mendekotasuna, Desgaitasuna, Babesgabetasuna, Bazterkeria, Hainbat, Beste batzuk...)
Mendekotasun egoeran, egoitzetan eta eguneko zentroetan dauden adineko pertsonekin, eta gazteen zentroetan lan egiten dugu, ondorengo esparruetan: mendekotasuna; desabantaila; babesgabetasuna; gizarte-bazterkeria.
Erakundearen tamaina (soldatapeko langile kopurua...)
250.
Esperientziaren izena: IZENBURUA (Partekatu nahi den programaren, baliabideen edo ekimenaren izen laburtua...)
Euskaraz Gozatuz.
Euskarari dagokion testuinguruaren deskribapen laburra; zein testuingurutan sortzen den ekimena, eta zergatik jartzen den martxan
Izen edo izenburu hori erabiltzen da euskara babesteko eta euskararen erabilera bultzatzeko ekimen guztietan. Euskarak erakundeantzerako inguruko hausnarketa batekin hasi zen ekimena eta, bost urte beranduago, ondo finkatuta daude erakundeantzerako Euskara Plana eta urteko ekintza plana.

Ekimena martxan jartzearekin lortu nahi ziren helburuak

Bi helburu nagusiak izan dira erakunde barruan euskara bultzatzea eta babestea, eta erakundeko langileen artean euskararekiko sentsibilizazioa lortzea.

Horretarako, lau ardatz nagusi ezarri dira, helburu zehatzak dituztenak:

- A. Trebakuntzarako aukerak. Helburua da:
 - a. Erabiltzaile eta bezeroekin harremana duten pertsonak elkarriketak euskaraz izateko maila lortzea.
 - b. Langile guztiek lortzea oinarrizko euskara maila (ulermena).
 - c. Euskara maila altua lortzea, ingurunearen eta lanpostuaren arabera.
- B. Langileen euskararekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa.
- C. Erabiltzaileei arreta eta tratua euskaraz ematea.
- D. Idatzizko dokumentazioa elebitan eskaintzea: irudi korporatiboa zein barne- eta kanpo-dokumentazioa elebitan eskaini behar dira.

Esperientziaren deskribapen laburra (esperientziaren nondik norakoak eta garatutako jarduerak deskribatzea, parte hartu duten pertsonak, non garatu den, etab.)

“Euskaraz gozatuz” erakundearen barruan euskararen inguruko ekimen guztietan erabiltzen den izena edo izenburua da.

Lau fasetan antolatzen da ekimenaren ibilbidea, martxan jarri zenetik:

1. 2012-2013: lehenik eta behin, euskara zerbitzu bat kontratu zen, eta diagnostiko bat eta egoera soziolinguistiko orokorraren eta erakundearen egoera linguistikoaren analisi partekatua egin zen.
2. 2014-2015: Euskara Plana egin zen, epe laburrera eta luzera begirako helburuekin. Gainera, hizkuntza-politika bat ezarri eta erabaki estrategiko batzuk hartu ziren:
 - a. Langileak trebatzea.
 - b. Idatzizko dokumentazioa elebitan eskaintzea.
 - c. Sentsibilizazioa.
 - d. Bezero, hornitzaile eta erabiltzaileenganako arreta elebitan eskaintzea.
3. 2016: Euskara Plana garatzen jarraitu zen, eta urteko ekintza plana egin zen..
4. 2017-2020: ekintza plan bat garatu zen, eta hirugarren sektorean euskara indartzearen eta bultzatzearen aldeko apustua egin zen.

Ibilbide horretan, ekintza zehatzetan gauzatu diren hainbat ekimen garatu dira; horien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- “Euskarazko elkarriketarako oinarrizko gidaliburua” argitaratu da.
- Ekimenari ikusgarritasuna eman zaio, parte hartu duten pertsonak aldean zeramatzaten “Euskaraz gozatuz” lelodun txapekin.
- Elkartearen “La gacela informativa” aldizkarian euskaraz argitaratu dira artikulu batzuk.
- “Etxez etxeko laguntzaile baten kronikak” argitaratu da.

Baliabideak eta kolaborazioak (adierazi ekimena burutzeko beharrezko baliabide materialak, giza baliabideak eta ekonomikoak eta, hala badagokio, erakundetik kanpoko zein beste erakunde edo pertsona sartu den proiektuan edo ekimenean)
<ul style="list-style-type: none"> - Barne mailan, euskararen arloa koordinatzeko pertsona bat (erakundeko langilea). - Kanpo mailan, euskara zerbitzua (Artez).
Egitasmoa martxan jartzeko zailtasun nagusiak
<ul style="list-style-type: none"> - Erakundearen ingurune soziolinguistiko ez oso euskalduna. - Erakunde barruko ohiturak: euskararen presentzia nahiko txikia zen.
Egitasmoa martxan jartzeko elementu erraztaileak
<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen aldeko apustuan erakundeko zuzendaritzak izan duen inplikazioa. - Langileen euskararekiko sentsibilizazioa eta, beraz, erakundean euskara sustatzeko konpromisoa. - Instituzioetatik jasotako laguntza ekonomikoek ekintzak martxan jartzea erraztu dute. - Kanpoko euskara zerbitzu baten laguntza, diagnostikoaren eta euskararen sustapenaren prozesuetan lagundu duena.
Ebaluazio-sistema (nork, nola eta noiz ebaluatzen den...)
<ul style="list-style-type: none"> - Erakundearen euskara plana, ekintza-lerroak jasotzen dituena. - Erakundearen hizkuntza-politika, hizkuntza-irizpideak ezartzen dituena. - Euskararen inguruko urteko helburuak, eta helburu horiek neurtzeko batzordeak.
Eraitza nagusiak (helburuen betetze maila, espero ez ziren eraitza positiboak eta negatiboak, prozesuarekiko gogobetetasun maila...)
Oro har, erakundean euskarak presentzia handiagoa duela nabaritu da. Nabarmenezkoak dira, batez ere: <ul style="list-style-type: none"> - Erakundearen paisaian eta karteletan gertatu diren aldaketak. - Barne- eta kanpo-dokumentazioan izan diren aldaketak, elebitasunaren presentzia handia baita orain. - Langileek euskarak erakundean presentzia izatea onartu izana, eta hizkuntza sustatzeko haien prestasuna.
Ibilbidea eta etorkizunerako asmoak (noiztik dagoen martxan, aurrera begira dauden aurreikuspenak...)
<ul style="list-style-type: none"> - 2012-2013 urteetan hasi zen. - Egungo euskara plana 2021. urtera artekoa da.
Eredua errepikatuzeko gomendioak (zer gomendatuko zenioke bere erakundean antzerako ekimenean bat martxan jartzeko asmoa duen norbaiti...)
<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen aldeko apustuan erakundeko zuzendaritzak inplikazioa izatea. - Barne-diagnostikoa egitea, erakundearen egitura eta euskarak egitura horretan duen egoera aztertzea.

- Ahaleginak batzeaz eta euskara sustatzeko ekintzak zuzentzeaz arduratuko den euskara batzorde bat sortzea.

Harremanetarako datuak (norekin jarri beharko litzatekeen harremanetan, norbaitek informazio gehiago beharko balu edo kontsultaren bat egin nahiko balu)

Harremanetarako pertsona: Joseba Larrinaga

Helbidea: Jose Luis Goyoaga kalea, 32-3. Pisua. 301 gela. 48950 Erandio (Bizkaia)

Telefonoa: 94.643.01.74

E-posta: jlarrinaga@grupourgatzi.eus

Informazio gehiagorako webgunea: www.grupourgatzi.eus

Bestelako informazioa

8. ERAKUNDEETAN EUSKARA SUSTATZEKO BALIABIDEAK

Hurrengo atalean, euskararen erabilerarekin eta normalizazioarekin zein hizkuntzaren hizkuntza-kalitatearekin lotuta lan egin nahi duten erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeen baliabide batzuen bilduma eskaintzen da. Aholkularitzarekin eta laguntza teknikoarekin, finantzaketarekin, prestakuntzarekin, hizkuntza-baliabideekin, baliabide teknologikoekin eta ebaluazio-baliabideekin lotuta baliabide esanguratsuenetako batzuk hautatu ditugu. EHSSeko erakundeei irekita daude jarraian aurkezten diren aukeratutako baliabideak.

Lan-munduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko abian jarritako ekimen nagusiak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak LanHitz⁴⁰ Programaren baitan abian jarritakoak dira. Aipatutako programak Foru Aldundien, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren eta Ekonomia Garapen eta Azpiegitura Sailaren (Industria) kolaborazioa eta enpresa-elkarteen eta sindikatuen bermea eta babesa jaso ditu.

Gainera, badaude beste zerbitzu eta baliabide lagungarri batzuk ere. Arlo sozioekonomikora espezifikoki zuzenduta ez dauden arren, erakundeetarako erabilgarriak izan daitezkeenez, aintzat hartu beharrekoak dira.

Amaitzeko, ikerketa-proiektu honetatik eratorritako tresna batzuk ere gehitu ditugu. Erakundeek esparru honen inguruan egiten duten lana babesteko erabilgarriak izan daitezke.

⁴⁰ Programaren helburua euskarak enpresetan duen presentzia eta erabilera era errazean bultzatzea da. Momentuko kudeaketa-sistemei jarraiki, euskara erakundean integratzea, egoera soziolinguistikoa kontuan izanik eta gaitasun eta nahietan oinarrituz.

Hurrengo eskeman dago jasota geroago zehaztuko ditugun baliabideen indizea. Baliabide horiek guztiak kasu bakoitzerako eskatutako baldintzak betetzen dituzten EHSSeko erakundeei irekita daude.

ERAKUNDEETAN EUSKARA SUSTATZEKO BALIABIDE BATZUK

ERAKUNDE PRIBATUETARAKO TRESNAK, AHOIKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Erreferentzia Marko Estandarra (EME). ● Erakunde pribatuetarako aholkularitza eta laguntza teknikoak. ● Hizkuntza-berdintasuna kudeatzeko tresnak. ● Esparru sozioekonomiko pribaturako bibliografia espezifikoak. ● Erakundeetan euskararen erabilera eta bultzada neurtzeko galdera-sorta eta aldaketen jarraipena egiteko txantiloia.
ERAKUNDE PRIBATUETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK	<p>EUSKO JAURLARITZA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Laneko zentroetan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeko diru-laguntzak (LanHitz). ● Euskararen sustapenerako, hedapenerako eta/edo normalizaziorako diru-laguntzak enpresei zuzendutako ingurune digitalean (IKT). ● Pertsona fisikoei edo juridiko pribatuei zuzenduta, gizartean euskara sustatzeko, hedatzeko eta/edo normalizatzeko diru-laguntzak (Euskaingintza deialdia). <p>FORU ALDUNDIAK</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzak euskararen erabilera sustatzeko planak egiten dituzten erakundeentzat. ● Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia sendotzen duten produktuak prestatzen dituzten erakundeentzako Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzak. ● Euskara sustatzeko, hedatzeko edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoentzako Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzak. ● Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko programak garatzen dituzten erakundeentzako Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak.
PRESTAKUNTZARAKO, GAIKUNTZARAKO ETA IKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Enpresentzako prestakuntza-eskaintza eta informazioa. ● Langileentzako hizkuntza-plangintza arloko prestakuntza. ● Euskarazko laneko prestakuntzarako eta gaikuntzarako material didaktikoak.
HIZKUNTZA- BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Onlineko hiztegiak, banku terminologikoak, zuzentzaile ortografikoak eta lexikoaren zuzentzaileak eta abar.
BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Kudeaketa arloko softwarea, sistema eragileak, Skype eta abar.
EBALUAZIOKO ETA AKREDITAZIOKO BALIABIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Bikain. ● Bai Euskarari.
BESTE BALIABIDE BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> ● Soziolinguistika Klusterra

Euskara sustatzeko erakunde pribatuetarako tresnak, aholkularitza eta laguntza teknikoak

● Erreferentzia Marko Estandarra (EME)

Erreferentzia Marko Estandarra (EME) laguntza-koadroa da; haren helburua da erakunde edo enpresa estandar bat bistaratzea, hura osatzen duten eta hizkuntzaren erabilera normalean zehazten den arloetatik abiatuta. EMEk erakunde bat egituratzen duten hiru bloke berezi azpimarratzen ditu: enpresaren irudia eta komunikazioa, kanpoko harremanak eta barneko harremanak.

Koadroaren helburua erakundeek era sistematikoa, erraz eta argian euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko helburuak ezartzen, eta erakundeko kudeaketa-sisteman euskararen kudeaketa txertatzen laguntzea da. Euskara Plana abian jartzeko aukera aztertzen ari diren edo ekintza zehatzak egin nahi dituzten erakundeei laguntza emateko baliagarria izan daiteke.



INFORMAZIO GEHIAGO:

[EMeri buruzko informazio gehiago](#)

[EMEren laguntza-koadroa](#)

● Erakunde pribatuetarako aholkularitza eta laguntza teknikoak.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak etengabeko aholkularitza-zerbitzua eta enpresei zuzendutako laguntza teknikoak ditu LanHitz markoaren baitan. Erabilerarekin lotutako irizpideei, baliabideei eta tresnei buruzko aholkularitza orokorra eta euskara-planak zehazteko eta kudeatzeko laguntza teknikoak eskaintzen ditu (planak nola diseinatu eta ezarri, plan horien ebaluazioa nola egin eta abar).



KONTAKTUA:

Hizkuntza Politika Sailburuordetza-Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza

Posta-helbidea:
Donostia kalea, 1
1010 Gasteiz
Telefona:
945019532/08

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek ere eskaintzen dute laguntza teknikoak eta informazioa edo laguntza eskatzen dieten enpresei aholkularitza eskaintzen diete.



KONTAKTUA:

Bizkaiko Foru Aldundia-
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza
Posta-helbidea:
Recalde zumarkalea 30
48009 BILBAO
Telefona:
94 406 87 70

Gipuzkoako Foru Aldundia-
Euskararen
Normalkuntzarako
Zuzendaritza
Posta-helbidea:
Gipuzkoa Enparantza, z.g.
20004 DONOSTIA
Telefona:
943 11 23 94

Gainera, erakundeek kanpoko beste enpresa batzuetara ere jo dezakete aholkularitza eta laguntza teknikoak jaso ahal izateko. Esteka honen bidez kontsulta daiteke Eusko Jaurlaritzaren webguneak eskaintzen duen aholkularitza-enpresen zerrenda: [aholkularitzako enpresak](#)

- **Hizkuntza-berdintasuna kudeatzeko tresnak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kabia organismo autonomoaren bitartez, gizarte zerbitzuetan hizkuntza-normalkuntzako planak ezartzeko tresna bat eta hizkuntza-berdintasunaren kudeaketari buruzko jarraibideen gidaliburu bat eskaintzen ditu. Honako esteka hauetan kontsulta daitezke:

http://www.kabia.eus/documents/114554/591278/Kabia_euskara_txertatu_2015urr08_eu+2.pdf/6cae5d86-725e-4eaf-b621-e037fb12852e

http://www.kabia.eus/documents/114554/1193379/KABIA_Jarraibidea_eredua_Osoa_es.pdf/a9a6eb50-8ccb-44bc-9b8d-1d3e9631b435

- **Esparru sozioekonomiko pribaturako bibliografia espezifikoa.**

LanHitzen markoaren baitan, erreferentzia bibliografikoak eskaintzen dira hainbat euskarritan esparru sozioekonomiko pribatuan euskararen erabileraren hizkuntza-normalizazioaren inguruan. Hizkuntza-politikarekin, euskara-planekin, dokumentu-ereduekin, esperientziekin eta abarrekin lotutako ekimenen eta gogoeten bilduma da.



INFORMAZIO GEHIAGO:

[Bibliografiari buruzko informazio gehiago](#)

- **Erakundeetan euskararen erabilera eta bultzada neurtzeko galdera-sorta eta aldaketen jarraipena egiteko txantiloia.**

Ikerketa-proiektu horren baitan, erakundeentzat eskuragarri dagoen galdera-sorta aplikatu da. Horren helburua etorkizunean aplikatzen jarraitu ahal izatea eta egoeraren inguruko jarraipena egitea da.

Era berean, sektore osoarentzat lortutako datu nagusiak jasotzen dituen adierazle-sistema duen txantiloia sortu da. Horri esker, erakundeek datuak bizkor aldera ditzakete sektore osokoenekin.

Galdera-sorta zein txantiloia txosten honen eranskinean kontsulta daitezke.

Erakunde pribatuetan euskara bultzatzeko laguntza ekonomikoak

Oro har, jarduera ekonomikoren bat garatzen duten erakundeei irekita egoten dira deialdiak. Nolanahi ere, ikus kasu bakoitzean zein erakunde izan daitekeen laguntza ekonomikoko lerro bakoitzaren onuraduna.

EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoak, bere helburu estrategikoen artean, esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko zein bitzita sozialean (bereziki IKTetan eta komunikabideetan) euskararen presentzia handitzeko eta sendotzeko beharra jasotzen ditu. Helburu horiek lortzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diru-laguntzen hainbat lerro ditu, urtero argitaratzen dituenak, eta erakundeetarako interesgarriak izan daitezke honako hauek:

- **Laneko zentroetan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeko diru-laguntzak (LanHitz)**

LanHitz programaren helburua euskarak enpresetan duen presentzia eta erabilera era errazean bultzatzea da. Momentuko kudeaketa-sistemei jarraiki, euskara erakundean integratzea, egoera soziolinguistikoa kontuan izanik eta gaitasun eta nahietan oinarrituz.

LanHitz programaren baitan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak finantzaketa-lerroa arautzen du esparru sozioekonomikoan euskara-planak egin ahal izateko. Horren guztiaren helburua da laneko zentroetan euskararen erabilera eta presentzia indartzea. Zehatzago esanda, deialdiaren helburuan enpresa pribatuan lehen aipatutako [Erreferentzia Marko Estandarra](#) (EME) izenekoan jasotako helburu eta jarduerak gauzatu ahal izateko baliabide ekonomiko espezifikoak eskaintzea da.

- *Onuradunak:* onuradunak EAEn kokatutako lan-zentroak dituzten pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak izan daitezke.
- *Laguntzaren aldizkakotasuna:* urtean behin.
- *Laguntza ematen duen erakundea:* Hizkuntza Politika eta Kultura Saila-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza.
- *Deialdiaren araudia:* 2017ko ekainaren 27ko AGINDUA, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, EAEn kokatutako sektore pribatuko erakundeen laneko zentroetan euskararen erabilera eta presentzia bultzatzeko 2017ko diru-laguntzak arautzen eta deialdia egiten duena (LANHITZ).
- *Informazio gehiago:* [hemen](#)



KONTAKTUA:

Hizkuntza Politika
Sailburuordetza-Hizkuntza Ikerketa eta
Koordinaziorako Zuzendaritza
Posta-helbidea:
Donostia kalea, 1
1010 Gasteiz
Telefona:
945019532/08

- **Euskararen sustapenerako, hedapenerako eta/edo normalizaziorako diru-laguntzak enpresei zuzendutako ingurune digitalean (IKT).**

Bitzita pertsonalean (batez ere IKT eta komunikabideetan), Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasotako helburu estrategikoa aurrera eramateko, Sail horrek arautzen eta deitzen ditu ingurune digitalean euskararen sustapenera, hedapenera eta/edo normalizaziora bideratutako diru-laguntzak. Euskarazko webguneak eta Interneterako beste formatu berritzaile batzuk edo gailu mugikorretarako euskarazko aplikazioak sortzeari lotutako proiektuek jaso ditzakete diru-laguntzak.

- **Onuradunak:** Diru-laguntzen modalitate hori gaitasun juridiko osoa eta jarduteko ahalmen osoa duten, eta indarrean dagoen legeriaren arabera legez eratuta dauden eta Aginduko 2. artikuluan aipatutako proiektuak garatzen dituzten enpresa guztiei zuzenduta dago. Diru-laguntzen deialdiarekin lotutako eraginetarako, honako hau da enpresaren definizioa: jarduera ekonomikoren bat garatzen duen pertsona fisikoa edo juridiko pribatua.
- **Laguntzaren aldizkakotasuna:** urtean behin.
- **Laguntza ematen duen erakundea:** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- **Deialdiaren araudia:** 2017ko maiatzaren 16ko AGINDUA, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Ingurune digitalean euskararen sustapenerako, hedapenerako eta/edo normalizaziorako 2017ko diru-laguntzen deialdia eta emakida arautzen ditu aipatutako arauak.
- **Informazio gehiago:** [hemen](#)




KONTAKTUA:
 Hizkuntza Politika
 Sailburuordetza-Hizkuntza
 Ikerketa eta
 Koordinaziorako
 Zuzendaritza
 Posta-helbidea:
 Donostia kalea, 1
 1010 Gasteiz
 Telefonoa:
 945019532/08

● **Pertsona fisikoei edo juridiko pribatuei zuzenduta, gizartean euskara sustatzeko, hedatzeko eta/edo normalizatzeko diru-laguntzak (Euskalgintza deialdia).**

Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautzen du gizartean euskararen sustapenera, hedapenera eta/edo normalizaziora bideratutako diru-laguntzen emakida eta deialdia. Besteak beste, diru-laguntzak jaso ditzakete esparru ez-formaletan euskararen erabilera bultzatzera eta sendotzera bideratutako proiektuek eta, bereziki, aisialdian garatzen direnek edo euskaldunak ez diren Euskadiko pertsonak eta etorkinak euskarara gerturatzen bideratutako proiektu eta ekimenek. Batez ere interesgarriak izan daitezke aisialdiaren esparruan hurrekin eta nerabeekin edo etorkinekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeentzat.

- **Onuradunak:** Diru-laguntzen deialdi hau Europar Batasuneko kide den edozein estatutan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaileetako batean helbide soziala edo nazionalitatea duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiei zuzenduta dago. Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izan, eta indarrean dagoen legeriaren arabera legez eratuta egon behar dute, eta Aginduko 5. artikuluan aipatutako proiektuak garatu behar dituzte.
- **Laguntzaren aldizkakotasuna:** urtean behin.
- **Laguntza ematen duen erakundea:** Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- **Deialdiaren araudia:** 2017ko martxoaren 22ko AGINDUA, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Gizartean euskararen sustapenerako, hedapenerako eta/edo normalizaziorako 2017ko diru-laguntzen emakida arautzen eta deitzen du (Euskalgintza deialdia).
- **Informazio gehiago:** [hemen](#)



KONTAKTUA:
 Hizkuntza Politika
 Sailburuordetza-Hizkuntza
 Ikerketa eta
 Koordinaziorako
 Zuzendaritza
 Posta-helbidea:
 Donostia kalea, 1
 1010 Gasteiz
 Telefonoa:
 945019532/08

FORU ALDUNDIAK

Horrez gain, foru-aldundiek ere badituzte euskara-planak prestatzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia bultzatzea xede duten produktuak prestatzeko eta abarretarako diru-laguntzak. Horien artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- **Bizkaiko Foru Aldundiko diru-laguntzak euskararen erabilera sustatzeko planak egiten dituzten erakundeentzat.**

- *Onuradunak:* diru-laguntzen onuradunak izan daitezke ezarritako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, sozietate kooperatiboak, banakako enpresaburu eta profesionalak.
- *Laguntzaren aldizkakotasuna:* urtean behin.
- *Laguntza ematen duen erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saila.
- *Deialdiaren araudia:* Bizkaiko Foru Aldundiaren 168/2016 FORU DEKRETUA, 2016ko abenduaren 5ekoa. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, 2017an euskararen erabilera sustatzeko planak burutzen dituzten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei eta profesionalak emateko.
- *Informazio gehiago:* [hemen](#)



KONTAKTUA:
Bizkaiko Foru Aldundia-
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza
Posta-helbidea:
On Diego Lopez Haroko
Kale Nagusia, 25
48009 BILBO
Telefona:
94 406 87 70

- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia sendotzen duten produktuak prestatzen dituzten erakundeentzako Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzak.**

- *Onuradunak:* Foru-dekretu honek araututako diru-laguntzen onuradun izan daitezke 2005eko maiatzaren 31ko Foru Arauko 12. artikuluko kausak betetzen ez dituzten eta baldintza hauek betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresaburuak eta profesionalak: a) Helbide soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. b) Dagokion Erregistroan izena emanda egotea.
- *Laguntzaren aldizkakotasuna:* urtean behin.
- *Laguntza ematen duen erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundia.
- *Deialdiaren araudia:* Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2016 FORU DEKRETUA, 2016ko abenduaren 5ekoa. Honen bidez, oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, 2017ko ekitaldian euskara informazioaren eta komunikazioaren teknologietan egon dadin produktuak prestatzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, banakako enpresaburuei eta profesionalak emateko.
- *Informazio gehiago:* [hemen](#)



KONTAKTUA:
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskara eta Kultura Saila
<http://web.bizkaia.eus/eu/euskera-eta-kultura>

● **Euskara sustatzeko, hedatzeko edo normalizatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoentzako Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzak.**

- *Onuradunak:* Foru-dekretu honek araututako diru-laguntzen onuradun izan daitezke 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko kausak betetzen ez dituzten eta baldintza hauek betetzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak: a) Helbide soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. b) Dagokion Erregistroan izena emanda egotea. c) Diru-laguntza eskatu den programa edo proiektuarekin lotuta, aurrekontu orokor araztuaren gutxieneko autofinantzaketa.
- *Laguntzaren aldizkakotasuna:* urtean behin.
- *Laguntza ematen duen erakundea:* Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saila.
- *Deialdiaren araudia:* Bizkaiko Foru Aldundiaren 167/2016 FORU DEKRETUA, 2016ko abenduaren 5koa, diru-laguntzak emateko oinarri-arauak eta deialdia onartzen dituena. Diru-laguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei, baldin eta 2017ko ekitaldian euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko jarduerak egiten badituzte.
- *Informazio gehiago:* [hemen](#)



KONTAKTUA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saila
<http://web.bizkaia.eus/eu/euskera-eta-kultura>

● **Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko programak garatzen dituzten erakundeentzako Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak.**

- *Onuradunak:* onuradunak izan daitezke beren jarduera esparruan euskararen erabilaren sustapeneko eta normalizazioko programak garatzen dituzten edo helburu berarekin ikerketa aplikatuko proiektuak bideratzen dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatutako erakunde juridikoak (erakunde profesionalak, enpresa-elkarteak edo erakunde sindikalak).
- *Laguntzaren aldizkakotasuna:* urtean behin.
- *Laguntza ematen duen erakundea:* Diputatu Nagusiaren alorra. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia-Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Deialdiaren araudia:* euskararen erabilera sozialaren baitan laguntzak emateko 2012ko deialdia eta oinarri arautzaileak.
- *Informazio gehiago:* [hemen](#)



KONTAKTUA:

Gipuzkoako Foru Aldundia-
Euskararen
Normalkuntzarako
Zuzendaritza
Posta-helbidea:
Gipuzkoa Enparantza z.g.
20004 DONOSTIA
Telefonoa:
943 11 23 94

Trebakuntzarako, gaikuntzarako eta ikaskuntzarako baliabideak

Enpresek eta langileek uneoro beren prestakuntza-beharrak asebate ditzaketen prestakuntzako eskaintza eta informazioa eskaintzen dituzten erakundeak dituzte eskuragarri: [Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila](#), [Hobetuz](#), [Lanbide](#), [Forcem](#), [INEM](#), lanbide-heziketako zentroak eta abar.

Gainera, urte batzuetan, **Linguanet** proiektua egon da martxan esparru sozioekonomiko pribatuan (hizkuntza-plangintzako prestakuntza) hizkuntza-normalizazioaren arloan barneratu nahi duten edo horretan lan egiten duten **profesionalak gaitzera zuzendutako** onlineko prestakuntza-proiektua da. Lan arlo pribatuan egindako hizkuntza-plangintzari buruzko oinarritzko ikastaro teorikoa da eta tailer praktikoekin osatzen da. 50 orduko iraupena du eta Asmoz Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarrekin abian jarritako ekimena da. Batez ere honako hauei zuzenduta dago: hizkuntza-plangintzan prestakuntza behar dutenak; euskara-teknikariak, koordinatzaileak eta enpresetako euskara-batzordeetako kideak; erakunde publikoetako euskara-teknikariak; eta herrietako kultura eta euskara sailetako ordezkariak.

Antzeko helburua duen, baina lan-mundura bakarrik zuzenduta ez dagoen beste ikastaro bat da Asmoz Fundazioaren (EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen esparruan) **Hiznet graduondoko ikastaroa, hizkuntzaren ezagutza kualifikatura eta sistematizatura bideratutakoa**.

Bestalde, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ([HABE](#)) euskarazko lan-prestakuntzarako eta -gaikuntzarako material didaktikoak prestatzen ditu.

Hizkuntza-baliabideak

Erakunde pribatuetarako baliabide espezifikoak ez diren arren, biztanleek euskararen hizkuntza-kalitatea eta erabilera bultzatzen dituzten hizkuntza-baliabideak dituzte eskuragarri eta langileentzako erabilgarriak izan daitezke: onlineko hiztegiak, banku terminologikoak, zuzentzaile ortografikoak eta lexikoaren zuzentzaileak eta abar. Honako hauek dira batzuk:

- *Onlineko hiztegiak*: onlineko formatuan, hiztegi hauetarako sarbidea izan dezakegu: euskara-euskara ([Harluxet](#)), euskara-gaztelania ([Elhuyar](#)) eta euskara-ingelesa ([Morris](#)). Horrez gain, badaude beste hiztegi batzuk ere eskuragarri ([Sinonimoen hiztegia](#) eta [Terminologia eta Lexikografiako Zentroa](#)). Hirugarren Sektoreko Hiztegi Teknikoa, onlineko formatuan ([hiztegi teknikoa](#)) eta pdf-an (<http://www.3shiztegia.net/Default.aspx>), Hirugarren Sektoreko erakundeek hizkuntza-beharrei erantzuna emateko tresna baliagarria izan daiteke.
- *Banku terminologikoak*: Eusko Jaurlaritzaren webgunean dago eskuragarri Euskalterm [terminologia banku publikoa](#). Hainbat diziplinatako euskarazko terminoak eta gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez haien termino baliokideak jasotzen ditu.
- *Zuzentzaileak*: horien artean, nabarmendu beharrekoak dira zuzentzaile ortografikoak ([Xuxen](#)) eta lexikoaren zuzentzaileak ([hobelex](#)).



INFORMAZIO GEHIAGO:

[Enpresentzat informazioa eta trebakuntza-eskaintza.](#)

[Langileentzako prestakuntza hizkuntza-plangintzetan.](#)

[Langileak euskaraz trebatzeko ikasmaterialak](#)

Testuaren egokitzapena da kontuan izan beharreko beste alderdi bat. Horrekin lotuta, araudia errespetatu behar da eta helbide honetan dago kontsultagai: [Euskaltzaindiaren arauak](#).

Eusko Jaurlaritzaren webguneak, gainera, euskara eta euskaratik egindako itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuen erakunde hornitzaileen zerrenda eskaintzen du:

- [Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala](#) (IZO).
- [Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte](#) (EIZIE).

Baliabide teknologikoak

Herritarrek hainbat tresna teknologiko dute eskuragarri ordenagailuarekin euskaraz lan egiteko: kudeaketako softwarea, sistema eragileak, Skype eta abar. Esteka honetan kontsulta ditzakegu tresna horiek eta nabigatzailea euskaraz konfiguratzeko jarraibideak, instalatzeko eskuliburuak eta abar.

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-20660/eu/contenidos/informacion/euskarazko_softwarea/eu_9567/aurkib.html

Esteka honen bidez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietarako deialdi honen bidez sortutako IKT produktuak kontsulta daitezke.

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ikt-deialdiaren-laguntzaz-sortutako-euskarazko-ikt-produktuak/web01-a2lingu/eu/>

Gainera, Azkue Fundazioak ere baliabide teknologiko interesgarriak eskaintzen ditu, hala nola Tori, fitxategiak elkartrukatzeko tresna, eta mugikor eta tabletatarako aplikazioak.

<http://www.azkuefundazioa.eus/euskara-sarean-josten/baliabideak/softwarea/tori-fitxategien-trukaketarako-baliabidea>

Ebaluazioko eta akreditazioko baliabideak

Gaur egun erakunde pribatuetan indarrean dauden kalitateko parametroen arabera enpresetan euskararen erabilera ebaluatzeko eta modu sistematikoan akreditatzeko prozedurak sortzeko asmoz, gaur egun kalitate arloko bi ziurtagiri daude: [BIKAIN-EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA](#) eta [BAI EUSKARARI](#).

Bere horretan baliabideak ez diren arren, erakundeen kasuan aitortzea eta prestigioa ematen dituen elementua izateaz gain, ebaluatzeko neurria ere badira.

BIKAIN

2007an euskararen kalitatea eta lan eta gizarte arloak elkartzen zituen EAEko lehen ziurtagiri publikoa aurkeztu zen. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Kalitatearen Sustapenerako Euskal Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenak ahalbidetu zuen ([Euskalit](#)). Helburua enpresetako hizkuntza-normalkuntzarako prozesuen ebaluaketaren eskema definitzea zen.

Itunaren bidez, indarrean dauden kalitatea ziurtatzeko sistemek erabiltzen dituzten parametro eta irizpideak erabiliz, euskaraplanak garatzen ari ziren erakunde pribatuei ebaluaketarako tresna egokia eskaini nahi zitzaien.

Kalitatea eta euskara uztartzen dituen ziurtagiri publikoa aurrerapauso esanguratsua izan da EME-Erreferentzia Marko Estandarreko hiru ardatzetan oinarritutako LanHitz programatestuinguru orokorra garatzeko garaian.

BAI EUSKARARI

2000n, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak ([Kontseilua](#)) Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zuen, Bai Euskarari Estrategia Planeko Ituna gauzatzen lagundu zuten erakundeen eskariari jaramon eginez. Ziurtagiriaren Elkarateak kudeatzen du 2007az geroztik. Egiteko nagusia, inguru sozioekonomikoko erakundeen arteko elkarlanerako bideak bultzatzearen eraginez, euskararentzako gune berriak aztertzea eta sustatzea da. Ziurtagiria lau irizpideren arabera egindako balorazioetan oinarritzen da: pertsonen hizkuntza-gaitasuna, irudi korporatiboa eta paisaia linguistikoa, kanpo-harremanak eta barne-harremanak.

Beste baliabide batzuk

Orain arte aipatutako baliabideez gain, [Soziolinguistika Klusterrak](#) ezagutza soziolinguistikoa eskaintzen du EAEn; Kluster hori irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Berrikuntzako Bitarteko Erakundea izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa. Bere egitekoa da ezagutza hori sortzea eta kudeatzea, euskara berreskuratzeko prozesuaren erronkei, interesei eta beharrei erantzuteko. Ikerkuntzaren eta dibulgazioaren bitartez, EAEko errealitate soziolinguistikoiari buruzko ezagutzan sakontzeko lan egiten du Soziolinguistika Klusterrak.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

CANTO A., LOPEZ-AROSTEGUI, R.; ROMEO, Z. *Euskadiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia. Hemen eskuragarri: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1825_2_EuskadiHSSLiburuZuria2015.pdf

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1999. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/lan_mundurako_hpolitika/es_00141/adjuntos/ebpn14gazt.pdf

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko eta hizkuntza-normalizaziora modu sistematikoagoan eta eraginkorragoan hurbiltzeko irizpideak eta estrategiak*. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, Gasteiz, 2005. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjunto/s/esparru_sozio_eko.pdf

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *Itun berri baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2009. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/Maketa-Itun_Eran_Baja.pdf

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *ESEP: Euskara sustatzeko ekintza-plana*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2012. Hemen eskuragarri: <http://www.euskadi.eus/esep-marko-orokorra-eta-dokumentu-nagusiak/web01-a2esep/eu/>

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *EGOD: Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoak*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2013. Hemen eskuragarri: <http://www.habe.euskadi.eus/noticia/2016/egob-egitasmoaren-eta-euskararen-gaineko-diskurtso-partekaturako-zoru-komunaren-aurkezpena-durango/s23-4728/eu/>

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *Eta hemendik aurrera zer?* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2016
Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *“Euskarazko IKTak: GOMENDIOAK HERRI AGINTARIENTZAT”*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2016

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *“Gu Gazteok. Laburpen-txostena eta lan-ildoen proposamena aurrera begira”*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2016

Euskararen Aholkularitza Kontseilua. *“Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak” “Euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen azterketa”*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2016

Kultura Saila. *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1999. Hemen

eskuragarri: http://ww.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/lan_mundurako_hpolitika/es_00141/adjuntos/ebpn14gazt.pdf

Eusko Jaurlaritza. 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 legea, Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1982ko abenduaren 16koa, 160. zk. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1982/12/s82_0160.pdf

Eusko Jaurlaritza. Pertsona Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuko 6/2003 Legea. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2003ko abenduaren 30ekoa, 254. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2003/12/0307118a.pdf>

Eusko Jaurlaritza. 2008ko uztailaren 1eko 123/2008 dekretua, Pertsona Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2008ko uztailaren 16koa, 135. zk. Hemen eskuragarri: http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/kb_pubs_folletos/eu_folletos/adjuntos/folleto_derechos_linguisticos_decreto_eu.pdf

Eusko Jaurlaritza. 2010eko uztailaren 20ko 204/2010 dekretua, Pertsona Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua aldatzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2008ko uztailaren 16koa, 142. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2010/07/1003562e.shtml>

EUSKO JAURLARITZA. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2016ko maiatzaren 19koa, 94. zk. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/05/1602096e.pdf>

Hizkuntza Politika Sailburuordetza. *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Autonomia Erkidegoa*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2016. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html#inkesta

Hizkuntza Politika Sailburuordetza. *Euskararen erabilera EAEko enpresa handietan*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2003. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/100_langiletik.html

Hizkuntza Politika Sailburuordetza. *Euskararen erabilera EAEko jatetxeetan eta tabernetan*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2003. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-11597/eu/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/saltoki.html

Hizkuntza Politika Sailburuordetza. *Euskararen erabilera EAEko txikizkako merkataritza-saltokietan*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2003. Hemen eskuragarri: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14154/eu/contenidos/informacion/euskararen_egoera_lan_munduan/eu_00151/txikizkako.html

10. ERANSKINAK

10.1. Galdetegia

EUSKARA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEETAN: GALDETEGIA

A: Erakundearekin lotutakoak...

1. Erakundearen izena: _____
2. Galdetegi hau betetzen ari den pertsonaren izena _____ eta erakundearen duen lanpostua: _____
3. Zer udalerritan dago erakundearen EAEko egoitza edo ordezkaritza nagusia? _____
4. Zer lurralde historikotan daude erakundearen EAEko egoitzak (bat baino gehiago izan ditzake)?
 - Bizkaian daude egoitza guztiak
 - Gipuzkoan daude egoitza guztiak
 - Araban daude egoitza guztiak
 - Bizkaian eta Araban daude egoitzak
 - Bizkaian eta Gipuzkoan daude egoitzak
 - Gipuzkoan eta Araban daude egoitzak
 - Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban daude egoitzak

OHARRA: ZURE ERAKUNDEAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LIBURU ZURIAREN GALDETEGIAN PARTE HARTU BALDIN BAZUEN, EZ DA BEHARREZKOA GALDERA HAUEI ERANTZUTEA, ETA 13. GALDERARA JAUZI EGIN DEZAKEZU (HURRENGO ORRIALDEAN)

5. Figura juridikoa:

- Elkartea
- Fundazioa
- Ekimen sozialeko kooperatiba
- Kongregazio erlijiosoa
- Beste batzuk. Zehaztu _____

7. Zein izan da zure erakundeko urteko diru-sarreraren gutxi gorabeherako bolumena 2013an?

12.000 € edo gutxiago
12.001 € eta 60.000 € artean
60.001 € eta 300.000 € artean
300.001 € eta 1.500.000 € artean
1.500.000 € baino gehiago

6. Erakundearen sorrera-urtea:

8. Bigarren mailako sare edo erakunderen bateko kide al da zure erakundea?

Bai
Ez

Erantzuna baiezkoa bada, zer sare edo erakundetako kide da? _____

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
<p>9. Gutxi gorabehera, zure erakundearen zenbat BORONDATEZKO PERTSONA aritzen dira?</p> <p><i>Borondatezko pertsonak aipatzen ditugunean, hauek datozkigu gogora: ekarpen ekonomikirik jasotzen ez dutenak, jarduera eskuzabaltasunez egiten dutenak, izaera solidarioarekin, borondatez eta libre, eta diruz ordaindutako zerbitzu profesionalik gabe.</i></p> <p><i>Gogoan izan gobernu-organoetako langileak ere sartuta daudela (zuzendaritza-batzordea edo patronatuko batzordea...). Borondatezko pertsona egonkorak eta aldi behingoak zenbat behar dituzu</i></p>			
<p>10. Gutxi gorabehera, SOLDATAPEKO ZENBAT LANGILEK ditu zure erakundeak?</p> <p><i>Diruz ordaindutako langileak aipatzen ditugunean, erakunderako zeregin jakin bat egiten duten eta horregatik diruz ordaintzen diren pertsonen multzoaz ari gara.</i></p> <p><i>Ez dira aldi behingo laguntzak kontatzen (ohiko laguntza-loturak egon behar du), ez eta praktikan dauden edo bekadunak diren pertsonak ere. Hemen ez daude erregistratuta EEEen eta txertatuta prozesuan (txertatze-enpresa) babestutako enplegu pertsonala.</i></p>			

11. Zure erakundearen nagusiki zein TALDERI dagokion esan beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Erantzun-aukera bakarra aukera dezakezu. Zure erakundearen errealitateari ondoen egokitzen dena

- Buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak (buruko gaixotasuna) eta haien familiartekoak
- Ezgaitasunak dituzten pertsonak eta haien familiartekoak
- Haurtzaroa eta nerabezaroa, eta haien familiartekoak
- Gazteak
- Emakumeak
- Adinez nagusiak diren pertsonak
- Etorkinak
- Errefuxiatutako pertsonak eta babeslekua behar dutenak
- Adikzio-arazoak dituzten edo droga-mendekotasuna duten pertsonak
- Txirotasun-, marjinazio- edo bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak
- Gaixotasunak dituzten pertsonak (kronikoak, arraroak...)
- Familiak (anitzak, familia bakarrekoak, banandutako amak eta aitak...)
- Gutxiengo etnikoei dagozkien pertsonak
- Preso dauden eta preso egon diren pertsonak
- Etxebizitarik gabeko pertsonak
- Larrialdi edo premia sozialean dauden pertsonak
- Langabezia-egoeran dauden pertsonak
- Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak diren emakumeak
- Prostituzioan aritzen diren pertsonak
- Gayak, lesbianak, transgeneroak
- Borondatezko pertsonak eta profesionalak
- Biztanleria, oro har
- Beste pertsona eta talde batzuk (zehaztu) _____

12. Adierazi arreta ematen diezuen taldeekin zure erakundearen egiten duen JARDUERA edo jardura motak **Beharrezkoak diren adina erantzun-aukera adieraz ditzakezu**

	Bai	EZ
Eskubideen sustapena (banakakoak eta taldekakoak), salaketa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikerkuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Informazio-kanpainak, sentsibilizazio soziala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Arreta psikosoziala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lan-mundura sartzea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Etzerako laguntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Trebakuntza, hezkuntza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Erresidentzien alternatibak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eguneko arreta edo eguneko egoitzaren arreta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Laguntza ekonomiko pertsonalak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Elikadura	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Osasun-arreta	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Aholkularitza, orientazioa (juridikoa, laborala...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bitartekaritza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Aisialdia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
-Laguntza soziala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Garapen komunitarioa edo tokikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Borondatezko pertsonen sustapena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Laguntzak edo diru-laguntzak alor sozialeko erakundeei	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beste jardura batzuk. Zehaztu _____	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

B: Hizkuntza-gaitasunari dagokionez...

13. Zenbat langilek daki euskara zure erakundearen? Eta zenbat boluntariok?

	Langileak	Boluntarioak
la denek		
Erdiek baino gehiagok		
Erdiek		
Laurden batek		
la inork		
Ez dago langilerik/boluntariorik		

14. Zein da, gutxi gorabehera, zure erakundeko euskaldun ehunekoa? % _____

Oharra: Euskalduna euskara ondo edo nahiko ondo ulertzeko eta hitz egiteko gai da.

15. Zenbat lagunek osatzen dute zure erakundeko zuzendaritza-taldea? Eta horietako zenbat dira euskaldunak?

Pertsona kopurua	
Euskaldun kopurua	

C: Euskararen erabilerari dagokionez

16. Zein da euskararen erabilera OROKORRA zure erakundearen? Oti 10erako eskala hau erabil dezakezu (0k esan nahi du ez dela inoiz euskara erabiltzen, eta 10ek esan nahi du beti erabiltzen dela euskara)

Euskara ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen		Gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da		Neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera			Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da		Euskara erabiltzen da beti	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

17. JENDEARENGANAKO ARRETAN, zein hizkuntzari ematen zaio lehentasuna zure erakundearen?

Herritarrenganako ekipamenduko zuzeneko informazio-zerbitzuan edo telefono bidezko arreta-zerbitzuan langileek erabiltzen duten lehentasunezko hizkuntza	1. Euskara 2. Gaztelania 3. Zehaztu gabe dago
Herritarrenganako ekipamenduko zuzeneko informazio-zerbitzuan edo telefono bidezko arreta-zerbitzuan lan egiten dutenen artean, zenbat dira euskaraz hitz egiteko gai? (ehunekoa)	% _____
Herritarrenganako ekipamenduko zuzeneko informazio-zerbitzuan edo telefono bidezko arreta-zerbitzuan lan egiten duten pertsonen zenbat erabiltzen dute euskara egunean zehar? (ehunekoa)	% _____

KANPO-KOMUNIKAZIOARI DAGOKIONEZ...

18. Zein da zure erakundearen euskararen AHOZKO erabilera KANPO-KOMUNIKAZIOAN? Otik 10erako eskala hau erabil dezakezu (0k esan nahi du ez dela inoiz euskara erabiltzen, eta 10ek esan nahi du beti erabiltzen dela euskara)

	Euskara ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen		Gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da		Neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera			Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da		Euskara erabiltzen da beti	
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
OROKORREAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
HORNITZAILEEKIN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
PUBLIZITATEAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ERABILTZAILEEKIN ETA FAMILIEKIN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
HERRI ADMINISTRAZIOAREKIN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BESTE BEZERO BATZUEKIN (beste erakunde pribatu batzuk...)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

19. Zein da zure erakundearen euskararen IDATZIZKO erabilera KANPO-KOMUNIKAZIOAN? Otik 10erako eskala hau erabil dezakezu (0k esan nahi du ez dela inoiz euskara erabiltzen, eta 10ek esan nahi du beti erabiltzen dela euskara)

	Euskara ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen		Gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da		Neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera			Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da		Euskara erabiltzen da beti	
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
OROKORREAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ERAKUNDEAREN IRUDIA	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ERROTULAZIOA	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
LIBURUXKAK-KATALOGOAK-TRIPTIKOAK	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
WEBGUNEAK	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BEZEROEKIN (posta elektronikoak, dokumentazioa...)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

BARNE-KOMUNIKAZIOARI DAGOKIONEZ...

20. Zein da zure erakundearen euskararen AHOZKO erabilera BARNE-KOMUNIKAZIOAN? Otik 10erako eskala hau erabil dezakezu (0k esan nahi du ez dela inoiz euskara erabiltzen, eta 10ek esan nahi du beti erabiltzen dela euskara)

	Euskara ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen		Gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da		Neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera			Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da		Euskara erabiltzen da beti	
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
OROKORREAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
LANGILEEN ARTEAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ZUZENDARITZA-TALDEAREN BATZARRETAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
BATZARRETAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

21. Zein da zure erakundearen euskararen IDATZIZKO erabilera BARNE-KOMUNIKAZIOAN? Otik 10erako eskala hau erabil dezakezu (0k esan nahi du ez dela inoiz euskara erabiltzen, eta 10ek esan nahi du beti erabiltzen dela euskara)

	Euskara ez da inoiz edo ia inoiz erabiltzen		Gaztelera euskara baino gehiago erabiltzen da		Neurri berean erabiltzen dira euskara eta gaztelera			Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzen da		Euskara erabiltzen da beti	
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
OROKORREAN	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
ERROTULAZIOA	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
SOLDATA-AGIRIAK ETA LAN-KONTRATUAK	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
IDAZKIAK, AGIRIAK	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
INFORMATIKAKO PROGRAMAK	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

D: Euskara bultzatzeko neurriak

22. Ba al du euskarak zure erakundearentzat onurarik?

Bai	Zein onura? _____
Ez	

23. NEURTZEN al da euskararen ERABILERA zure erakundearen? (datuak modu objektiboan jasotzen dituen galdetegi batekin)

Bai	
Ez	Zergatik? _____

24. Ba al dago euskararen gaiaz ARDURATZEN den pertsonarik edo talderik zure erakundearen?

Bai	Nor? Zein da bere lanpostua? _____
Ez	

25. Ba al du euskarak presentziarik zure erakundearen Plan Estrategikoan edo Kudeaketa Planean?

Batere ez		Txikia		Ez handia, ez txikia			Nahikoa		Handia	
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Zergatik? _____

26. Zure erakundearen hartzen al da kontuan euskara jakitea langileak hautatzerakoan?

<input type="checkbox"/>	Eskakizuna da lanpostu guztietarako
<input type="checkbox"/>	Eskakizuna da lanpostu batzuetarako
<input type="checkbox"/>	Eskakizuna da lanpostu batzuetarako eta merezimendua beste batzuetarako
<input type="checkbox"/>	Meritua da lanpostu guztietarako
<input type="checkbox"/>	Meritua da lanpostu batzuetarako
<input type="checkbox"/>	Ez da kontuan hartzen

27. Ba al du EUSKARA PLANIK zure erakundeak?

<input type="checkbox"/>	Bai, bere helburu eta ekintzekin jarri dugu martxan
<input type="checkbox"/>	Euskararekin lotutako ekintzaren bat egiten dugu, baina ez dago idatziz formalizatuta
<input type="checkbox"/>	Ez Zergatik? _____

28. Ba al ditu ezarrita HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK zure erakundeak?

<input type="checkbox"/>	Bai, zehaztuta ditugu irizpideak
<input type="checkbox"/>	Euskararekin lotutako ekintzaren bat egiten dugu, baina ez dago idatziz formalizatuta
<input type="checkbox"/>	Ez Zergatik? _____

29. Ba al du euskararekin lotutako ZIURTAGIRIREN bat zure erakundeak?

<input type="checkbox"/>	Bai Zein? _____
<input type="checkbox"/>	Ez Zergatik? _____

30. Orain arte, jarri al du martxan zure erakundeak EUSKARAREN SUSTAPENAREKIN LOTUTAKO NEURRI EDO EKINTZARIK?

<input type="checkbox"/>	Bai Zein? _____
<input type="checkbox"/>	Ez (egin jauzi 36. galderara) Zergatik? _____

31. Jasotzen al du zure erakundeak euskara sustatzeko ekintzetara bideratutako laguntza ekonomikorik?

<input type="checkbox"/>	Bai Zein? _____
<input type="checkbox"/>	Ez

32. Erakundeak euskararen sustapenarekin lotutako neurriak edo ekintzak martxan jarri baditu, zein izan dira horretarako BI ARRAZOI NAGUSIAK?

	Lehenengo arrazoi nagusia	Bigarren arrazoi nagusia
Langileek edo boluntarioek eskatu izana		
Erabiltzaileek eta familieek eskatu izana		
Herri administrazioak eskatu izana		
Beste bezero batzuek eskatu izana (beste erakunde pribatu batzuek)		
Gizarte-erantzukizuna		
Laguntza ekonomikoak		
Beste batzuk (zehaztu) _____		

33. Zure erakundeak euskara sustatzeko ekintzak edo neurriak martxan jarri baditu, nabarmenduko al zenuke emaitza positiboak izan dituenen bat? Zein izan dira JARDUNBIDE EGOKI horiek?

34. Zein izan dira zure erakundeak euskara sustatzeko izan dituen ZAILTASUN nagusiak?

35. Zer elementu ERRAZTU du euskararen sustapena zure erakundearen?

36. Etorkizunera begira, eta epe laburrean, aurreikusten al da euskararen erabilera normalizatzeko neurririk?

Bai	Zein neurri? _____
Ez	Zergatik? _____

37. Zer laguntza mota beharko zenukete neurri horiek gauzatzeko?

38. Zure erakundeak EUSKARAREN SUSTAPENARI eta/edo beste erakunde batzuekin HAUSNARTU beharreko gai interesgarriei dagokienez dituen KEZKAK adierazteko erabil dezakezu azken atal hau

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

10.2. Laginaren deskribapena

1. TAULA: GALDETEGIA ERANTZUTEN ERABILI DEN HIZKUNTZA (%)

HIZKUNTZA	%	Kopurua	Liburu Zuria (%)
Gaztelania	80,9	114	-
Euskara	19,1	27	-
Guztira	100,0	141	-

2. TAULA: PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN EGOITZA NAGUSIA DAGOEN LURRALDE HISTORIKOA. %

LURRALDE HISTORIKOA	%	Kopurua	Liburu Zuria (%)
Araba	20,9	29	14
Bizkaia	51,1	71	57
Gipuzkoa	28	39	29
Guztira	100,0	139	100

3. TAULA: PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN FIGURA JURIDIKOA. %

FIGURA JURIDIKOA	%	Kopurua	Liburu Zuria (%)
Elkartea	78,4	109	89,62
Fundazioa	13,7	19	6,65
Ekimen sozialeko kooperatiba	1,4	2	0
Kongregazio erlijiosoa	0,7	1	0
Beste batzuk	5,8	8	3,73
Guztira	100,0	139	100

4. TAULA: PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN BOLUMEN EKONOMIKOA. %

BOLUMEN EKONOMIKOA	%	Kopurua	Liburu Zuria (%)
12.000 € edo gutxiago	9,6	13	31,48
12.001 € eta 60.000 € artean	15,4	21	20,68
60.001 € eta 300.000 € artean	30,9	42	26,36
300.001 € eta 1.500.000 € artean	25,7	35	12,31
1.500.000 € baino gehiago	18,4	25	9,17
Guztira	100,0	136	100

5. TAULA: PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEEN JARDUN ESPARRUA. %

JARDUN-ESPARRUA	%	Kopurua	Liburu Zuria (%)
Osasuna	12,2	17	8,83
Enplegua	6,5	9	4,24
Gizarte-zerbitzuak	49,6	69	25,33
Aisialdia	6,5	9	12,96
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak	7,2	10	13,3
Soziala-Zeharkakoa	13,7	19	33,73
Beste batzuk	4,3	6	1,78
Guztira	100,0	139	100,0

10.3. Talde aliatuan parte hartu duten erakundeen zerrenda

AGINTZARI	Ainhoa Solozabal Borja Guerra
EDE TALDEA*	Idurre Armendariz Itziar Etxebarria
APNABI	Amaia Fernandez Mireya Garcia
CARITAS BILBAO	Pili Castro Idoia Perez de Mendiola Arritxu Zelaia (kanpo-aholkularia)
BIDEGINTZA	Gorka Vicente
URGATZI ELKARTEA**	Joseba Larrinaga
ZIBA ELKARTEA	Iñaki Izagirre
ENTREMANOS	Garazi Oregi
HURKOA FUNDAZIOA	Andikona Uriarte

*EDE Taldea lau erakundez osatutako taldea da (EDE Fundazioa, Suspergintza, Suspertu eta ST3).

**Urgatzi elkarteak ongizatea sustatzeko zerbitzuak eskaintzen dituen Urgatzi Taldearen barruan dago.

10.4. Online bidezko inkestan parte hartu duten erakundeen zerrenda

ERAKUNDEEI BURUZKO INFORMAZIO KUANTITATIBOAREN BILKETA. Inkesta bete zuten bi erakundek ez zuten eman erakundearen izenari eta egoitza nagusiaren kokalekuari buruzko informaziorik.

Araba (29)

- ACCU Araba
- APDEMA
- Arabako gorrak
- ASASAM
- Arabako Epilepsia Elkartea
- Arabako Diabetes Elkartea
- PRESTATURIK, Atzerriko Profesionalen Elkartea
- Asociación Española contra el Cancer J.P. Araba
- Laguntza, Laguntza eta Harrera Taldea
- Nuevo Futuro Elkartea, Araba
- Talur Elkartea
- ASOPARA
- ASPANAFOA
- ASPASOR
- ATECE Araba
- DOWN Araba-Isabel Orbe
- EHLABE
- Vicente Abreu Federazioa, minusbaliotasunekin lotutako elkarten federazioa
- FEVAPAS
- Secretariado Gitano Fundazioa
- Hirukide
- Iturrigorri Elkarlan

Bizkaia (71)

- A. E. Aldaika
- ABIPSE
- ACAMBI
- Adarra
- AFA Bizkaia
- ALCER Bizkaia
- Alind Ubie
- Apnabi
- Arrietane Fundazioa
- ASEBI
- ADECO Elkartea
- ASKABIDE Elkartea
- Bizitegi Elkartea
- Fiare proiektua babesteko elkartea
- Abanto-Zierbenako Ezintasun Fisikoak dituztenen Elkartea
- Bizkaiko Esklerosi Anikoitzaren Elkartea
- AEPA Euskadi
- ABBko aurre-erretiratuen eta erretiratuen elkartea
- Haurrentzat Elkartea
- Margotu Elkartea
- Emakumeak aniztasunean Elkartea
- Susterra Elkartea
- Zinegoak Elkartea
- Aspace Bizkaia
- ATECE Bizkaia
- AVIFES
- BENE
- Bidegintza
- Caritas Bilbo

Gipuzkoa (39)

- ACABE Gipuzkoa
- ACASGI
- ADEMGI
- AGIPAD
- Aisialdiko Sorginmuño B.T.
- Arraztalo Elkartea
- Erroak-Sartu Elkartea
- Adiskidetuak Kultura Arteko Elkartea
- LAGAEL Elkartea
- ASPANOZI
- ASPEGI
- ATZEGI
- AVAIM
- Bidez Bide Gizarte Sustapenrako Kultur arteko elkartea
- Bizi Bide
- Ekin Emakumeak AED Elkartea
- Matia Fundazioa
- PROYDE-PROEGA Fundazioa
- San Gabriel Egoitza Fundazioa
- Zorroaga Fundazioa
- GAXUXA Lezoko Emakume Elkartea
- Gehitu
- Gipuzkoako Elikagai Bankoa
- Gipuzkoako Epilepsia Elkartea
- Gizaide Fundazioa

Araba

- Menagaraiko Emakume Taldea
- PROKARDE
- Purisima Egoitza
- SARTU Araba
- SETEM Hego Haizea
- SOS Arrazakeria Araba
- Zabaltegi Judizmendi SLU

Bizkaia

- Lagun Artean Harrera Zentroa
- Euskadiko GGKEen Koordinakundea
- COORVISOR
- EAPN Euskadi
- EDE Fundazioa
- EDEKA
- Egintza
- Entremanos
- Etorkintza Elkargoa
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia
- Bosco Taldea Federazioa
- FEKOOR
- Aspaldiko Fundazioa
- Eragintza Fundazioa
- Gizkaia Fundazioa
- Harribide Fundazioa
- Miranda Fundazioa
- Novia Salcedo Fundazioa
- Gaztaroa Sartu Koop.
- Gaztetxo Eskola
- Gorabide
- Urgatzi Elkartea
- Harresiak Apurtuz
- Hirekin
- IRSE-EBI
- Irudi Biziak
- Kiribil Sarea
- La posada de los abrazos
- Lagungo Fundazioa
- Munduko Medikiak
- Oikocredit
- REAS Euskadi
- Sareen Sarea
- Euskalmon Elkartasuna
- Sortarazi
- SOS Arrazakeria Bizkaia
- ST3 Elkartea
- Suspergintza Elkartea
- Suspertu SL
- Gizakien Lurra
- ZIBA Elkartea
- Zubietxe

Gipuzkoa

- Hurkoa Fundazioa
- Icavi4all
- IRESGI
- Kabia Elkartea
- Kostan Elkartea
- Mugen gainetik
- Nagusilan
- Nura Gizarte Elkartea
- Teresa Dupouy GKE
- Ortzadar Elkartea
- Kutxa Zeharo proiektua
- Txantxangorriak Aisialdi Taldea
- Ume Alaia Gipuzkoa
- Urtxintxa Aisialdiko Eskola Gipuzkoa

10.5. Eztabaida-taldeetan parte hartu duten erakundeen zerrenda

BILBOKO EZTABAIDA TALDEAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK: INFORMAZIO KUALITATIBOAREN BILKETA

Araba (1)	Bizkaia (13)
<ul style="list-style-type: none">•ASASAM (pertsone bat)	<ul style="list-style-type: none">•AFA Bizkaia (pertsone bat)•Adarra (pertsone bat)•Agintzari (pertsone bat)•ASEBI (pertsone bat)•AVIFES (pertsone bat)•Bizitegi (pertsone bat)•Caritas Bilbao (2 pertsona)•EDE Taldea (2 pertsona)•Esklerosi Anizkoitza, Euskadi (pertsone bat)•Aspaldiko Fundazioa (pertsone bat)•Urgatzi Elkartea (pertsone bat)•Lagun artean (pertsone bat)•Sareen Sarea* (pertsone bat)

*Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkartea da

DONOSTIAKO EZTABAIDA TALDEAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK: INFORMAZIO KUALITATIBOAREN BILKETA

Gipuzkoa (3)
<ul style="list-style-type: none">•Hurkoa Fundazioa (pertsone bat)•Zorroaga Fundazioa (pertsone bat)•Zabalduz Koop. (3 pertsona)

**EUSKARA AHOLKULARIEKIN EGINDAKO EZTABAIDA TALDEAN PARTE HARTU DUTEN
ERAKUNDEAK: INFORMAZIO KUALITATIBOAREN BILKETA**

- Emun (pertsone bat)
- Artez (pertsone bat)
- Labayru (pertsone bat)
- Bai euskarari (pertsone bat)

10.6. Mintegian parte hartu duten erakundeen zerrenda

JARDUNBIDE EGOKIAK ETA EKINTZA PROPOSAMENAK

Araba (2)	Bizkaia (11)	Gipuzkoa (2)
<ul style="list-style-type: none">•ASASAM (pertsona bat)•APDEMA (pertsona bat)	<ul style="list-style-type: none">•Aspaldiko Fundazioa (pertsona bat)•Urgatzi Elkartea (pertsona bat)•Bidegintza (pertsona bat)•EDE Taldea (2 pertsona)•Apnabi (pertsona bat)•Avifes (pertsona bat)•Bizkaiko Gurutze Gorria (2 pertsona)•Bizitegi (pertsona bat)•Agintzari (2 pertsona) •Artez-Euskara-aholkularitza (pertsona bat)•Euskara-aholkularitza independentea	<ul style="list-style-type: none">•Zabalduz Koop. (pertsona bat) •Emun-Euskara-aholkularitza (pertsona bat)